# Goienkaria

2008ko maiatzaren 9a > Egubakoitza > VIII. urtea > 331. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net




"Mahai inguruen helburua da euskararen egoera zein den azaltzea"

**Jon Azkoaga**
AEDko kultura teknikaria > 09

**G2a** 'Txokolateixia' zabalduko dute Oñatin > 43-44

**OÑATI**
**Kurtiderixako etxeetarako izena eman daiteke astelehenean** > 33

**ESKORIATZA**
**Bolibarko bide zaharra hiru astez itxita egongo da** > 34

**LEINTZ GATZAGA**
**Arlabango Ama Birjinak mende erdia betetzen du aurten** > 39

**GREBA** > ARRASATEKO ALKATEAREN ATXILOKETA

# Jarraipen desberdina izan zuen greba deialdiak atzo Arrasaten

**ERDIALDEA** Erdiguneko denda eta taberna guztiak itxita egon ziren; han igarri zen gehien grebaren eragina

**LANTEGIAK** Hainbat lantegitan, emaitza ez zen loteslea, eta langile askok lanera joatea erabaki zuten

**ERTZAINTZA** Goizean, piketeak egon ziren erdialdean Ertzaintza joan zen, eta hogei bat lagun identifikatu zituen > 04

## Dena gertu dago Bergaran urteko lehenengo jai nagusiak has daitezen

Dena gertu dago Bergaran Bitorianatxori ongietorria egiteko eta, horrenbestez, Mendekoste jaiak jasteko. Ohikoa denez, Bitorianatxoren jaitsierak emango die hasiera jaiei, gaur, 20:00etan, Herriko plazan. Datorren martitzena arte, denetariko ekintzak egongo dira, eta horietarako herria gertu uzten ibili dira Udaleko langileak egunotan. > 45



**ZEZEN PLAZA** Udaleko langile batzuk, zezen plaza muntatzen, eguaztenean, Seminarioan. XABIER URTZELAI

**ARAMAIO** > AHT

## Ez dituzte lurrak desjabetu

Ez zieten utzi Sustapen Ministeriokoei aktak sinatzen > 06

**ELGETA** > DOMINGO ITURBE

## Luesmari zuzenketa eske

"Espainiako Gobernuko ordezkari ohi Paulino Luesmak hanka sartu du barruraino Domingo Iturbe kalearen auzian. Zuzenketa bat exijitzen diogu". Halako hitz gogorrekin salatu zuen Elgetako alkate Oxel Erostarbek Domingo Iturbe kalearen inguruan hainbat komunikabidek idatzitakoa. > 05

**KIROLA** > SASKIBALOIA

## Eskoriatza mailaz igo daiteke

Eskoriatzako neskek asteburuan jokatuko dute 2. Mailara igotzeko finala > 40

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-41
**Kultura** > 45
**Eskelak** > 46-47
**Sailkatuak** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55








AISIALDIA > UDALEKUAK

# Udako oporretan, etxeko txikiendako bada non gozatua ibarreko herrietan

**EKINTZAK** Jolasak, eskulanak, irteerak... egingo dituzte udaleku irekietan; adin bakoitzera egokitutako ekintzak antolatzen dituzte begiraleek

**IZENEMATEA** Udalekuak uztailean barrena egingo dituzten arren, izena emateko epea herri gehienetan zabalik dago oraindik

**HELBURUA** Umeek elkarrekin jolastuz ondo pasatzea da asmo nagusia; baita euskararen erabilera bultzatzea eta beste balore batzuk lantzea ere

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Udan mendiak badu bere enkantua, baita kostaldeak eta hondartzak ere, baina Debagoienean, herriko erdialdeko guneetatik asko aldendu gabe, udaleku irekietan ondo pasatzen dute umeek uztailean.

Udalak antolatzen ditu udalekuok kasu gehienetan; Arrasaten Txatxilipurdi elkarteak du ardura, Gatzagan Gurel guraso elkarteak eta Aretxabaletan Udalak Poxpolin taldearekin jarduten du elkarlanean. Antolatzaileek eman digute udalekuon berri.

**ONDO PASATZEA, HELBURU**

Udaleku irekien helburuari buruz galdetuta, antolatzaile guztiak bat datoz esatean udalekuak gertatzen dituztela umeei ondo pasatzeko aukera emateko.

"Hasieran sortu ziren euskara bultzatzeko, udan euskara erabiltzeko aukerarik ez zuten umeei aukera hori emateko. Orain, euskarak badu garrantzia, dudarik gabe, baina aisialdia eta umeek elkarrekin ondo pasatzea dira helburuak", esan digu Jone Larrañaga Antzuolako Udaleko Kultura teknikariak.




**Debagoieneko herri guztietan, antolatzaileen aurreikuspenen arabera, bi urtetik 14 urtera bitarteko 1.500 umetik gora ibiliko dira udaleku irekietan**

Oñatiko Udalak euskararen garrantzia azpimarratu du: "Haurrek elkar ezagutuz, jolas giroan, euren arteko harremanak sendotzea, eta behar berezia dutenei euskaraz egiteko aukera ziurtatzea dira udalekuen helburuak. Txikienentzat eta guraso erdaldunen umeentzat oso lagungarri gertatzen da udaleku hauetan ibiltzea", esan digute.

Aretxabaletako Kultura teknikari Inma Miguelek esan digunez, "gurasoak lanean dauden bitartean umeak zaintzeko zerbitzua ere betetzen dugu, nolabait, baina ez da hori asmo nagusia. Umeak joaten dira eurek nahi dutelako, beste umeekin jolas egiteko, beste ikastetxeetako umeekin ibiltzeko..."

Txatxilipurdi elkarteko Maite San Vicentek hitz gutxitan laburtu du udalekuen helburua: "Euskaraz ondo pasatzea".

**DISEINU BERRITZAILEA**

Helburuak betetzeko, askotariko ekintzak antolatzen dituzte begiraleek, adin bakoitzera eta umeen interesetara egokituak.

Arrasaten, txikienendako, 2 urtekoendako, bi orduko saioak antolatzen dituzte ludoteketan. Eskulanak, jolasak eta kantuak egiten dituzte, lasaitasunari eta konfiantza giroari lehentasuna emanez. Haur Hezkuntzakoekin goizez hiru orduz egoten dira. Uraren eguna, ginkana, altxorraren bila, jolasak, antzerkiak, eskulanak... egiten dituzte. "Arrakasta handien uraren egunak izaten du; puzgarriekin eta uretako jolasekin primeran pasatzen dute", esan digu Maite San Vicentek. Lehen Hezkuntzakoek daukate aukera goizez edo goiz eta arratsaldez joateko. "Gehienak goizez joaten dira, baina ia beti sortzen da talderen bat arratsaldeetarako. Arratsaldez egiten dugu lagunekin egingo luketen berbera baina dinamizatzen". Eurekin urtero egiten dituzte irteerak: Laleseko parkera, igerilekura, Getariako hondartzara... "Adinean gora doazen heinean, esparru zabalagoan mugitzen gara eta gau bat pasatzera aterpetxera ere joaten gara", dio Maite San Vicentek.

Antzuolako teknikari Jone Larrañagak esan digunez, "saiatzen gara kanpoko ekintzak antolatzen batez ere, kontuan hartuta udaleku irekiak eskolan egiten direla eta urte guztian barrena han sartuta egoten direla. Baina eguraldiak baldintzatzen ditu ekintzok. Lehen orduan eskulanak egiten dituzte. Jaietako karaokerako kantuak eta arropak gertatzen dituzte... Kanpoan zapien jolasak, olinpiadak, San Fermin eguna... egiten dituzte eta irteera bat ere egiten dute urtero".

"Umeek eskulanak eta beste ekintzak egin arren, jolastu egiten dute, batik bat", dio Aretxabaletako Inma Miguelek.


Herri gehienetan adinaren araberako taldeak egiten

**IRTEERAK GUSTUKO**

Ekintza gehienak herrian bertan egiten dituzten arren, irteerak ohikoak dira udalekuetan. Aramaiokoak Otxandioko igerilekura joaten dira, eta Aretxabaleta-

## Txatxilipurdikoekin etxetik kanpo egingo dituzte egonaldiak 10 eta 16 urte artekoek

Udaleku irekiez gain, Txaxilipurdikoek 10 eta 16 urte bitartekoendako udaleku itxiak antolatzen dituzte. Arrasatekoek lehentasuna dute, baina aukera dute ibarreko gazteek ere parte hartzeko, baita kanpokoek ere.

10-12 urtekoak Getariako Axkixu aterpetxera joango dira uztailaren 8tik 15era. Hondartzatik gertu, herri lasai batean astebeteko egonaldia egingo dute eta ohiko ekintzez gain, sorpresak ere izango dira.

12-14 urtekoak Orioko kanpinera joango dira, bi txandatan: uztailaren 1etik 11ra lehenengoak eta 11tik 21era bigarrena. Kanpinean sekulako montajea egiten dute, baina gazteekin autonomia lantzeko denen artean gertatzen dituzte jatekoak, garbiketak egin...

14-16 urtekoek Kosta ala kosta ibilaldia egingo dute uztailaren 3tik 10era. Ibilaldi lasaia izango da Donostiatik Oriora, Oriotik Zarautzera eta handik Lekeitiora autobusez. Toki bakoitzean bi gau egingo dituzte.



...n dituzte. Irudian, Aretxabaletako umeak udalekuetan. GOIENKARIA

koek eta Eskoriatzakoek ere egiten dituzte txangoak. Gatzagakoak zalditegira, Gamarrako igerilekuetara eta Gaztainuzketara gaua pasatzera joaten dira.

Gatzaga herri txikia izanik, udalekuetan ere bada ezberdintzasunik, txikiak izan arren. "Umeek elkar ezagutzen dute eta ondo moldatzen dira. Nagusienek ez dute ekintza guztietan parte hartzen, batzuk ume txikiendako direlako bereziki, baina irteeretara joaten dira", esan digu Gurel elkarteak.

Antzuolan izan ezik, gainontzeko herri guztietan zabalik dago oraindik izena emateko epea. Baina iazko ume kopuruari erreparatuta guztira 1.500 ume inguruk hartuko dute parte udalekuetan. Begiraleak ere horren arabera hartzen dituzte, batez beste hamar umeko begirale bat. Begirale taldeak ere osatzen dihardute oraindik eta udalekuen aurretik beti izaten dituzte formazio saioak besteak beste programazioa prestatzeko.

Jolasak, eskulanak, txangoak, lagunak, euskara... guztiak batera eta etxetik apenas urrutira joan beharrik gabe. Udaleku irekietan izena emateko aukera badago oraindik ere.

## Udaleku irekiak, herririk herri

| HERRIA | DATA | ADINA | EPEA | KOPURUA* |
|---|---|---|---|---|
| ANTZUOLA | Uztailak 1-17 | 5-12 | Amaituta | 95 |
| ARAMAIO | Uztailak 9-22 | 3-12 | Maiatzak 12 | 80 |
| ARETXABALETA | Uztailak 2-23 | 3-14 | Maiatzak 13 | 300 |
| ARRASATE | Uztailak 2-22 | 2-10 | Maiatzak 14 | 275 |
| BERGARA | Ekainak 30-Uztailak 24 | 2-12 | Maiatzak 30 | 300 |
| ELGETA | Uztailak 7-30 | 2-12 | Ekainean | 30 |
| ESKORIATZA | Uztailak 3-23 | 4-12 | Maiatzak 23 | 140 |
| LEINTZ GATZAGA | Uztailak 7-18 | 3-13 | Ekainak 27 | 25 |
| OÑATI | Uztailak 1-30 | 4-10 | Maiatzak 17 | 275 |

* Iazko ume kopuruari erreparatuta, aurtengo aurreikuspena.

Jon Iturbe > Begiralea

# "Begirale izatea ez da soilik umeekin jolasean ibiltzea; baditu ardurak"

I.A. > BERGARA

**Irakasle ikasketak egiten dihardu Jon Iturbek. Bere aisialdia askotan bat dator besteen aisialdiarekin, umeenarekin, hain zuzen ere. Aisialdi ekintzetan, udaleku irekietan zein ludotekan begirale jarduten du.**



IRATI AGIRREAZALDEGI

**Noiztik dihardu zu begirale lanetan?**

Jardun euskara elkarteko aisialdi taldean aurten hirugarren urtez dihardut; udaleku irekietan aurten egingo dut laugarrena Xipizarokoekin. Ludotekan ere inoiz jarduten dut. Gainera, nik txikitatik hartu dut parte aisialdi ekintzetan eta udalekuetan.

**Nolatan begirale lana?**

Umeak oso gustuko ditut eta begirale lana oso atsegina da. Umeekin lan egiten dudanean sumatzen dut eskertu egiten dutela gure lana eta hori norberarendako pozgarria da. Denetariko umeak daude, batzuk besteak baino maitagarriagoak dira eta badaude mimo bila etortzen direnak, eurengatik zerbait egin dezakegula uste dutenak... horrek asko betetzen nau. Elkarrekin ondo pasatzen dugu.

**Nork pasatzen du hobeto: umeek ala begiraleek?**

Badira uneak zeinetan haserre egin behar diegun umeei edo egoera guk kontrolatu behar dugun, ezin dituztelako mugak zeharkatu. Baina oro har denok pasatzen dugu ondo.

**Zein dira begirale izatearen alde onak eta txarrak?**

Begirale izatea ez da umeekin jolasean ibiltzea soilik. Begirale izateak berarekin baditu ardurak eta horretarako gutxieneko formazioa behar da. Ikastaroak egiten ditugu jolas eta ekintza berriak ikasteko. Nik neuk begirale ikastaroa egin nuen 2005-2006 ikasturtean; umeen jolasen gaineko ikastaroa ere egin nuen, baina esperientziak erakutsi dit gehien. Bestalde, begirale izateko pazientzia beharrezkoa da eta umeak agoantatzen jakin behar da. Umeak ez dira torlojuak eta gauza guztiekin, norberaren ahuldadeekin berehala konturatzen dira.

**Umeekin nola moldatzen zara?**

Ondo. Adin guztietako umeak ez dira berdinak, noski, eta horrek asko baldintzatzen du lana. Nik Lehen Hezkuntzakoekin jardun dut batik bat, baina txikiak ere gustuko ditut.

**Zer da umeei udalekuetatik gehien gustatzen zaiena?**

Umeei galdetzen diegu zer duten gustukoen eta saiatzen gara horretan oinarritzen jarduerak antolatzeko. Irteerak, esaterako, oso gustuko dituzte.

**Aurtengo udalekuetarako gertatu duzue ezer berririk?**

Maiatzaren amaieran hasiko gara programazioa gertatzen. Komeni da berritzea, ideiak aldatzea eta errutinan ez sartzea. Horretarako begiraleak beti izan behar ditu baliabideak eta hori esperientziak ematen digu.

**Nola animatuko zenituzke umeak udalekuetan parte hartzera?**

Umeei esango nieke ideia bikaina dela udalekuetara joatea elkar ezagutzeko eta lagun berriak egiteko. Udan gora begira egon eta aspertu beharrean, guk eskainiko dizkiegula gauzak entretenitzeko eta ondo pasatzeko: eskulanak, irteerak, bideo emanaldiak... Bestalde, udalekuak balore berriak lantzeko ere egokiak direla esango nieke.

**"Umeekin lan egitean sumatzen dut eskertu egiten dutela gure lana, eta horrek betetzen nau"**

**"Begirale izateko, pazientzia beharrezkoa da, baita umeak agoantatzen jakitea ere"**



**ARRASATEKO ALKATEAREN ATXILOKETA** > ONDORIOAK

# Jarraipen ezberdina izan zuen grebak Arrasateko erdigunean eta enpresetan

Mankomunitatean batzarra egin zuten eguaztenean egoera aztertzeko; gaur, prentsaurrekoa eta kontzentrazioa egingo dute Kulturaten



Herriko kaleetan ibili ondoren Herriko Plazan bildu ziren manifestariak. GOIATZ ARANA

ESALDIA

## "Garrantzitsuena da Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu batzordea osatzen dugun kideok aho batez adostutako testua izan dela"

**Pedro Lasagabaster**
> Mankomunitatea,

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRRASATE

Atzoko deituta zegoen greba orokorrak jarraipen ezberdina izan zuen Arrasateko lantegietan eta taberna eta denda txikietan. Herritar talde handi batek deitu zuen greba orokorra atzorako Arrasaten. Ino Galparsoro alkateari babesa eman eta haren espetxeratzea salatzea izan zen grebaren helburua.

07:30erako, piketeak zeuden Arrasateko erdialdean. Han zeuden herritarrek jakinarazi zutenez, Ertzaintza joan zen eurak zeuden tokira eta jarrera probokatzailea erakutsi zuten. Gainera, 33 pertsona identifikatu zituzten. Gaineratu dute pertsona bati salaketa ipini ziotela, eta deklaratzera deituko dutela esan ziotela. Ertzaintzak adierazi zuen ez zela arazorik egon goiz partean, ezta manifestazioan ere. Hala ere, piketeetan zeudenei identifikatzeko eskatu zieten; 20 pertsona ingururi.

**ERDIALDEAN, DENA ITXITA**

Esan bezala, greba deialdiak erantzun ezberdina izan zuen lantegietan eta merkatu txikian. Arrasateko erdialdeko denda eta taberna ia guztiak itxi egin zituzten. Erdialdean nabaritu egin zen grebak izan zuen eragina. Hiper Eroski itxita egon zen, eta baita udal zerbitzu guztiak ere. Lantegietan, ordea, erantzuna bestelakoa izan zen. Hainbat lantegik bat egin zuten deiarekin; hala ere, lantegi askotan ez zen loteslea izan emaitza. Hala, langile asko lanera joan zen. Ez zuten deialdiarekin bat egin, besteak beste, Fagor Elektratresnek, Fagor Elektragailuek, Fagor Elektronikak, Fagor Ederlanek eta Automationek, Euskadiko Kutxak eta Ikerlanek. Beste egun batzuetan egoten den joan etorria ikusi zen atzo ere lantegi inguruetan.

**MANKOMUNITATEAN ERAGINA**

Bestalde, Galparsororen atxiloketak eragina izan du Debagoieneko Mankomunitatean ere. Gogoratu Arrasateko alkatea Mankomunitateko lehendakaria ere badela.

Debagoieneko Mankomunitatean batzarra egin zuten eguaztenean. Aho batez onartu zuten Gobernu junta osatzen duten kideek Eskoriatzako alkate eta Mankomunitateko lehendakariorde Pedro Lasagabasterrek aurkeztutako proposamena. Onartutako adierazpenean eskatzen da Galparsoro berehala askatzea, pertsona gisa dagokion askatasuna, eta udal eta Mankomunitateko zereginak eta jarduna berreskura ditzan. Adierazpenak esaten du bozetan herriak aukeratu zuen alkatea atxilotu dutela "inolako arrazoirik gabe" eta "zentzugabea eta bidegabea" dela.

Pedro Lasagabasterrek esan du Mankomunitatean ez dela aldaketarik egongo. "Nik lehendakariorde bezala bete behar batzuk izango ditut, baina Inok jarraituko du lehendakari karguan", dio Lasagabasterrek. Honen berri emateko, gaur, 10:00etan, prentsaurrekoa emango dute Kulturaten. Ondoren, kontzentrazioa egingo dute *Mankomunitatea lehendakariarekin, Ino askatu* lelopean.

UDALA

## Oihana Aranburu da jarduneko alkatea Arrasaten

Ino Galparsoro alkatearen kartzelaratzeak nahitaezko aldaketak ekarri ditu Udaleko funtzionamenduan. Hala, momentuz orain arte alkateordea izan den Oihana Aranburu izango da Arrasateko jarduneko alkatea. Horixe da, oraingoz, Udalak ziur baieztatu duen aldaketa bakarrenetarikoa, izan ere, Ino Galparsororen kartzelaratzeak ezustean harrapatu ditu bai Udaleko zinegotziak eta baita langileak ere. Beste hainbat arlo erabakitzeke daude oraindik. Hala, ez dute zehaztu Galparsorok bere baitan hartzen zituen batzordeak zeinen eskuetara pasako diren.

Garzon epailearen erabakiaren beste ondorioetako bat Eusko Abertzale Ekintza taldearen desagertzea da. Erabaki horren ondorioz, hemendik aurrera alderdi horren ordezkari izan diren zinegotziek ezingo dute alderdi horretako kide moduan jardun ezta udal barruko jardueretan ere. Aukeretako bat da talde mistora pasatzea.

ELKARTASUNA

## Hainbat eragilek salatu dute kartzelaratzea

Arrasateko eta, orokorrean, ibarreko hainbat eragilek salatu dute Arrasateko alkatearen kartzelaratzea. Garzon epaileak hartutako erabakiaren aurrean sindikatuek, indar politikoek eta udaleko langileek euren iritzia azaldu gura izan dute.

Arrasateko langileek eguaztenean egindako batzarrean hainbat erabaki adostu zituzten: besteak beste, *Ino Udaletxera* dioten karteltxoak ateratzea eta kartzelatik irten arte haren askatasuna aldarrikatzea.

Bestalde, Arrasateko Udaleko ESK sindikatuak alkatearen atxiloketa arbuiatu du eta familiari elkartasuna adierazi gura dio. ELA sindikatuak Arrasateko alkatea berehala aske uztea exijitzen du. Gainera, bidegabekeria deritzo Garzonek emandako aginduari. Arrasateko Udalean Aralar alderdiko zinegotzi Joxe Etxeberriak salatu du Garzonek "dakien bide bakarra" erabili duela alkatea kargutik kentzeko: indarra, hau da, kartzela.

GALPARSORORENEGOERA

## Egoera gogorra izan arren, indartsu dagoela dio familiak

"Bizi duen egoera gogorra da", esan du Ino Galparsororen alaba Saioak. Baina, egoera horren aurrean ahalik eta indartsuen dagoela gaineratu du. Izan ere, ez da egoera samurra bizi duena. "Kartzelan dago eta, adoretsu egotea zaila den arren, indartsu dago. Egoerari aurre egiteko indarrak baditu amak", dio Saioak.

Familiakoak domekan izan ziren Soto del Realen Ino Galparsoro bisitatzen. "Astean behin egoten da bisita egiteko aukera", azaldu du Saioak. Egun hauetan senitartekoek jaso dituzten elkartasun eta babes mezuak asko izan dira. Hala, Ino Galparsorori elkartasun hori transmititzen saiatu direla esan dute familiakoek. "Amak lan asko egin du; hortaz, jende mordoa ezagutzen du. Hori dela-eta, herritarrengatik eta hainbat eragileren aldetik jaso dugun elkartasuna handia izan da", diote familiakoek. Ezagunen aldetik jasotako babesa amari transmititzen ahalegindu direla esan dute.



**POLITIKA** > DOMINGO ITURBE KALEAREN AUZIA

# "Zuzenketa bat exijitzen diogu Paulino Luesmari"

Elgetako alkate Oxel Erostarbek atzo egin zion eskaera Espainiako Gobernuko ordezkari ohiari

Era berean, Domigo Iturbe kaleari izena ez diotela aldatuko azaldu zuen prentsaurrekoan



Domingo Iturberen irudia, Ana Gillegi zinegotziaren eta Oxel Erostarbe alkatearen alboan. Argazki txikian, kalearen irudi bat. M.B

**MIREIA BIKUÑA** > ELGETA

"Espainiako Gobernuko ordezkari ohi Paulino Luesmak hanka sartu du barruraino Domingo Iturbe kaleraren auzian. Horregatik, zuzenketa bat exijitzen diogu, eta jakin dezala ez dugula kalearen izena aldatuko". Halako hitz gogorrekin salatu zuen Elgetako alkate Oxel Erostarbek herrian dagoen Domingo Iturbe kalearen inguruan hainbat komunikabidek idatzitakoa.

Arazoa duela hilabete eta erdi hasi zen, Paulino Luesmak egindako adierazpen batzuk irakurrita: "Zioen zortzi herritan, tartean Elgetan, ETAko kide izandakoen omenezko kaleak zeudela. Hain zuzen, Domingo Iturbe kalea", azaldu zuen Erostarbek. Adierazpen haien ondotik, Luesmaren gutun bat heldu zen Udalera, eta hauxe zioen: "Zuen herrian Domingo Iturbe izeneko kale bat dago, eta horrek ohore eta duintasun eskubideak urratzen ditu". Elgetako udal arduradunen harridurarako, egun batzuk geroago, Dignidad y Justicia elkarteko gutuna jaso zuten esanez "Elgetan, Domingo Iturbe, ETAko kide izandakoaren omenezko kale bat" zegoela, eta kalearen izena aldatzeko eskaera egiten zioten Elgetako alkateari, apirilaren 30a baino lehen, bestela, "auzia epaitegietara eramango" zutela azpimarratzen zuten.

"Okerrena da gurekin ez dela inor zuzenean hartu-emanetan jarri. Dignidad y Justicia elkarteak Espainiako komunikabideetan irakurri duenarekin nahiko izan du kalearen izen-aldaketa eskatzeko. Bada, jakin dezatela Elgetako bizilagun guztiek dakitela Domingo Iturbe Elgetan jaio zela 1833. urtean, eta ez zela ETAko militantea izan", esan zuen alkateak.

**"EZ DIOGU IZENA ALDATUKO"**

Horren harira, Oxel Erostarbek argi eta garbi utzi zuen ez diotela kaleari izena aldatuko: "Paulino Luesma eta Dignidad y Justicia Elkarteko presidente Daniel Portero de la Torresi garbi esan nahi diegu ez dugula kaleraren izena aldatuko, eta ez ditugula inongo erakunde eta elkarteren mehatxuak onartuko".

Gainera, esan zuen Luesma, Portero de la Torre eta, besteak beste, *El Mundo, La Razon* eta *ABC* egunkariak "barregarri" geratu direla, auzi honetan "beraien helburu bakarra da, Euskal Herri guztia ETArekin lotzea, eta gure lurraldean, dena ez da ETA. Garbi izan beharko lukete hori".

Bestalde, Espainiako Gobernuko egungo ordezkari Mikel Cabiezesi Domingo Iturbe kaleari izena jartzeko egindako bilerako akta bidali diotela esan zuen alkateak: "Kalearen izena onartzeko batzarra 1994. urtean egin zen, eta aktan irakurriko dute bozketa egiteko garaian HBko zinegotzi zirenak abstenitu egin zirela, haiek, kalearendako beste proposamen bat zuten-eta. Orduan konturatuko dira hanka barruraino sartu dutela. Era berean, espero dugu, akta irakurri ondoren, Espainiako Gobernuko ordezkaria gurekin harremanetan jartzea".

Horregatik guztiagatik, "zuzenketa bat exijitzen" diote Paulino Luesmari. "Barregarri geratu da, gure herriko kalearen izenaren gaineko informazioa eskatu barik, adierazpenak egin dituelako. Halako kargua duen pertsona batek derrigor egon behar du ondo informatuta".

NOR ZEN DOMINGO ITURBE?

## Ameriketan aberastu zen Elgetako semea

Domingo Iturbe 1833. urtean jaio zen Elgetan. Ameriketara joan zen, eta urrearekin aberastuta itzuli zen herrira. Gizon elizkoia zen, eta 1911. urtean Jesusen Bihotzaren kristau eskolak sortu zituen, 5 eta 15 urte arteko haur eta gazteei heziketa erlijiosoa doan emateko helburuarekin. Gainera, inguruko herrietatik joandako ikasle gutxi batzuk ere egon ziren bertan. Berak sortutako eskolan, euskaraz berba egin eta eskolak ematen zituen irakasle bat egon zen. Domingo Iturbek sortutako eskolak 25 urte iraun zuen, hain zuzen, gerra hasi arte. Orduan sortu zen egun oraindik ere martxan dagoen Domingo Iturbe izeneko fundazioa.

LASAGABASTER

LASAGABASTER

w w w . l a s a g a b a s t e r . c o m

Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55




Ertzaintzak eskoltatuta heldu ziren Ministerioko langileak Aramaioko plazara; han, 150 lagun zeuden protestan. Argazkiaren erdian, Aramaioko alkatea. GOIENKARIA

**AHT** > DESJABETZEAK

# Aramaion ere bertan behera geratu dira lurren desjabetzeak

Sustapen Ministerioko langileak herritarren oihu artean heldu ziren Aramaioko plazara

Sinadurak bertan behera uzteko dokumentuak ekarri zituzten Ministerioko ordezkariek

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARAMAIO

Martitzenean joan ziren Aramaiora Abiadura Handiko Trenaren lanak egin ahal izateko lurren desjabetzeen aktak sinatzera Espainiako Sustapen ministerioko langileak. Baina orain dela aste pare bat Eskoriatzan gertatu bezala, bertan behera geratu zen Aramaion ere.

10:30ean ziren heltzekoak Sustapen Ministerioko langileak Aramaioko udaletxera, baina aurreratu eta 09:45ean heldu ziren. Goizean goizetik Aramaioko plaza eta udaletxea jendez beterik zegoen. Ministerioko ordezkariak Ertzaintzak eskoltatuta sartu ziren plazara, han zeuden 150 lagun ingururen kontrako oihuen artean.

**SINADURAK BERTAN BEHERA**

Lurren desjabetzeen sinatzea zen euren egitekoa, baina sinadura horiek bertan behera uzteko dokumentuak prestatuta ekarri zituzten Ministerioko langileek. Orain, gobernu ordezkaritzak zehaztuko du non eta zein egunetan sinatuko diren aktak.

**HERRI PROTESTAK**

Aramaion 70 lursail desjabetuko dituzte. Udalari dagokionez, hainbat lursail eta bide desjabetuko dizkiote. Desjabetze akten herri protestekin astelehenean hasi ziren Aramaion; iluntzean, 300 bat lagun elkartu ziren manifestazioa egiteko herriko plazan. Gainera, 30 lagun inguruk udaletxeko arkupeetan eman zuten martitzeneko gaua, protesta gisa.

'GELDITOUR'

## Eguenean iritsiko da 'Gelditour' gurera

Cortesen (Nafarroa) hasi zen AHTren aurkako ekimen ibiltaria hilaren 4an, domekan; eta hilaren 31n amaituko da, Donostian. Egun horietan hainbat herri pasatuko ditu *Gelditour* birak; tartean, Bergara, Arrasate, Antzuola eta Eskoriatza.

Hain zuzen, hilaren 15ean, eguenean, helduko da *Gelditour* gure ibarrera. Bergaratik sartuko da eta goizean zehar bergarako kaleetan ibiliko da. Arratsalde partean, berriz, Arrasateko kaleetan ibiliko da *Gelditour* bira. Hurrengo egunean, hilaren 16an, Antzuola eta Eskoriatzako kaleetan ibiliko da AHTren aurkako ekimena.

ESKORIATZA

## Alkate ohia eta eledun ohi bat auzipean

Bengoari eta Jabier Villarri dokumentu publikoak faltsutu izana egotzi diete

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Eskoriatzako alkate ohi Juan Carlos Bengoa eta Elizateetako zinegotzi ohi Jabier Villarri sei urtera arteko kartzela zigorra ezarri ahal diezaiekete, dokumentu publikoak faltsutu dituztela ziurtatzen badu Probintzia Auzitegiak.

**AUTOBIDEARI ALEGAZIOA**

2005eko San Pedro jaien inguruan, Udaleko Azpiegitura batzordean Aldundiko Errepide Sailari autobidearen gaineko alegazio bat egitea onartu zuten. Alegazioan zehaztu zuten autobidearen proiektuaren lehenengo aldaketa aztertzeko denbora behar zutela. Batzordea alderdi politiko guztietako ordezkariek osatu zuten, eta helburua zen autobidearen gainean hobekuntzak aztertzea eta adostea.

**EPAITEGIZ EPAITEGI**

Kontua da alegazioa onartu zutenetik erabakiari sarrera ofiziala eman zioten arte hamar bat egun pasa zirela, eta hori auzitara eraman zuen Aldundiak. Bergarako epaitegian fiskalak eta epaileak ez zuten deliturik antzeman. Baina Aldundiak berriro eraman zuen auzitara, Donostiara. Horren ostean, akusazio partikularra, Aldundia, kasutik erretiratu zen, baina fiskalak aurrera egin zuen.

2008ko apirilean deklaratzera deitu zituzten, baina zigorrak sei urtera artekoak izan daitezkeenez, kasua Probintzia Auzitegira pasatu dute. Bengoak ez du adierazpenik egin gura izan, eta Villarrek azaldu du Aldundia oso haserre zegoela, Udalak autobidearen aurrean jarrera aktiboa izan zuela.


comercial BRUNET
YANMAR
Etor zaitez gure produktu japoniarrak ezagutzera!
Telleria kalea 2, Labegaraieta industrialdea - BERGARA
Tel.: 943 76 31 52 - Faxa: 943 76 70 12
e-mail: *brunett@telefonica.net* - www.comercialbrunet.com


**kontsumoa**


Familia ugariek erraztasun gehiago izango dituzte. GOIENKARIA

## Familia ugariek dirulaguntza oparoagoak jasoko dituzte

**N.M.** > BERGARA
Milioi erdi familia ugari daude Espainian. Kopuru altua izan arren, BPG osoaren %0,85 bakarrik erabiltzen dute hauek laguntzeko eta, erkidegoaren arabera, asko aldatzen da laguntzaren zenbatekoa. Euskal Autonomia Erkidegoak oparoenetarikoak ematen ditu, baita Nafarroak ere.

Orain arte, hiru ume baino gehiago zituzten familiak kontsideratu dira ugariak. Legedia aldatu egin da eta, orain, beste batzuk ere sartzen dira titulu horren pean. Bi seme-alabetako familiak ugaritzat hartuko dira, horietako bat elbarria denean edo gurasoak elbarriak direnean.

Titulua jaso bezain pronto, familia horiek abantaila ugari izango dituzte: lehentasuna izango dute bekak eskatzean, etxebizitzaz aldatzeko erraztasunak eta, seme-alabak zaintzeagatik eszedentzia eskatzekotan, lanpostua gordeko zaie. Gainera, behin ugari izanda, beste seme-alabaren bat edukitzen badute, 3 500 euroko dirulaguntza emango diete.



## Faktura elektrikoa %12 jaitsi daiteke tresnak guztiz emendatuz

Etxeko tresnak *standby* delakoan lagatzen baditugu kontsumitzen jarraitzen dute. Guztiz emendatzen baditugu, gure urteroko fakturan %12ko aurrezpena igarriko dugu, WWF/Adenaren iritziz. Elkarte ekologista horrek energia alperrik ez gastatzeko hainbat aholku batu ditu: adibidez, A motako tresnak erostea, mugikorra kargatu ondoren entxufetik kargadorea ateratzea eta etengailua duten entxufe anitzeko paletak erabiltzea.



## Janaria prestatzeko olioa, birziklatuz, diesel gasolina bihurtu daiteke

Sukaldean erabiltzen dugun olioa era egokian birziklatu gero, diesel gasolina bihurtu daiteke. Gainera, inguru-menari egin diezaiokeen kaltea desagertu egiten da berrerabilpenaren bidez. Olio litro batek, mila litro ur kutsatzeaz gain, ur-hodietan kalte handiak egin ditzake. Erregai horren erabilpenak produkzio kostuak merkatuko lituzke. Hala ere, diesel mota horren produkzioa oso baxua da, petrolio konpainia handiei ez zaielako interesatzen.

**Aitor Axpe** > Arkitektoa eta Arizmendiko irakaslea

# "Beti iraunkortasunarekin sentsibilizatuta, merkatuan egiten dena irakasten dut"

**NEREA MENOR** > ARRASATE
**Aitor Axpek Arizmendin dihardu irakasle lanetan, baina arkitektoa ere bada. 5 urtean Gasteizen ibili da arkitekto estudioetan eta duela urtebete hasi da bere kabuz lanean. Arkitekto eta irakasle lanak uztartzea izan da betidanik haren gogoa, eta horretan dabil. Gaur, XXI. mendeko etxebizitzen gaineko jardunaldia egingo dute, eta horiek antolatzen ere ibili da.**


Aitor Axpek arkitekto eta irakasle lanak uztartzen ditu. NEREA MENOR

**Noiz eta nola sortu zen jardunaldi hauek egiteko ideia?**
Eraikuntzako zikloa izanik, arlo horretako enpresekin harremanak edukitzea ezinbestekoa da. Azken finean, Lanbide Heziketako zikloek lan munduan sartzeko prestatzen dute ikaslea, eta enpresen beharrak zeintzuk diren jakin behar dugu, ikasleak behar bezala prestatzeko. Arizmendik, LKS ingeniaritzak eta Arrasateko Udalak antolatutako jardunaldiak dira, eta enpresetan dauden ezagutza-beharretan laguntzeko eta elkartrukatzeko sortu ziren.

**Ze gai jorratuko dira?**
Aurreko urtean lehenengo jardunaldia izan zen eta hura hartu zen bide bezala ingumenarekiko errespetuari eta eraikuntza iraunkorrari buruz aritzeko. Aurten, bide berberarekin jarraituz, LOE eta CTE dokumentuetan oinarritu gara gehienbat. CTEk sortu duen aldaketa hain handia izan denez, ezin izan ditugu puntu guztiak jorratu, eta bi aukeratu ditugu: lehenengoa, egituren segurtasuna eta horren barruan egurrezko egiturak; eta bestea, energiaren eraginkortasuna eta horren barruan bi puntu: erosotasuna eta energiaren eraginkortasuna etxebizitzan eta eraikuntza eta iraunkortasuna; azkeneko ponentzia hori Luis de Garridok emango du.

**Edozein publiko motari zuzenduta daude?**
Guztiendako jardunaldiak dira: zikloetako ikasleek, enpresariek, arkitektoek, ingeniariek eta udaleko teknikariek har dezakete parte. Izan ere, gai berriak sortzen direnean, berrikuntzak azaltzeko honelako jardunaldiak egiten dira.

**Aurrekoetan baino matrikula gehiago egin da?**
Aurreko urtean oso harrera ona eduki zuen eta aurten entzuleria finkatzen doala uste dugu. Matrikulatuen kopurua igo egin da, 70 inguru daude.

**Antzeko jardunaldirik badago hemendik gertu?**
Hemendik gertuen, Gasteiz, Bilbo eta Donostian daude. Elkargoak hiriburuetan egoten dira, eta, haiek sortzen dituztenez, bertan izaten dira. Horietaz aparte, hainbat unibertsitatek ere antolatzen dituzte.

**"Inguruarekiko errespetua eta eraikuntza iraunkorra landu behar da"**

**"Luis de Garrido arkitekto ospetsua egongo da jardunaldietan"**

**"Datorren kurtsoan, Obra Planen Burutzapena zikloa emango da Arizmendin"**

**Zer erlazio dauka Arizmendik eraikuntza munduarekin?**
Eraikuntza Proiektuen Garapena eta Aplikazioa izeneko goi mailako heziketa zikloa daukagu duela 8 urtetik. Datorren urteari begira, aurretik eskaini izan dugun beste ziklo bat berreskuratu nahi dugu: Obra Planen Burutzapena. Harrera ona edukitzea espero dugu.

**Arizmendiko irakaslea izateaz gain, arkitektoa ere bazara.**
Arkitekto nabil lanean. Bost urtean Gasteizen ibili nintzen arkitektura estudioetan, bi Jesus Mesanzarekin eta hiru Pablo Carretonekin. Duela urtebete inguru nire kabuz nabil lanean. Horrekin batera irakasle lanetan nabil. Beti iraunkortasunarekin sentsibilizatuta, merkatuan egiten den lana irakasten saiatzen naiz.

**Luis de Garrido arkitekto ospetsua egongo da jardunaldietan. Azalduko diguzu hark egin duen ibilbidea?**
Iraunkortasunaren gaian oso pertsona aurreratua da. Duela 10 urtetik hona proiektu iraunkorretan dabil lanean. Erreferentziazko pertsonaia da nazioartean. Inguruarekiko errespetua erakutsi nahi genuenez, De Garrido ekartzeko ilusio handia genuen. EEEN (Etorkizuneko Eraikinen Elkarte Nazionala) eta AIENeko (Arkitektura Iraunkorreko Elkarte Nazionala) sortzaile eta lehendakaria da, eta proiektu asko ditu: Ternuko eko-hiria, Kolonbian; beirazko etxebizitza oso bat, zubiak, etxe-orratzak...

gure artekoak

**OPEL ASTRA SEDAN** > Martxoan merkaturatu zuen Opel etxeak Astra berria. Aurrekoekin alderatuz, oraingo modelo berria handiagoa da. Hiru dimentsiokoa autoa da; hala, maletategiak espazio handiagoa du.

**Karlos Etxaniz** > Opel Giauto etxeko salmenta sailekoa

# "Ikaragarri ona da autoaren kalitate eta prezio lotura"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Martxoan merkaturatu zuen Opel etxeak Astra berria. Lehengoarekin alderatuz, diseinu berria du oraingo autoak. Astra Sedan modeloaren berrikuntza nabarmenena maletategiak duen espazioa da: "Hiru bolumeneko autoa da; hortaz, batez ere maletategian irabazten du espazioa autoak", dio Karlos Etxanizek, Giauto etxeko salmenta arduradunak. Orain arte hiru bertsio izan ditu Opel Astra autoak: hiru ate, bost ate eta familiarra. Sedan berriak, berriz, lau ateko modeloa eskaintzan du.


Carlos Etxaniz, Opel Astra Sedan berriarekin. A.E.

**TAMAINA EDERRA**

"Autoaren tamaina ederra, bizigarritasun ona eta maletategi handia bereiztuko nituzke. Gainera, ekipamendu guztia dauka eta kalitate eta prezioaren arteko harremana oso ona da", azpimarratu du Etxanizek autoaren ezaugarriez galdetuta. "18.000 euroren truke hori guztia izatea oso ondo dago. Gainera, motorra diesela da", jarraitu du. Beste datu bat ere aipatu du Etxanizek: kontsumo txikia.

Eskaintza berezi bezala, Astra Sedan Enjoy modeloak *Enjoy Paketea* dakar. Pakete horren barruan sartzen dira airegirogailua, aleazio hagunak, gurutzaldi-abiadura kontrola, MP3 eta konexio osagarria, besteak beste.

**Opel Astra Sedan 1.7 CDTI 100 ZP**

| | |
|---|---|
| Prezioa | 18.000 euro |
| Luzera | 4,58 metro |
| Zabalera | 2,03 metro |
| Maletategia | 490 litro(1) |
| Kontsumoa | 5 litro /100 km(2) |
| Abiadura | 180 km/h(3) |
| Otik 100era | 12,3 seg. |
| CO2 isurketak | 135 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

**SEGURTASUN OSOA**

Autoak segurtasun neurri guztiak bermatzen ditu: "Aipatzekoak dira: ESP sistema eta TC sistema", dio Etxanizek. Sistema horien bitartez, autoa bidetik irtetera badoa, automatikoki autoaren norabidea zuzendu egiten da. "Bestalde, PRS sistemaren bitartez, kolpe bat izanez gero, oinetako pedalak askatu egiten dira eta oinetan ez da minik hartzen", gaineratu du. Segurtasun osoa du, hortaz, Astra berriak.

etxeko leihotik



**Goiatz Arana** > goitb@goiena.com

## Pazkoetan hasi eta... festarik festa!

Gaur 20:00etan izango da Bitorianatxoren jaitsiera Bergarako plazan, eta, horrekin, festa lehertuko da herrian. Parranda gogoz denak Bergararako bidea hartu dezake, beraz, aste bukaera honetan, baina dagoela lasai, hemendik aurrera izango du-eta han eta hemen makina bat festa!

Bergaran ahalegin berezia egin dute aurten, jai giroa igarri dadin. Aspaldiko ohituretara bueltatuz, bost egunez soinean blusa, kamiseta, peto edo dena delako jantzi koloretsua eraman dezaten dei egin diete herritarrei; plazan eta kaleetan banderatxoak eskegi dituzte; eta barrakak aurreko urteetan baino merkeago izatea lortu dute: 1,20 euro bidaia bakoitzeko. Udalak lau bider diru gutxiago jasoko du ordainetan lurzoruaren alokairuagatik; hori izan da tratua. Herri mugimenduarekin hartu-emanak hobeak izan dira eta eurek antolatutakoei ere egin zaie lekua egitarau ofizialean. Jai batzordearen partetik borondatea ikusten da, beraz; ea bergararrek neurri berean erantzuten duten, eta jaiegunok kanpora irteteko beharrean herrian antolatu direnez gozatzeko aprobetxatzen duten!

**"Barrakak aurreko urteetan baino merkeago izango dira aurten"**

**> Maiatzaren etorrerarekin besterik ere igarri dugu alergia dugunok: seinale da eguzkiaren presentziak eta tenperaturen igoerak dantzan jarri dituztela inguruko lore eta landareak.**

**> Mendira eta hondartzara jotzen du jendeak horrelako giroarekin. Gaur zortzi Urbiako fonda eta inguruak eta Donostiako itsasertza nola zeuden ikustea aski da horretaz jabetzeko.**

begi-bistan



**Transhumantzia Bergaran (Bergara) 2008/04/23**

**Argazkia:** Oihana Elortza.
**Testua:** Mireia Bikuña.

Ohikoa ez den arren, oraindik ere transhumantzia egiten den adibidea dugu argazkikoa. Bergarako Labegaraieta atzeko bidegorritik pasa ziren duela aste batzuk ardiak eta artzainak.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



**Aitor Arregi**
ZINEMA ZUZENDARIA

Zinema eta Giza Eskubideen Jaialdiak emandako saria jaso du Moriarti Produkzioak, *FGF* pelikularengatik. Hain zuzen, zuzendari oñatiarra Moriarti taldeko kide da, Jon Garaño, Xabier Berzosa, Jose Mari Goenaga, Asier Atxa eta Jorge Gil Munarrizekin batera.



**Miguel Lazpiur**
CONFEBASKEKO PRESIDENTEA

Uztailean bukatzen zituen Miguel Lazpiur bergararrak Confebaskeko presidente lanak. Adegiko errektore kontseilua, ordea, Lazpiurrek jarrai dezala nahi du eta halaxe eman du aditzera. Orain, Confebaskeko kontseilu orokorrak berretsi beharko du erabakia.



**Ritxar Fernandez**
KORRIKALARIA

Giokela-Antxintxiketan taldeko korrikalari oñatiarrak 11. tokian bukatu zuen Zaragozako maratoi erdia. Haren aurretik bederatzi atzerritar sailkatu ziren. Ritxar Fernandezek antolatzaileen gonbidapena onartu zuen, eta lasterketa ona egin zuen.

Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) duela 25 urte sortu zen Arrasaten, euskararen normalizazioa lortzeko helburuarekin. Ordutik, hainbat lan egin ditu euskararen erabilera normalizatzeko eta sustatzeko. Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuko dituzte abenduaren 31ra arte, baina urtero antolatzen dituzten ekitaldiak ere ez dira faltako.

**Jon Azkoaga** > AEDko kultura teknikaria

# "Mahai inguruen helburu nagusiena da euskararen egoera zein den azaltzea"

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

**Jon Azkoaga (Arrasate, 1985) AED Euskara Elkarteko kultura teknikaria da. Elkartearen urteurrena ospatzeko hiru mahai inguru antolatu dituzte, hainbat esparrutan euskararen egoera aztertzeko. Horien berri eman digu.**



Argazkian, Jon Azkoaga, AEDko kultura teknikaria.

JOKIN BEREZIARTUA

**Eguaztenean hasi zineten mahai inguruekin, hain zuzen gazte ekimenetan euskarak bizi duen egoera aztertuz. Hurrengo bietan gizarte mugimenduetan eta lan munduan euskarak duen egoera aztertuko duzue. Zergatik aukeratu dituzue esparru horiek?**

Guk antolatu ditugun mahai inguruen helburu nagusia da euskararen egoera zein den azaltzea, eta horregatik aukeratu ditugu hiru esparru horiek, gazte ekimenetan, lan munduan eta gizarte mugimenduetan lana egin dugu-eta euskararen erabilera bultzatzeko.

**Hurrengo hitzaldiak maiatzaren 14an eta 21ean izango dira.**

Bai, hala da. Hurrengo eguazteneko mahai inguruan, gizarte mugimenduetan euskarak bizi duen egoeraren gainean egingo dute berba Topaguneko Jasone Mendizabalek, AEK-ko Oskar Elizburuk eta Euskal Herrian Euskaraz elkarteko kide batek.

Gainera, maiatzaren 21ean, lan munduan euskarak duen presentzia aztertuko dute. Hain zuen, Emun-eko ordezkari Dani Larreak eta Elhuyarreko ordezkari batek egingo dute berba. Azkeneko hitzaldian, zehaztu barik dugun hirugarren lagun batek parte hartuko du.

Bestalde, gogoan izan bi mahai inguruak Kulturateko areto nagusian egingo ditugula, 19:00etan hasita, eta irekiak direla herritar guztiendako.

Gogoratu behar dugu mahai inguru horiek iazko ekainean eta oraingo otsailean egin genituen mahai inguruen ondorio direla. Euskararen jatorriaren gaineko hiru teoria landu genituen, eta, herritarren erantzuna ikusita, hitzaldiok antolatzea erabaki genuen.

**Hitzaldietan jorratuko dituzuen hiru esparruetara itzulita, nolakoa da euskararen egoera, egun?**

Egoera deskribatzeko hitz egokia topatzea nahiko zaila da. Euskara elkarteek lan handia egin dugu euskararen erabilera bultzatzeko eta sustatzeko, baina, zoritxarrez, emaitza ez da espero bezain ona izan. Kalean oso gutxi egiten da berba euskaraz, batez ere, gazteen artean. Herri bakoitzaren arabera, alda daiteke egoera, baina, orokorrean, euskararen erabilera eskasa da. Adibidez, Arrasaten, oso gutxi erabiltzen dute euskara gazteek; aldiz, Aretxabaletan, askoz gehiago egiten dute euskaraz. Ibarreko herri guztietan dakigu euskaraz berba egiten, baina espainolera jotzeko ohitura dugu. Era berean, nerabezarora iristean, zuzenean espainolez egiten dugu berba. Gero, adinean aurrera egitean, berriro euskara erabiltzeko joera dugu.

Debagoienetik kanpo ere egoera antzekoa da. Jakina da hiriburuetan askoz gutxiago erabiltzen dela euskara, eta Gipuzkoako bailara batzuetan, gehiago.

Guztiori ikusita, esan daiteke, egindako lanaren ondorioz, egoera zerbait hobetu dela, baina lan handia dugu aurretik.

ELKARTEAK

**"Euskara elkarteek lan handia egin dugu euskara bultzatzeko, baina emaitza ez da espero bezain ona"**

OSPAKIZUNAK

**"Abenduaren 31ra arte, urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi izango ditugu"**

ETORKIZUNA

**"AEDk hasierako helburu berberak lortzeko asmoz egingo du lan aurrerantzean ere"**

**Hitzaldiez gain, AED elkartearen urteurrena ospatzeko beste ekitaldirik antolatuko duzue?**

Abenduaren 31ra arte izango dira urteurreneko ospakizunak, eta hainbat ekitaldi antolatuko ditugu, besteak beste, omenaldia egingo dugu, eta disko bat grabatzeko asmoa ere badugu.

**25. urteurreneko ospakizunez gain, zertan dihardụzue euskara elkartean?**

Kultura teknikariok egunero-ko lanean dihardugu. Dena den, beste hainbat ekintza antolatuko ditugu, besteak beste, maiatzeko zubian Hiru Haundixak egin ditugu, San Juanetan dragoi jana egingo dugu, eta baita bazkideen urteroko bilera. Horiek guztiak urtero antolatzen ditugun ekitaldiak dira.

**Euskal Herrian sortu zen lehen euskara elkartea izan zineten. Nolako etorkizuna ikusten diozue elkarteari?**

Galdera horri erantzuteko pertsona egokiena ez naizela uste dut. Izan ere, AED elkarteko zuzendaritza batzordea gogoeta egiten dabil etorkizunari aurre egiteko.

Dena den, AED elkarteak beti izan dituen helburuak lortzeko egingo du lan: hain zuzen, bazkideak euskararen normalizazioan inplikatzea, euskalduna euskaratik hurbil egotea, euskararen erabilera sustatzea, euskal hiztunei erabilera esparruak sortzea, gizarte eragile guztiei harremanak euskaraz bidera daitezen bermatzea eta euskal kulturaren bultzatzaile izatea.

**Beste euskara elkarte batzuk kinka larrian daude aurrera egiteko. Egoera larria da?**

Nire ustez, aldaketa bat behar dute euskara elkarteek. Sortu zirenetik, gizartea eraldatzen joan da, baina euskara elkarteak ez dira maila berean aldatu. Hortxe egon daiteke aurrera egiteko gakoa.



zabalik

Manu Arregi

# Canali

Ehun urte atzera egingo bagenu, astronomiaren historiaren kapitulu bitxienetariko batekin egingo genuen topo. Urte batzuk aurretik Giovanni Schiaparelli astronomo italiarrak Marte planetako azal osoa zeharkatzen zituzten kanal mordoa ikusten zituela iragarri zuen, *canali*, italiarrez. Percival Lowell estatubatuarrak Marteren behaketari ekin zionean kanalak ikusten eta marrazten hasi zen baita. Baina Schiaparelliren ustez kanalak naturalak baziren, aurten lehenengo mendeurrena betetzen duen idatzi batean, Lowell-ek kanalak artifizialak zirela proposatu zuen. Klima aldaketa zela eta, martzianoek ura poloetatik planeta osora eramaten ari ziren, Lurretik ikusteko moduko kanal sistema konplexu baten bidez.

Zer esanik ez, Lowellen kanalak bere irudimenean besterik ez ziren existitu, baina nire burura etorri ziren Aste Santuan hemengo urtegietako ura askatzen hasi zirenean, Katalunia aldean izugarrizko ur falta zegoenean. Ez da posible soberan dugun ur hori behar duten lekuetara eramatea… kanalen bidez?

> **"Tenperatura igoerak itsasoetako uraren lurruntzea azeleratuko du"**
>
> **"Klima aldaketa gertatu egingo da, petrolio guztia erre arte ez dugulako bakerik izango"**

Klima aldaketaz entzuten dugunean lehortearekin erlazionatzen dugu automatikoki. Baina tenperatura igoerak itsasoetako uraren lurruntzea azeleratuko du, hodei gehiago sortuz eta prezipitazioak ugarituz. Lehortea endemikoa izango da toki batzuetan, hori bai. Lowellen martzianoak bezala kanal erraldoiak eraikiko ditugu geuk ere ura erortzen den lekuetatik behar den lekuetara eramateko?

Ez zait gehiegi interesatzen klima aldatzen hasi den edo ez eztabaidatzen ibiltzea. Berdin da aldaketa hasi den edo ez. Gertatuko den zerbait da, munduko petrolio guztia erre arte ez dugulako bakerik izango. Baina zorionez egunen batean agortu egingo da. Hor dut nik esperantza. Erregai fosilak ordezkatuko dituen energia iturria garbia bada gauzak bere onera bueltatuko dira. Eta Lowellen kanalak ez dira Lurrean beharrezkoak izango.

herritarrak galdezka

## SENDIAN PROGRAMAKO IKASTARO GEHIAGO?

**Mendekotasuna duten nagusiak zaintzen dituztenendako ikastaroak antolatu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horren harira, Aretxabaletako irakurle batek hau galdetu digu: "Badago asmoa ikastaro hori Aretxabaletan emateko? Eta edozeinek parte har dezake?"**

Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak konfirmatu digu Debagoieneko gainerako herrietan badaukatela *Zure nagusiak maite dituzunez, hobeto zaintzen ikasi* delako ikastaroa egiteko asmoa; izan ere, arduradunen esanetan, "Gipuzkoa osora" eraman nahi dute jardunaldi hori. Orain arte, Arrasaten, Bergaran, Oñatin eta, orain, Antzuolan eman da, eta Aretxabaleta eta Eskoriatzaren txanda laster etorriko da, nahiz eta Aldundiak oraindik ez dituen finkatu egun zehatzak.

Bestetik, Elgetan, maiatzaren 26, 27, 28, 29 eta 30ean izango da ikastaro hori. Kultura etxean izango dira eskolak, 15:00etatik 17:00etara, eta izena emateko, Udaleko Gizarte Zerbitzuen arduradunarengana jo behar da. Elgeta ikastaro hori hartzen duen Debagoieneko bosgarren herria izango da, hortaz.

Beste alde batetik, aipatutako sail horrek esan digu "denondako" zabalik daudela ikastarook, hau da, interesa duen edozeinek eman dezake izena; eta ez da derrigorrezkoa ematen den herrikoa izatea eta han erroldatuta egotea.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## BERGARAKO JAIETAN, APARKALEKUEKIN ZER?

**Gaur, egubakoitza, hasiko dira Bergaran Pazko jaiak. Zenbait irakurle guregana zuzendu da, egon daitezkeen zirkulazio aldaketengatik eta, batez ere, aparkalekuengatik arduratuta. Non aparkatu ahal izango den galdetu digute, hain zuzen ere.**

Bergarako Udaltzaingo buruarengana, Alfonso Alonsorengana, jo dugu erantzun bila. Hark esan digu gaur, egubakoitza, hasi eta Pazko jaiak bukatu arte, honako lekuetan aparkatu ahal izango dela: San Martin Agirre ikastetxean, Martinez de Irala kalean eta Ipintza institutuan. Udaltzain buruak gaineratu duenez, "aurreko urteetan ere leku horiek gertatu dira aparkatzeko, eta ez dira bete; hortaz, uste dugu nahikoak izango direla aurten ere". Hiru lekuotatik, Martinez de Irala kalean aparkatzen da gehien, eta beste biak ez dira betetzen.

Gaur arratsaldean, eskola ordutegia bukatzen denean, egongo da aukera dagoeneko ikastetxeetako aparkalekuetan autoa uztako.

marrazkiz

Unai Busturia




blog

# Haurra euskaraz erregistratu nahi dugu, besterik ez (II)

**Gari Berasaluze**
urola-kostakohitza.info/
blogak/kalaportu

Haurra euskaraz erregistratu ahal izateko Hizkuntz Eskubideen Behatokiak zehaztutako jarraibideak segituz, atzo egin genuen dagokion eskaera Getariako Bake Epaitegian (…). Idatziz beste lau eskaera ere egin ditugu atzo eta gaur: Getariako Euskara Teknikariari, Urola Kostako Udal Elkartearen Euskara Zerbitzuari, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak sortu eta "Hizkuntza Eskubideak bermatzeko zerbitzua" omen den Elebide zerbitzuari, eta EAEko herri defendatzailea den Arartekoari.

Azken lau hauei eskaera bera egin diegu: 2005eko ekainaren 22ko 12/2005 Legeak inskripzioak euskaraz egiteko eskubidea aitortu arren, eskubide hori gauzatu eta bermatzeko mekanismorik ez dutenez abian jarri administrazioek, gure hizkuntz eskubideak urratuak izan ez daitezen (…), Getariako Bake Epaitegian idatziz aurkeztu dugun eskaeraren jarraipen zehatza egin dezatela, guk larritzat jotzen dugun eskubide urraketa hau ekiditen lagunduz (…).

Getariako Euskara teknikariak sarrera eman dio eskaerari, eta Azpeitiko Lurralde Epaitegira idatzi bat bidaltzea proposatu du, erregistro liburua lehenbailehen euskaraz bidal dezaten eskatuz.

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

plazara

Berdintasunerako eta Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Euskal Gizonen Eskutitza delakoa sinatu berri dute lehendakariak eta beste hainbat gizonek. Dokumentu horren bidez, nahi duten gizonezkoek aitor dezakete berdintasunarekin konpromisoa hartzen dutela. Izaskun Moiua debagoiendarrak, Emakundeko zuzendariak, ekimen horren gainean idazten du oraingo astean.

Izaskun Moiua *

# Gizonekin batera, berdintasunaren alde

Emakunde eta Eusko Jaurlaritzaren helburua emakume eta gizonen berdintasuna lortzea da. Helburu horrekin egiten dugu lan egunero, eta helburu hori jarraituz aurkeztu genuen pasa den urrian Gizonduz izeneko ekimena. Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legearen eta Berdintasunerako IV. Planaren babesean eta hauetan finkatutako ildo estrategikoei jarraituz jaio da Gizonduz, gizonak sexuen arteko berdintasunaren alde kontzientziatzeko eta beren parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzeko.

Egunero egiten dugu lan emakumeen autonomia pertsonala lortzeko, eta emakumeek gizarteko alor guztietan duten egoera indartu eta hobetzeko. Gizonen inplikazioaren aldeko neurriak guztiz bat datoz helburu honekin. Horregatik jarri dugu martxan Gizonduz ekimena eta horretarako prestatu du Jaurlaritzak aurrekontu berezi bat ekimen honentzako. Argi daukagulako berdintasuna lortu nahi baldin badugu, guztiz beharrezkoa dela gizonen inplikazioa.

Emakumeek urteetan lan gogorra egin dute berdintasunaren alde, eta emakume askoren borroka eta sakrifizioari esker heldu gara gaur gauden lekura. Orain, gizonek bere egin behar dute berdintasunaren erronka, eta ez bakarrik berdintasuna oinarrizko giza eskubidea delako, berdintasunak onurak ekarriko dizkielako beraiei ere. Gizarte justuago batean bizitzea beti delako onuragarri guztiontzat. Azken finean, gure gizarteak, emakumeak baztertzeaz gain, atsekabea eragiten baitie hala emakumeei nola gizonei.




MIKEL ARROIABE

Hori horrela izanik, mende honetako erronka esparru publikoan eta pribatuan eredu sozial berri demokratikoago, justuago eta berdintasunezkoagoa eraikitzea izan beharko litzateke. Horretarako, funtsezkoa da gero eta gizon gehiago prest izatea maskulinotasunaren tradiziozko eredua zalantzan jartzeko, sistema patriarkalaren pribilegioei uko egiteko, gaizki ulertutako maskulinotasunaren zamatik askatzeko eta pertsona askeagoek osatutako gizarte berria lortzeko emakumeekin batera aktiboki lan egiteko. Izan ere, berdintasunak gizonak gizondu egiten dituela uste baitugu, pertsonago bilakatu.

**"Berdintasunaren erronka bere egin behar dute gizonek; giza eskubidea da eta eurei ere on egingo die"**

**"Lehendakariak zenbait gizonekin batera sinatu zuen eskutitz bat, eta 'euskadi.net' helbidean ere sina daiteke"**

Gizonduz ekimenaren barruan hainbat ekintza aurreikusten dira, hauen artean, Berdintasunerako eta Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Euskal Gizonen Eskutitza. Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak gure gizarteko zenbait gizonekin batera sinatu zuen eskutitza Ajuria Enean iragan apirilaren 23an, eta orain berdintasunarekin konpromisoa hartu nahi duten euskal gizon guztiek sinatu dezakete *www.euskadi.net/gizonduz* helbidean.

Eskutitz honetan, gizonek onartzen dute gure gizartean ez dagoela berdintasunik emakumeen eta gizonen artean, ez harremanetan eta ez botere-banaketan, eta femeninoa maskulinoaren menpe jartzen dela, eta ondorioz, gizonek hainbat pribilegio dituztela. Gizonok konpromisoa erakusten dute diskriminazio sexistaren aurkako borrokan, zenbait portaeraren aldaketan, pertsonen zaintza baloratzeko orduan, ezarketarik gabeko sexualitate baten alde, bizitza afektibo eta emozionalaren garapenaren alde eta arazoak konpontzeko indarkeria erabiltzearen aurka.

Konpromisoa hartzea gizarte berri bat eraikitzeko lehen pausoa dela uste dugu. Gure herriko gizonak horretarako prest daudela ikusi nahi dugu. Euren ekarpenik gabe ezinezkoa baita berdintasunean oinarritutako gizartea eraikitzea.

*Emakundeko (Emakumearen Euskal Erakundeko) zuzendaria.

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Jaunartze ospakizunak gustuko dituzu?

| | |
|---|---|
| BAI | %16,7 |
| EZ | %83,3 |

**> OPARIAK JASOTZEARREN**
Dirua gastatzeko modu ezegoki bat dela iruditzen zait. Umeek opariak jasotzearren egin behar den "paripe" guzti hori gehiegizkoa iruditzen zait, baina beno, gertatzen diren gauzak dira.
**Iñaki Garcia**

**> OSPAKIZUN DESBERDINA**
Oñatin, jaunartzea egingo duen taldetxo batek merienda eta jolasak egingo ditu meza ostean, eta horrela ospatuko dute.
**Ines**

**> ELIZAK, ZERESANA**
Eliza Katolikoak berak ipini beharko luke muga, izan ere, pobretasuna ez du ba agintzen? Eta orain, krisian, are gehiago.
**Ester**

**> DENOK EGITEN DUGU**
Denok esaten dugu gastu larregikoa dela, baina gero denok nahi dugu gure semealabak ondo jantzita joatea, sekulako bazkaria ordaintzen dugu…
**Edorta**

**DATORREN ASTEKOA: Jatekoak lasai eta seguru erosten dituzu?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

Urola Kostako Udal Elkartearen Euskara Zerbitzuaren arduradunak, berriz, proposamena areago zehaztu du: (…) idatzi bat prestatuko dute, herri bakoitzeko alkateak (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako alkateek) bere herriko bake epaitegiari bidal diezaion. Idatzian euskarazko erregistro liburuak jartzeko eskaera formala egingo diete alkateek dagokien herrietako bake epaitegiei (…).

Hizkuntz eskubideak bermatzeko Elebide zerbitzuaren eta herri defendatzailea den Arartekoaren erantzunik ez oraingoz.

## Emakumearen bigarren aukera

**'Amatiño'**
eibar.org/blogak/amatino

Nere belaunaldiko senar-emazteen artean, ostera, elkarren arteko bizitza epe bitan ari da banatzen. Batetik, gizona erretiratu artekoa eta, bestetik, jubilatu ondokoa. Lehen fasean etxeko jaun, kalezale, lagunzulo eta seme-alaben kontuetan arduragabeko demasa izandako senarra; bigarren fasean, berriz, zeharo gizajotuta agertzen zaigu, aje guztiek jota, osasunez urri eta bizipozez buru makur (…) .

Emaztea, berriz (…), oraindik ere gazte, buru argi eta larrosaren pare, etxeko pasilloan zehar senarrarekin topo egiten duen bakoitzean seguru pentsatzen duela: Zer egin behar ete jonat nik txorimalo honekin hurrengo hogei urtean!

Bigarren txandaren aukera da, errebantxaren kanpaihotsa. Emakumea soka-saltoan jarraitzeko gertu, kapitan pilotu, eta senarra medikuak galarazitako ezgauzatxoen amets, kantoiko eskale.

koplak

Eñaut Uriarte

## Mendekoste goxuak

Ehun urte pastel ederrak eitten
zelako mende goxua!
Raizabalen mendeurrena da eta
nere zorion osua.

Nahiz jente asko ez dan ohartu
detailiaz beharbada
ointxe laugarren belaunaldixa
dabil hor lanian ara.

Joxemi, Andoni anaiak egun
pastelak egiten ongi
ziur pasauko ziela bertan
kontatzeko hainbat istori.

Bitorianatxo badatorrela
badagola ailegatzen
ea beinguan jeitxi bai baina
ez den berriro igotzen.

Ostiralian afaixa eta
izaten da juerga franko,
aurten *Txapi* ez dago gurekin,
ez da berdina izango.

Ze eguraldi ein bihar daben
ez da sekula jakiten,
ea aurten be portatzen jakun
eta ona daben egiten.

# Faxistei alfonbra gorririk ez!

**Zuhaitz Errasti Goiti**
Moulins Yzeure espetxea

*ETA no* dioen plastiko zatia udaletxeko balkoian jartzeko erabakia hartu berri dute Aretxabaletako udalbatza antidemokratikoa osatzeko erabakia hartu zuten txotxongiloek.

Eta erabaki hau hartzeko izan duten diskrezioa ikusirik, ezin ahaztu neofaxista espainiarrak oldarturiko estatu terrorismoaren ikur nagusia dela udaletxeko balkoian iltzatu nahi duten plastiko zatia. Plastiko zati honen atzean ikusi dugu gure herriaren aurkako guda kriminala diseinatu eta praktikara eramateko agindua eman duen makina bat borrero.

Nola ulertu, beraz, Aretxabaleta bezalako herri abertzale batean, faxisten leloa udalbatzaren aldarrikapen bilakatzea? Aretxabaletako udalbatza antidemokratikoa osatzeko erabakia hartu zutenek alfonbra gorria jarri diete faxistei. Zergatik eta udaletxearen praktika antidemokratikoa zuritzeko!

Mapa politikoan hain barneratua dagoen manipulazioaren politika erabiltzea erabaki duzue, guda politiko armatuaren erantzukizun osoa ETAren bizkar gainean jartzeko intentzioz. Horrela, udalean ematen diren eskubide urraketak justifikatzea bilatzen duzuelarik. Baina, faxistei dedikazio sumisoaz ezarritako alfonbra gorri honek ez ditu udaletxeko bulegoetan adosten diren injustiziak estaltzen. Eta ezkutatzeko intentzio asko daukazuela nabari den arren, Aretxabaletako udalean herritar gehiengoaren eskubideak urratuak jarraitzen dute eta zuei dagokizue arazo larri honi irtenbide duin eta demokratiko bat ematea. Noraino iritsi nahi duzue udaletxeko egoera antidemokratikoa justifikatzeko intentzioarekin?

Aretxabaletarrok, udalbatza demokratikoa behar eta merezi dugu. Euskal Herriak marko demokratikoa behar eta merezi duen bezalaxe. Non, estatuaren injerentziarik gabe, herritar guztiok errespetatua izango zaigun hitza eta erabakia izango dugun.

Momentuz nahiago duzue injustizia kudeatzen jarraitzea, horrek faxisten aginduetara egotea behartzen bazaituzte ere, eskubide urraketa guztiei irtenbidea ematen saiatzea baino.

Nire babes eta bultzada tinkoenak ezaren gudaz baietza sortzen diharduen herritar guztiei. Lortuko dugu!

# Beste behin ere: aurrera bolie!

**Joxe Etxeberria** (Aralarreko zinegotzia Arrasateko Udalean) > Arrasate

Gure eskumen eta eskubideen jardunean Arrasateko Udalkideok erabakitakoak ez du baliorik: Garzon jaunak dixit. Duintasunik ez dugunoi, berak jarri digu agindua, eta bortizki bete: Ino Galparsorok ez du Arrasateko alkatea izaten jarraituko, eta horretarako dakien bide bakarra, indarra=kartzela, ireki du, beste behin ere.

Ez diezagutela esan Zuzenbide Estatuak funtzionatzen duelako denik; ez diezagutela sinestarazi zinegotzien gehiengoaren erabakia eta kartzelaratze honen artean ez dagoela loturarik; ez diezagutela esan PSOEren jarrerak (eta agindua) ez duela eragin (agindu) zuzenik izan erabaki honetan. Eta halakorik esateko narru sendoa badute, benetako demokrazia baten funtzionatzea ez dela, esaten jarraituko dugu, entzungor egingo dutela jakinda ere.

Duela urte asko Arrasatera etorri nintzenean, hemengo nire familiari gauzak okertzen zirenean entzuten nien moduan, *aurrera bolie* esan behar, modu bateko eta besteko indarkerien aurrean.

# Bide agortuak

**Juan Ramon Garai**
(Arrasateko Zutik-eko militantea)
Arrasate

Batek daki, zentsura mozioaren bigarren porrotaren ostean, atzoko halako proposamena zen, hirugarren porrota etorriko ote den. Edozer gauza gerta liteke, ekimena geratzen bada alderdietako exekutibetan. Garbi geratu da exekutiba horiek porrot egin dutela, eta berriro egingo dute; izan ere, ez dira gai Arrasaten alderdietako militanteen iritzia entzuteko, militanteok baitakite inork baino hobeto zer pentsatzen duen Arrasateko herriak.

Martxoaren 7 hartatik, ETAk urrats kualitatibo bat eman zuenean Partiduen bere Legearen inguruan, eta Isaias hiltzea, gure herriko bizilaguna, ezberdin pentsatzen zuelako: inork ez du ulertu hilketa hori, eta inor ez dago ados hilketa horrekin. Arrasaten bizi izan ditugun 49 egunek balantze asko eta ugari egiteko ematen dute eta talde bakoitzak bere aldetik egin beharko ditu eta, zergatik ez, batera ere bai.

Zurrunbilo mediatikoaren erdigunea izan da Arrasate. Prentsa, hedabideak, alderdietako exekutibak, kanporatu egingo zaituztelako mehatxuak, koldarra zarela esaten dizutenak, haien pentsaera politikoak esaten diena ez eta beste pentsamendu bat duzulako... Eta ukatu egiten dizute horixe bera, geure pentsamendu politikoak, horiexek bultzatzen gaituzte-eta horrela jokatzera.

Horrela jokatu duten pertsona horiek guztiek arazo bat daukate, eta arazo hori da, gure planteamenduak entzun badituzte ere, ez dituztela aditu nahi izan, "estatu arrazoiak" omen daude, esango digute egunen batean zertan diren horiek, oinarriko militanteen ideien gainetik egongo dira.

Udalbatzarrean aurkeztu zituzten bost mozioetatik bat bera ere ez zuten onartu eta horrek erakusten du, lehenengo, zein urrun gauden batzuk eta besteak. Urrutik gaude, oso urrutik, eta hori da txarrena aurrera egiteko, gauden zulotik irteteko, eta arrazoi ezaren egoera horretara eraman gaituzte Estatuak eta ETAk.

Bide horiek agortuta daude, ez dute irtenbiderik. Horregatik, hain zuzen ere, pauso batzuk eman ditugu Arrasaten, beste bide baten bila, hirugarren bide bat, bide ezberdina. Arrasateko Aralar, EA eta Ezker Batua Berdeak-Zutik-eko oinarriko militantziak hasi gara bide berri horretan oinez, nahiz eta gure buruzagiak kontra izan eta beste alderdi batzuk batzea lortu ez dugun arren, ez da izango saiatu ez garelako. Beste alderdi horietan exekutiben iritziak onartu dituzte, nahiz eta haien jarrera pertsonala beste bat izan, beste bide batzuetatik jotzearen aldekoak baitira, baina ez dute bat egin bide berri honekin.

Lau alderdi horiek Udalean ordezkaritza duten bost pertsona horiek argi utzi izana haien botoarekin zentsura mozioak ez duela irtenbiderik Arrasaten pausu garrantzitsua da, horixe baita hasi dugun hirugarren bide horrek eskatzen digun lehen baldintza; ez da ateak ixteko unea, zabaltzeko unea baizik, elkarri entzutekoa, elkar ulertzekoa eta inora ez garamatzan eta Euskal Herriko pertsonok merezi dugun dinamika bati irteera bat bilatzeko unea.

ETAren azken komunikatuaren ostean, beste izugarrikeria baten zalantza eta aukera hor daude bizirik, eta horren aurrean, beste aldeak ere (orain ari naiz EAE-ANVri buruz) inplikatu beharra dauka jende aurrean, Arrasaten oraingo honetan egin dutena baino haratago, kontrako norabidean doazen ekintzak albora uzteko. Besteei ere eskatzen diegu adorea, estrategia orokorretatik aldendu daitezen eta pausuak eman ditzaten, herri edo gertakari bakoitzean gertatzen denaren arabera.

# Haurren benetako beharrak

**Xabier Sarasua**
(Irakaslea eta Izargi hezkuntza elkarteko kidea)
Aretxabaleta

Gizon-emakumeek beti eman izan diote garrantzi handia, historian zehar, seme-alaben heziketari, eta pentsaera, jakinduria eta gizartearen ezaugarri eta beharrak aldatu ahala, aldatuz joan dira hezkuntzaren helburuak eta hezteko modua. Azken urteotan, ziztu bizian ari da aldatzen gizartea, eta horrekin batera, hezkuntza-komunitate osoa ere etengabeko aldaketa-prozesuan murgilduta dago.

Esan genezake inoiz ez dela egon hezkuntzaren inguruan, hainbeste profesional, hainbeste jakintza espezializatu, hainbeste erreforma, hainbeste testuliburu, hainbeste ikastaro… Eta, hala ere, gure haur eta gaztetxoen heziketa inoiz baino zailagoa dela iruditzen zaigu, eta asetzen ez gaituzten emaitzak ikusten ditugu, sarritan: eskola porrota, haurren estresa, jarrera desegokiak, motibazio eta ilusio falta, sormen eta ekimen eskasia eta abar.

Gizarteari egotzi diezaiokegu errua, edo gurasoei, edo irakasleei, edo erakunde publikoei, edo baldintza berriei aurre egiteko baliabide eskasiari edo… Egia da, baldintza eta zirkunstantzia guztiak hor daude. Baina beti egon dira eta beti egongo dira; desberdinak beti.

Lehen baino askoz gehiago ikasten dutela ere arrazoitu dezakegu; orain hiru hizkuntza ikasten dituztela, informatika eta teknologia berriak, kontzeptuak ez ezik, prozedurak eta jarrerak ere lantzen dituztela, egiten den guztia ebaluatzen dela, ikastetxeek kalitatezko zigiluak lortzen dituztela…

Baina niri iruditzen zait gaur egungo gaztetxoak ez daudela, oro har, bizitzan arrakasta izateko prestatuagoak duela hainbat urtekoak baino; ez dugula horretan asko aurreratu. Eta horrek izan behar du, nire ustez, hezkuntzaren helburu nagusia, gainerako helburu guztiak biltzen dituena.

Zer da, ordea, arrakasta izatea bizitzan? Hamaika erantzun egon daitezke. Nik zoriontsu izatea dela esango nuke. Eta noiz esan genezake gaztetxo batek zoriontsu izateko gaitasunak (konpetentziak esan behar omen da orain) garatu edo eskuratu dituela? Hemen ere, zenbat buru hainbat aburu. Baina oinarrizkotzat jotzen ditut jarrera eta gaitasun hauek behintzat: norberaren burua baloratzea eta maitatzea; bizitzako zirkunstantziei beldurrik gabe, askatasunez eta konfiantzaz aurre egiteko gaitasuna; eguneroko bizitzaren aurrean gaur egungoa hobetzeko gogoa, sormena eta ekimena izatea; munduko gauzen, gizakiaren eta norberaren ikuspegi estetiko eta artistikoa izatea; besteekin komunikatzeko eta lankidetzan jarduteko gaitasuna eta zaletasuna… Gaitasun potentzial horietarako bultzada bere baitan du haurrak, nire ustez, eta beraz, hezkuntzaren zeregina adin bakoitzean eta haur bakoitzak behar duen eran ernamuin horiek garatzeko baldintza egokiak eskaintzen saiatzea da.

Inpresioa daukat gure eskoletako jardun pedagogikoa eta guraso garen aldetik semealabekin dugun harremana urrun samar geratzen ote zaigun, sarritan, oinarrizko helburu horietatik.

Horregatik, oso pozgarria da niretzat, bilaketa horretan argiizpi batzuk eman ditzaketen esperientziak ezagutzeko aukera izatea. Waldorf Pedagogia da esperientzia pedagogiko pozgarri horietako bat, Mundu osoko 90 herrialde baino gehiagotan zabalduta dagoena, eta duela 80 urte baino gehiago daramatza.

Tokian tokiko ezaugarriak garatuz, kontuan hartzeko moduko emaitzak lortzen dituzte pedagogia mota horretan oinarritutako eskolek, UNESCOk berak aitortzen duenez, ez akademikoak soilik, baita bizitzarako arrakastarekin lotutakoak ere.

# Eskerrik asko

**Nerea Altzelai**
Bergara

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiet apirilaren 26an Agorrosinen gure aita Andres Altzelairi eta beste batzuei omenaldia eskaini zieten guztiei. Bereziki, Bergara Kirol Elkarteari, bertako presidente eta zuzendaritzako kide, jokalari zein entrenatzaileei; agintariei, bertaratutako guztiei…, eskerrik asko egindako adierazpenengatik…

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**

Zure eta zure inguruko kontuak direnean,
**OnLine Posta erabiltzea duzu berezkoena.**

**kutxa**n garapen iraunkorraren aldeko apustua egin dugu, paper kontsumoa nabarmen murriztuz.

Zuk ere zeure ekarpena egin dezakezu, **kutxanet-eko zure "postontzi elektronikoan"** jasoz orain betiko postontzian jasotzen dituzun laburpen eta frogagiri guztiak… eta zuretzako abantaila ugariz gainera.

**Bizkortasuna:** Berehalako jakinarazpena.
**Arintasuna:** bi urtean jasotako guztia, bertan, ongi antolatuta eta zure eskura.
**Argitasuna:** **Beharrezko informazio guztia** daukate ordainagiriek, agindu-emailea, azalpena, erreferentzia…, eta behar dituzunean inprima ditzakezu.
**Segurtasuna:** Erabateko konfidentzialtasuna.
**Erosotasuna:** **Kutxanet**-etik bertatik egin dezakezu alta, eta betiko sistemara itzuli nahi baduzu, ezin errazago eta berehala egin ahal izango duzu halaber.



**Konekta zaitez etorkizunarekin modurik erosoenean.**
**Online Posta-Zerbitzuan** alta ematen duzunean, 4 USB ataka integratu dituen sagu-azpiko praktiko bat hartuko duzu opari.



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa


ALMACENES ARRASATE
FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.
BERMEA 2 URTE
ICF 511 ( 89x156x66 ) cm 425 € 70.975 pta
ICF 411 ( 89x134x66 ) cm 350 € 58.450 pta
ICF 331 ( 89x112x66 ) cm 310 € 51.770 pta
ICF 271 ( 89x91x66 ) cm 285 € 47.595 pta
185 X 60 X 60 mm
A Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA 6FAC-495
430 € 71.810 pta
aspes
1200 b/min
8 kgr.
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-2812
485 € 80.995 pta
FAGOR
1000 b/min
6kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA L-1026
340 € 56.780 pta
edesa
1.000 b/min
5 kgr.
A Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA LA-110
305 € 50.935 pta
aspes
pirolisis labea HP-7660 X
3 fokoko indukzioa I-300 S
lehen: 1.549 €
Orain 1.090 €
eta gainera ontziteria hau opari
berria
LABEA BITROZERAMIKA STA 1410 X
LABEA eta BITROZERAMIKA INSTALATUTA
360 € 60.120 pta
aspes
TELEBISTA PHILIPS
LTD (TDT) INTEGRATUA
LCD 32" PFL5522D
625 € 104.375 pta
LCD 42" PFL5522D
1.075 € 175.350 pta.
INDUKZIOA AI 1300 R/X
Couth 3 fokorekin
435 € 72.645 pta
aspes
Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.
A+ 70%
A 45%
B 25%
Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.
Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK


MONDRAGON LINGUAk ingelesezko
"Speaking spanglish"
antzerti-obra ikusteko gonbit egiten die bezorei.
Umorezko komedia da, eta oso dibertigarria.
Animatu eta zatoz ikustera!
maiatzak 15 ostirala 19:00
Arrasate
MONDRAGON LINGUA gure zentruan.
Araba etorbidea, 4
murgilketa
inmersión · immersion
english
MONDRAGON LINGUA
vas a aprender · ikasiko duzu · you'll learn
palabrahitzaword

# Herriak

**Arrasate** > 18-23 **Bergara** > 24-29 **Aretxabaleta** > 31-32 **Oñati** > 33
**Eskoriatza** > 34-35 **Antzuola** > 36 **Aramaio** > 37 **Elgeta** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39




**> ARETXABALETA**
Euskararen Astearen barruan hainbat ekitaldi antolatu dituzte **> 31**



**> OÑATI**
Kurtiderixako etxeen izenemate epea astelehenean zabalduko dute **> 33**



**> ESKORIATZA**
San Pedroetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa **> 35**



**> LEINTZ GATZAGA**
Arlabango Ama Birjinak 50 urte beteko ditu urrian **> 39**

**BERGARA** > EKONOMATUAK

# Ekonomatuak, lantegiek euren langileen zerbitzura jarritako dendak

**BERGARA**
Ibarrean ekonomatu bakarra geratzen da, Bergarakoa

**ZERBITZUA**
Beraien eginbeharra lantegi horretan dihardutenei zerbitzua eskaintzea da

**GARAI ALDAKETAK**
Garaiak aldatu diren arren, mesedegarri dira langileendako



**EKONOMATUA** Bergarakoa da Debagoienean gelditzen den bakarra. Bertan, jakiak ez ezik, arropa ere saltzen dute. J.Z.

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Debagoienean, hiru herritan egon da ekonomatua: Oñati eta Arrasaten dagoeneko itxita daude, Bergarakoa da zabalik dagoen bakarra. 1916an Arrasaten –Union Cerrajera de Mondragon– eta urtebete geroago, 1917an, Bergaran, oraingo Arcelor Mittal enpresak –*zerrajera* izenez ezagunagoa– Cooperativa de Consumo delakoa sortu zituzten. Lokal hauek eta bertako administratzaileak zerrajerak ordaintzen zituen. Kooperatibako langileek, enplegatuek eta enpresako ordezkari batek osatutako batzordeak zuzentzen zuen erakunde hori, eta hasierako kapitala biltzeko, afiliatu bakoitzak 100 pezetako akzioak erosi zituen– egunean lau pezeta inguru irabazten ziren orduan.

*Cooperativa* oso mesedegarria zitzaien, bai langileei, produktuak kostuko prezioan erosten zituztelako, eta baita ere nagusiei, modu horretan, langileen soldatak igo beharrik ez zutelako. Kooperatiba horien gainbeherarekin – 1943an itxi zituzten–, 1940an, Arrasaten eta Bergaran Enpresako Ekonomatoak sortu zituzten. Bertan, oinarri-oinarrizko produktuak kostuko prezioan erosten zituzten: garbantzuak, babarrunak, dilistak, arroza, olioa, patatak eta okela, batez ere. Bertako langileen soldata, lokala eta argi indarra enpresak ordaintzen zuen.

#### KOKALEKU EZBERDINAK

Bergarako ekonomatuak hainbat kokaleku eduki zituen. Arantxa Goikoetxea bergararrak bertan egin zuen lan 30 urte inguru, eta duela 16 urte jubilatu zen. Berak ederki ezagutu zituen Bergarako ekonomatuaren gorabehera eta kokaleku ezberdinak: "Hasiera batean, Labegaraieta auzoko San Jose eliza ostean zabaldu zuten ekonomatua. Bertan, oinarrizko produktuak saltzen zituzten; arrandegia eta harategia ere bazeuden; hauek biak gaur egun Agirrebeña taberna ondoko eraikinean zeuden kokatuta, eta urte batzuk igaro ondoren, lekuz aldatu zuten, Labegaraieta auzoan Zerrajerarenak diren lokal batera, hain zuzen ere. Bertan dena jarri zuten: harategia, arrandegia, oinarrizko produktuak, oihalak eta barruko arropak". Bergarako jende askok egiten zuen lan lantegian, bai auzoetakoak eta baita herri-gunean bizi zirenak. Horrela, azken hauentzat, Bidekurutzeta kalean, gaur egun Ziripot taberna eta Egizabal oinetako denda dagoen tokian, sukurtsal bat ipini zuten Zerrajeran lan egin baina herrigunean bizi zirenek ere ekonomatuak eskaintzen zituen aukerak aprobetxa zitzaten. Urte batzuk geroago, baina, kalekoa kendu egin zuten, eta Labegarietan zegoena gelditu zen bakarrik, eta gaur egun, hor dirau.

#### GARAIAK ALDATU EGIN DIRA

Gauzak erosteko modua ere bereezia zen: "Hasierako urteetan, behar zuen guztiaren zerrenda egiten zuen norberak. Ekonomatuko langileek zerrendako produktu guztiak hartzen zituen, eta erosleak zuzenean ordaintzera joan besterik ez zeukan", adierazi digu Goikoetxeak. Gaur egun, Plazentziako ama-alaba batzuek daramate ekonomatuaren ardura duela bi urtetatik. "Ekonomatuak abantaila handiak ematen zizkigun arren, merkataritzaguneak sortzen hasi ziren. Ondorioz, ekonomatuaren bizitza itzaltzen joan zen, baina eskaintzen duen zerbitzua baliagarria da inguruan bizi diren langileentzat", Goikoetxearen ustez.

ARRASATE ETA OÑATIKO EKONOMATUAK

### Arrasatekoa itxi egin zuten eta Oñatikoa, berriz, uholde batek txikitu zuen

Arrasaten eta Oñatin ere egon ziren ekonomatuak, baina, Bergarakoa ez bezala, itxi egin zituzten. Arrasatekoa, Enpresako Ekonomatua, 1940an zabaldu zuten. San Juanetan eta Gabonetan errazionamendua doanik ematen zen. Arrasateko ekonomatua, hasieran, Erdiko kalean zegoen; 1950tik aurrera, berriz, Grupo San Juanera ekarri zuten; Biteri kalera, janaria; eta arropak eta bestelakoak, Garibai kalera. Arrasatekoa 1990eko urtarrilaren 1ean itxi zuten, sail hori -ekonomataurena- saldu egin zutelako. Oñatikoa, berriz, Arantzazuko Ama kalean zegoen; 1960an zabaldu zuen Hijos de Juan de Garay SA enpresak, eta 1992ko ekainaren 23an izandako uholdeek egindako txikizioen ondoren, betirako itxi zuten.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 10 | Azkoaga | Iturriotz, 7 | 943 79 79 99 |
| Domeka, 11 | Azkoaga | Iturriotz, 7 | 943 79 79 99 |
| Astelehena, 12 | Fdz. Corcuera | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| Martitzena, 13 | Irizar | Ergin, 11 | 943 79 12 39 |
| Eguaztena, 14 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Eguena, 15 | Español | Araba, 14 | 943 79 18 65 |
| Egubakoitza, 16 | Ruiz | Nafarroa, 1 | 943 79 14 09 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 10 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Domeka, 11 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Astelehena, 12 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Martitzena, 13 | Urrutikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Eguaztena, 14 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Eguena, 15 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Egubakoitza, 16 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 10 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Domeka, 11 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Astelehena, 12 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 13 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Eguaztena, 14 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Eguena, 15 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Egubakoitza, 16 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 10 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 11 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 12 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 13 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 14 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 15 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 16 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |

| Gasteiz | Aramaio | Arrasate |
|---|---|---|
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 10**

Zerua estalita egongo da eta euri ugaria egingo du; prezipitazio handiak izateaz gain, iraunkorrak izan daitezke. Iparraldeko haizeak giro freskoa eragingo du.



**Domeka, 11**

Haizeak ipar-ekialdeko ukitu nabarmena hartuko du, eta jaso egingo du; eguzkia tarteka agertuko da. Datorren astea ere horrela hasiko da.

### EUSKAL HERRIAN

Aste bukaera euri jasa indartsuekin hasiko dugu. Zapatua oso desatsegina izango da, euri eta haize finarekin. Domekan, berriz, hobetze aldera egingo du, eta haizeak norabidez aldatuko du, ipar-ekialdetik joaz. Pixkana-pixkana, ostarteak zabalduko dira.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Egubakoitza, 2 — **4 ºC**

**MAXIMOA** Zapatua, 3 — **31 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **8,8 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 30** | 16 ºC | 5 ºC | 4,7 l/m² |
| **Eguena, 1** | 20 ºC | 6 ºC | - l/m² |
| **Egubakoitza, 2** | 27 ºC | 4 ºC | - l/m² |
| **Zapatua, 3** | 31 ºC | 8 ºC | - l/m² |
| **Domeka, 4** | 22 ºC | 10 ºC | 4,1 l/m² |
| **Astelehena, 5** | 24 ºC | 14 ºC | - l/m² |
| **Martitzena, 6** | 24 ºC | 8 ºC | - l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA MAIATZEAN



| Ilbete | Ilbehera | Ilberri | Ilgora |
|---|---|---|---|
| **5** | **12** | **20** | **28** |

## oharrak eta deialdiak

DEBAGOIENA
**> Sahararrendako udalekuei laguntzeko**
Nubi eta Iesbaa taldeek 12 ume sahararrendako udalekua antolatzen dihardute, eta dirulaguntza beharrean daude. Ekarpenak egiteko, hiru kontu zabaldu dituzte: Euskadiko Kutxan, 3035 002 16 0020047050; Caixan, 2100 6838 48 0200002671; eta Kutxan, 2101 0055 67 0126379429. Argibideak: *sahara_arrasate@hotmail.com* edo *iesbaa_aretxabaleta@hotmail.com*.

BERGARA
**> Ume sahararrak hartzeko eskaerak**
Bubisher elkarteak martxan jarri du uztailean eta abuztuan Saharako umeak ekartzeko kanpaina. Horiek hartzeko gertu dauden familiek honako zenbakietara dei dezakete: 670 41 76 07 edo 617 26 04 11.

OÑATI
**> Ikastaroak eta hitzaldiak Elkar Hezin**
Honako ekintzak antolatu ditu Elkar Hezik datozen egunotarako: *Gatazkaren lantze etikoa* delako ikastaroa, Baketik fundazioak emanda, bihar, zapatua, eta hilaren 24an, 09:30-11:30, herritar guztiondako; bestetik, *Erabakiak hartzen hezten* delako hausnargunea hilaren 14an, eguaztena, Bigarren Hezkuntzako SIEP taldeko kideendako.

ARRASATE
**> Zahar Berriren ibilaldia Santa Barbaran**
Zahar Berri egitasmoak Santa Barbaran ibilaldi gidatua antolatu du eguenerako, hilak 15, 10:00etan eta 18:00etan. Parte hartu gura duenak Zarugalde kalean dauden zabuetan agertu besterik ez dauka.

ARRASATE
**> Emakumeondako historia tailerra**
*Emakumeon memoria berreskuratzen* delako historia tailerra antolatu du Emakume Txokoak maiatzaren 23 eta 24rako, eta izena emateko aukera dago eguenera bitartean. Argibideak, 943 79 41 39 telefonoan.

BERGARA
**> Mendi irteera antolatu du Zahar Berrik**
Elosu-Irukurutzeta-Elosu mendi irteera antolatu du Zahar Berrik hilaren 17rako, domeka. Argibideak eta izenematea, Jardun elkartean.

ESKORIATZA
**> Elikaduraren gaineko berbaldia, eguenean**
*Zer esan nahi dugu elikadura natural eta energetikoaz hitz egiten dugunean?* delako hitzaldia egingo du Jesus Romerok eguenean, hilak 15, kultura etxean, 18:00etan. Bukatzeko, pintxo eta kanape-dastatzea izango dute entzuleek.

ESKORIATZA
**> Umeen danborradarako izena emateko**
Jaietako umeen danborradan parte hartu gura duten 4 urte edo gorako umeek izenemate orria betetzeko eta entregatzeko aukera dute gaur, egubakoitza, kultura etxean edo Luis Ezeiza eta Jose Arana ikastetxeetan; gaur bukatzen da epea. Zozketa maiatzaren 21ean egingo dute.

ESKORIATZA
**> Bruesa Gipuzkoa Basket-eko entrenatzaile Pablo Lasok hitzaldia egingo du astelehenean**
Pablo Lasok, Bruesa Gipuzkoa Basket taldeko entrenatzaileak eta saskibaloi jokalari ohiak, eliteko kirolean denboraldia zelan planifikatzen den azalduko du berbaldi baten, astelehenean, kultura etxean, 20:00etan, Eskoriatzako Udalak eta Eskoriatza Kirol Elkarteak antolatuta.

**943 25 05 05**
**goienkaria@goiena.com**

BERGARA
**> Herriko taldeekin CDa egin nahi dute**
Txapa Irratiak dei egiten die herriko talde eta bakarlari guztiei CD baten parte har dezaten. Horretarako, kontzertuak egin nahi dituzte uztailaren 4an eta 5ean. Interesa dutenekin batzarra egingo dute maiatzaren 17an, gaztetxean, 19:00etan.

OÑATI
**> Bidegorriaren aldeko bizikleta martxa**
Txirrinka taldeak datorren egubakoitzean, maiatzak 16, egingo du hileko ibilaldia bidegorri sarea eskatzeko. Oñatiko plazatik abiatuko dira 18:30ean, eta leku berean bukatuko da martxa.

ARRASATE
**> Euskara gizarte mugimenduetan, berbagai**
AEDk antolatutako hitzaldi sortako bigarren saioa izango dute eguaztenean, hilak 14: euskara gizarte mugimenduetan izango da gaia. Gaztetxean izango da, 19:00etan.

DONOSTIA
**> Software librearen gaineko ikastaroa**
*On-line* ikastaroa antolatu du Eusko Ikaskuntzaren Asmoz fundazioak, software librearen gainekoak ikasteko. Ikastaroa urriren 18an hasiko da. Izenematea eta argibide gehiago dituzue *linux.asmoz.org*. webgunean.

kale inkesta

# Azkoagain futbol zelaia berritu egingo dute; zer deritzozu?



**Amaia Rekarte**
Langilea
Oñati

Berritzeko beharra ikusten bada, ondo dago, onuragarria izango da. Orain arteko belar naturala baino, belar artifiziala ipintzea egokiagoa ikusten dut nik. Txukunago gelditub da.



**Arantza Arrue**
Langilea
Oñati

Orain ez dakit nola dagoen Azkoagaingo zelaia. Gaztetan joaten nintzen. Hala eta guztiz ere, uste dut beharra badagoela. Oñatin, gainera, futbola asko gustatzen zaio jendeari.



**Rafa Ugarte**
Langilea
Oñati

Aspaldikoa da zelaia berritzearen proiektua. Ondo ikusten dut belar artifiziala ipintzea, oraingo zelaia zaharra da-eta. Onuragarria izango da herrian dauden talde guztiendako.



**Aurora Cano**
Langilea
Oñati

Hoberako den guztia oso ondo ikusten dut. Instalazio gehiago egon beharko lirateke, gutxi daude-eta, eta herri honetan kirol asko egiten dute. Oraingo instalazioak txiki gelditzen dira.



**Tiago Gonçalves**
Ikaslea
Oñati

Futbola ez zait askorik gustatzen, eta, beraz, ez dut berritze lanon gorabeheren berri; badakit lanak egiten hasiko direla, eta uste dut onuragarria izango dela, batez ere beteranoen txapelketarako.

txistuak



GOIENKARIA

## Ubera auzoko jesarlekuak, apurtuta

Aste honetan, Bergarako Ubera auzoan bizi den herritar batek bidali digu kexa. Auzoan bi jesarleku bakarrik daudela salatu du; gainera, dauden biak apurtuta daude, eta auzoan bizi direnak kalera irteten direnean ez dute non jesarri. Horregatik, dagokionari eserleku berriak ipin ditzala eskatzen dio.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

# 390

Aurten, lau eguneko zubia izan dugu eta, hori aprobetxatuz, 390 bisitari egon dira Oñatin. Horietatik, 289 pertsonak hartu zuten parte bisita gidatuetan. Jatorriaren araberako datuak: Arabatik 7, Gipuzkoatik 13 eta Bizkaitik 39. Espainiatik, berriz, 305 turista etorri dira.

usteak uste

Irati Agirreazaldegi

## Pazkoetan, neurrian ibili jaietan

Asteak balira jai, gazte alperrak hori nahi… eta alperra ez denak ere bai. Festa usaina gertuan sumatuta nor ez da ipintzen pozik eta alai?

Auzoetan hasi da makina bat festa, eta Bergarako Pazkoek osatzen dute erreska. Jai egiteko inolako aitzakiarik ezta, eta aste bukaera honetan herriko bazter guztiak jendez gainezka.

Aurreratu egin da egutegian Bitorianatxo; aurten agian lartxo. Baina gure artean izango da gaur udaletxetik behera jaitsita zortziak pasatxo.

Festarako aitzakia merke, eta ez naiz ni orain hasiko formalidade eske. Bakoitza bere neurrian, egunek eskatzen duten moduan, jai giroan ibili zaitezte.

*Astindu gerrixa, astindu herrixa* txosnetakoek aurtengo jaietarako aukeratu duten leloa. Astindu bai, baina inori galarazi barik loa. Koadrilako blusa edo kamiseta soinean jantzi eta ahal den guztia astindu, baina zaindu, errespetua guztiaren gainetik ipintzen ahalegindu eta batez ere inor ez mindu.

Jaietan, kalean, tabernan edo txosnetan ondo pasa dezazuela aste bukaeran eta hurrengo egunetan. Biharamuna etorriko da-eta bueltan.

5 galdera...

# Maite Blanco

Maka oinetako dendakoa
Bergara

**1. Urtaroaren arabera, zein motatako oinetakoak dira gomendagarriak?**
Neguan, botak eta oinetako itxiak. Udaberri eta udazkenean, berriz, oinetako zabalak, eta udan, sandaliak.

**2. Oinarendako zer da egokiagoa: takoidun oinetakoak ala takoi gabekoak?**
Gomendagarria takoi pixka bat edukitzea da, izan ere, takoi gabekoak ere ez dira oinarendako egokiak. Muturrera joatea ez da ona, baina bada jendea takoi gabe ezin dena ibili, eta beste batzuk, aldiz, takoiak ez zaizkiela batere gustatzen, edo ezin dutenak takoiarekin ibili. Norberaren arabera dago.

**3. Gaur egun, moda kontuak hainbeste aldatzen diren honetan, zein oinetako daude modan?**
Plataforma daukaten oinetakoak, bailarinak delakoak eta ziria duten sandaliak daude modan; baita *retroak* eta punta biribila duten oinetakoak ere. Puntadun oinetakoak, berriz, ez daude modan. Koloreei dagokienez, beltza, zilar kolorea, grisa, beixa eta gorria daude modan.

**4. Oinen osasunerako zenbatean behin da gomendagarria oinetakoak aldatzea?**
Hori oso erlatiboa da. Norberak oinetakoari ematen dion erabileraren araberakoa da. Izan daiteke norbaitek oinetako batzuk hilabete batean apurtzea eta beste batek, berriz, oinetako asko izatea eta egunero oinetakoak aldatzea. Oso erlatiboa da.

**5. Gomendio batzuk norberaren oinarendako egokiak diren oinetakoak erosteko?**
Batez ere, oinetakoaren orkoia (horma) eta materiala onak izan daitezela. Oinetako dendan probatzerakoan eroso izatea, eta gustukoa izan dadila, ez polita delako bakarrik, baizik eta, batez ere, erosotasuna oso garrantzitsua da.



**HIRIGINTZA** > SAN JOSEPE HARORBIA

# San Josepeko ideia lehiaketako proposamenak, maiatzerako

Orain abiarazi dute harrobiko ideia lehiaketa, baina datorren urtera arte luza daiteke lehiaketaren prozesua

**UBANE MADERA** > ARRASATE

San Josepeko Harrobiko ideia lehiaketan izena emateko epea maiatzaren 21ean bukatuko da. Biztanleen Arreta Zerbitzuan aurkeztu behar dira eskaerak eta izena emateko 50euroko kuota ordaindu beharko da.

Lehiaketa horretan parte hartzen dutenen artean, finalista geratzen den egile bakoitzak 10.000 euroko saria jasoko du. Eta finalista horien artean garaile izendatzen dutenak 88.000 euroko saria eskuratuko du eta bigarrenak, berriz, 12.000 eurokoa.

**BI FASEKO LEHIAKETA**

Edozelan ere, San Josepe Harrobiko ideia lehiaketa hasi besterik ez da egin momentuz. Izan ere, bi fase izango ditu lehiaketak: bata ideia lehiaketako finalistak aukeratzeko eta bigarrena irabazleak aukeratzeko.

**HERRITARREK AUKERATZEKO**

Udalak aurreikusitako egutegiaren arabera, lehiaketara aurkezten dituzte proposamen guztiak erakusketa publikoan ipiniko dituzte. Eta erakusketa horretatik herritarrek aukeratuko dute finalista bat. Gainerako lauak epaimahai baten bitartez aukeratuko dituzte. Hori guztia egingo dute urria eta azaroa bitartean. Eta hori izango da ideia lehiaketaren lehen fasea.

**BIGARREN FASEA**

Bigarren faseari dagokionez, finalista geratu diren bost proposamenen artean aukeratu beharko du epaimahaiak. Eta hori egiteko azkeneko data izango da 2009ko apirilaren 2an. Hortaz, ikusten den moduan, oraindik luze jo behar du ideia lehiaketa horrek.

**MENDE ERDI HARRIA ATERATZEN**

San Josepe harrobia Bedoña auzora bidean dago; 50 urtetik gora ustiatu dute harrobia, harria ateratzeko. Horren ondorioz, gaur egun milioi bat eta berrehun mila metro kubikoko eremuko zuloa dago mendi magalean. Une honetan harrobiaren ingurumen inpaktua gutxitzeko azkeneko lanak egiten dabiltza, eta badihardute, baita ere, Eibar-Gasteiz autobideko tuneletik ateratako harria ustiatzen.

**KONTUAN HARTZEKOAK**

Orain Arrasateko Udalak Lehiaketa antolatu du, eremu hura zela bete proposamen bat aukeratzeko. Proposamen horretan kontuan hartuko dituzte, batetik, arkitektura, paisaia eta ingurumen kalitatea eta, bestetik, bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta inguruarekin bat egiteko bideragarria baden.

**HELBURUAK**

Lehiaketaren helburuei dagokienez, hiru dira, Udaletik emandako azalpenen arabera: "Ahalik eta modu onenean txikitzea harrobiaren hutsarteak mendian sortzen duen ikus eta paisaia eragina; ahalik eta modurik onenean txikitzea ere Eibar-Gasteiz autobideak harrobiaren eremutik pasatzean sortuko duen eragin kaltegarria eta berrerabili eta aprobetxatzea ahalik eta modurik egokienean harrobiaren hutsarteak ematen digun gune fisiko zabala, eta horretarako hirigintza eta eraikuntza proiektu bat diseinatzea, leku horren gizarte eta ekonomia arloko berrerabilera altua izateko, bai eta hor planteatuko diren erabilerenak eta eraikuntzenak ere.

DATUA

**88**

Garaile aukeratzen duten proposamenak 88.000 euroko saria eskuratuko du eta bigarrenak, berriz, 12.000 eurokoa. Horrez gainera, finalista direnendako 10.000 euroko saria ere izango da.




Zarugalde kalea itxi egin zuten, suhiltzaileek lan egiteko. UBANE MADERA

**GERTAKARIA** > SUHILTZAILEAK ZARUGALDEN

# Sustoa Zarugalden, adreilu pusketak jausi zirelako

Suhiltzaileek bota zituzten solte zeuden gainerako adreiluak, inor ez zauritzeko

**U.M.** > ARRASATE

Zarugalde itxita izan zen zati batean martitzen iluntzean. Izan ere, Monterron ingurura dauden etxeetako batetik adreilu pusketak jausi ziren beheko espaloira eta kalera. Zorionez pusketek ez zuten inor harrapatu, baina arriskua ikusita suhiltzaileak etorri ziren eta kolpeka jardun zuten etxearen fatxadan solte zeuden gainerako adreilu pusketak bota eta modu horretan azpian inor harrapa ez zitzaten.Hurrengo egunetan ere etxearen azpiko espaloiaren zati bat itxita izan da.

> HEZKUNTZA

**Bihar, zapatua, Ikastolaren Jaia ospatuko dute Arizmendi ikastolako Ferixalekua gunean**

Bihar 11:00etan hasita, Ikastolaren Jaia ospatuko dute Ferixalekuan. Bazkal ordura bitartean, umeendako jolasak, Arrasateko hainbat kultura elkartek ipinitako txosnak eta besteak beste, automobilak zela kustomizatuzen dituzten ikusteko aukera izango da.



**AISIALDIA** > UDALEKUAK

# Udalekuak: 20 urte aisia eta euskara uztartzen, Txatxilipurdiren eskutik

1988an egin zituzten Arrasateko eta inguruko lehen udaleku irekiak

Lau herritarren ekimenari esker sortu ziren, kanpoko eredurik gabe



Argazkiak erakusten duenez, orain dela 10 urte baino gehiago ere,gazte ugari zebilen udalekuetan. TXATXILIPURDI

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Arrasateko bizilagunondako uztailean etxeko txiki eta gazteak Txatxilipurdiren udalekuetan ibiltzea normala da, urtero hala delako. Badirudi betidanik izan dela horrela, Arrasateko zerbitzu finkoetako bat direla. Eta ez da gutxiagorako. Izan ere, 20 urte pasa dira AED elkartea lehenengo eta gero Txatxilipurdi, zerbitzu hori Arrasaten ematen hasi zirela.

**KASUALITATEAREN EMAITZA**

Batzuetan kasualitate hutsetatik datoz benetan inportanteak diren aurkikuntza, ideia eta bestelakoak. Eta horixe da, hain justu, Arrasateko udalekuen kasua. Juan Luis Arexolaleiba *Gatxi*-k, udalekuen sorreraren "errudun" nagusiak hala kontatu du: "AED eta Udalaren artean elkarlana handitzearen ondorioz, lanak ere areagotzen hasi ziren. Orduan, AEDn zegoen lan guztia egiteko liberatu bakarra zegoen. Hori neu nintzen eta gainera nenbilen egun erdiz lanean. Aldiz, lana zegoen ugari eta komentatu nuen egun osorako jartzeko. Orduko lehendakariaren erantzuna zera izan zen: "Egun osorako lana bai, baina zerbait egin beharko duk, bada!" Eta hortik etorri zen, lanaldia luzatzearen truke udalekuak antolatzea. Hortik datoz, kar, kar kar".

**SUKALDEKO LANA**

Nahiz eta kasualitate hori izan udalekuen eragile, udalekuen ideiaren atzean egin behar izan zuten bai, sukalde lana. Horrez gainera, herriko erakunde nagusiaren laguntza ere izan zuten: "Orain dela 20 urte sortu zen Arrasateko Udala eta AED artean elkarlan giroa eta hor hainbat ekimen abiarazi ziren: literatura lehiaketak, gerora ARKO izango zena (*Arrasate Press*…) eta ARKO sortu aurretik etorri ziren udaleku irekiak. Aisialdi aldetik ez zegoen gauza larregi eta gura zen euskara eta aisialdia uztartu. Gogoratzen dut Jesus Garmendia zela lehendakari eta Pio Azkarate eta Dani Mendizabalen artean sortu zutela halako talde pedagogiko bat, udaleku irekiak zela bideratu erabakitzeko. Ni orduan AEDn nenbilen lanean eta antolaketa lanak egitea tokatu zitzaidan. Oinarri horiekin 250-300 neska-mutiko elkartu ziren, hiru adin-multzotan banatu genituen eta Gazteluondon (San Frantzisko Xabier ikastolaren zelaian) egoten ziren gehienak".

Hala abiarazi zituzten aurreneko udaleku irekiak, 1988an. Lehenengoak ziren Arrasaten eta lehenengoak izan ziren, inguru guztian: "Nik ez dut gogoan kanpoko eredu garbirik. Lehen aipatu ditut hiru izen eta pentsatzen dut horrek egindako ekarpenetan oinarritu zirela, baina eredu garbirik ez zegoen. Uste dut Txatxilipurdi berak egin duela udalekuen ekimen hori eta gero bere jarduera zabaldu egin duela".

**PROFESIONALIZATU**

Ordutik hona gauzak asko aldatu dira, jakina. Errukane Aperribaik adibidez, gogoan du hasieran gutxirekin moldatzen zirela: "Askotan soka batekin eta baloi batekin jolasten genuen; edo *Bote-Bote* eta halako jolasak egiten genituen. Gazteak aldatu dira gu aldatu garen moduan, euren ikuspegia desberdina da… azpiegiturak ere aldatu egin dira, udalekuak gehiago egiten dira orain kanpoan eta akaso orain errazago egiten dute jolas beste modu bateko gauzekin. Dena den, helburu nagusiek hasierako berak izaten segitzen dute: haur eta gazteengan euskara bultzatzea aisialdia erabilita instrumentu moduan".

Azken horrekin bat egin du Idurre Amozarrainek. Baina gaineratu du, beste helburu batzuetan bai gertatu dela aldaketa: "Exigentzia mailan, segurtasun, lege eta guraso aldetik… Profesionalizatu egin dira, neurri batean, udalekuak eta hezitzaileen lana. Lantzen dira, baita ere, helburu hezitzaileak (hezkidetza, jolas kooperatiboak, talde lana…). Horrez gain, lehen eta orain, udalekuek segitzen dute herrikoiak izaten erabat".

**ETORKIZUN ONA**

Esandako moduan, 20 urte pasa dira udalekuak sortu zituztenetik, eta badirudi beste horrenbestean iraungo dutela; batetik Txatxilipurdi elkartea bera gertu dagoelako zeregin horrekin segitzeko eta bestetik, udaleku beharrak indartsu segitzen duelako, Uxue Zabaleta Txatxilipurdiko arduradunak adierazitako moduan: "Nik uste dut uztailean umeei aukeraren bat eman behar zaiela aisialdiari dagokionez; gurasoek lanean segitzen dute eta umeak etxean egon beharrean askoz hobeto daude halako ekintzak egiten. Uste dut udalekuen beharra badagoela eta eskaintza polita dagoen bitartean etorriko direla umeak eta gurasoak pozik izango direla".

## Lehengo eta oraingo langileak batera, 20. urteurrenean

Ezkerretik hasita, Uxue Zabaleta da Txatxilipurdiren dinamizatzailea. Juan Luis Arexolaleiba *Gatxi*, sorreran ibilitakoa da. Ondokoa, Idurre Amozarrain (bost urte Txatxilipurdin) begirale izandakoa da eta antolaketan ere jardun du. Eta goiko aldekoa da Errukane Aperriba, urte gehien egin dituena: 13 urte.


Udalekuetan urtetan ibilitakoak eta orain dabiltzanak, AEDren kanpoan. U.M.

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**MUSIKA** > ARRASATE MUSIKAL BIG BANDA

# Big Banda Donostiako Jazzaldian izatea epaimahairen esku dago orain

Jaialdian parte hartuko duten Euskal Herriko taldeak zehazteke daude oraindik; eta, horren harira, Big Bandakoak pozik daude egindako lanarekin



Irudian, Big Bandak pasa den astelehenean Victoria Eugenian emandako kontzertuaren une bat. ARRASATE MUSIKAL BIG BAND

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Arrasate Musikal Big Bandaren kontzertu guztiak izan ohi dira bereziak. San Juan jaietan urtero egiten duten emanalditik hasita, Euskal Herritik kanpora eskainitako edozein kontzertutara –Bartzelonara egindako azken irteera arrakastatsua kasu–, beti dago ikus-entzulea harrituta uzten duen zertzeladaren bat. Horri, gainera, txapelketa baten egotearen tentsioa batu zitzaion bandak pasa den astelehenean emandako kontzertuan, 43. Donostiako Jazzaldian jotzeko hautaprobetarako eskainitako saioan, hain zuzen. Egun, Big Banda osatzen duten 21 musikariek ezin dute bizitza musika barik ulertu. Arrasate Musikaleko ikasle zein irakaslez osatuta, belaunaldi berriei irekita dagoen taldea da, eta, beraz, harrobi musikalak badu bere pisua. Orain, nork esango zukeen nazioarte mailan aski ezaguna den Donostiako Jazzaldian izateko pauso bakar batera daudela arrasatearrak.

**ORAIN, EMAITZAREN ZAIN**

Zigor Martinez Big Bandako zuzendaria pozik agertu zen pasa den astelehenean Victoria Eugenian eskainitako kontzertuarekin. Hainbat izan ziren Big Banda animatzera joan ziren debagoiendarrak eta gure ibarreko eta Donostia inguruetako ikusleek aretoa goraino bete zuten. Bestalde, Martinezek kontzertua "ondo" egon zela adierazi arren, ez du "ideiarik ere ez" epaimahaiak Big Banda Jazzaldian izateko aukeratuko duen edo ez. Azken hori hautaprobetara sailkatutako beste taldeen maila ezagutzen ez duelako esan zuen.

Hala ere, Donostiako Jazzaldiaren jarraitzaile amorratua den Zigor Martinezek jaialdi ospetsuan izatea bandarentzat "satisfakzio handia" izango litzatekeela aitortu zuen. Horretaz gain, taldearentzat "erronka handia" ere izango litzatekeela onartu zuen: "Urtero joan izan naiz Donostiako Jazzaldira, eta ikusle izatetik taula gainean izatera pasatzea izugarria litzateke".

**OSPAKIZUNAK** > 'ANTZINAKO ARRASATE' AZOKA

## Aurreko Erdi Aroko azoken eredua aldatu nahi dute, herrikoiagoa egiteko

**J.B.** > ARRASATE

Aurreko lau urteetan egin diren Erdi Aroko azoken eredua aldatzeko asmoa du Udalak, asteburu honetan ospatuko den azokari begira. Izena ere aldatu diote: orain, *Antzinako Arrasate* dauka izena.

Antolakuntza eran ere filosofiaz aldatu dute, betiere ekitaldi herrikoiagoa lortzeko asmoz. Oraingoan dena enpresa pribatu batek antolatu ordez, Nafarroako Naparbideak kooperatibak –elikadura janariak ekoizten ditu eta, horretaz gain, ikuskizun ezberdinak ere antolatzen ditu– eta Udalak elkarlanean eraman dute aurrera.

Bestalde, Udalak jakinarazi du 60 saltoki inguru izango direla. Euskararen presentzia aurreko urteetan baino handiagoa izango da, eta, herrian sustraituko den azoka lortzeko asmoz, herriko hainbat elkartek hartuko dute parte: Doke antzerki taldeak, Txatxilipurdik, Arrasateko Trikitilari taldeak eta AEDk, besteak beste.

**TAILAGINTZA** > ARTE ELKARTEAREN ERAKUSKETA

## 25. urteurrena ospatzeko 100 obra inguru ikusgai Kulturaten

Gaur hasi eta hilaren 25ean amaituko da erakusketa; elkartean, tailagintza maite duten 34 bazkide dira egun

**J.B.** > ARRASATE

Mende laurdena bete du dagoeneko Arte Arrasateko Tailaginen Elkarteak egurra artelan bihurtzen. Zaletasunagatik sortutako kultura elkarte hori Eskola Politeknikoko zurgindegiko irakaslea zen Mattin Amondarainen gidaritzapean hiru ikaslek gauzatutako taila ikastaro batetik irten zen. Elkartea Udalaren laguntzarekin eratu zen eta oraindik ere Uriburu kalean utzi zieten lokalean dihardute tailatzen.

**TAILAGINTZA, ZALETASUN**

Urte hauetan guztietan zehar bi izan dira Arteren helburuak: tailagintzarako zaletasuna garatzea eta herrian elkartearen ekintzen berri ematea. Bestalde, elkarte amateurra dela jakinarazi nahi izan dute; hau da, elkarteko bazkideek tailagintza denbora-pasa moduan hartzea nahi dute. Horretaz gain, bazkideen %60 erretiratuak direnez, gizartearen behar hori asetzen saiatzen direla adierazi dute. Azkenik, honela definitu dute 25 urteko jarduna: "Tailagintzaren trebetasuna beharrezkoa ez den egurra egokitasunez kentzen lortutako abilezian datza".

KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

112
SOS DEIAK




Udaberriko promozioa
-%10 +
3 CFT- DEEP 90 X modeloa
780 € tan baloratutako tximinia
iKER
SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
Nahi al duzu gehiago?
250 € tan baloratutako eta marko bateratua duen MW4 - 17 EX mikrouhin labea. (17 litro)
Beti ere ekipamenduak ACTIVA BR, SELECTA BR, ACTIVA BR PLUS, BRISA, ZEN, AURA edo ALTIA baldin badira.
Promozio hau apirilaren 15etik ekainaren 15era izango da.
FAGOR
Sukaldeko altzariak


PEÑAKOBA
AUTOESKOLA, S. L.
Zarugalde 46
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 29 93
Lizaur arkitektoa 7
20560 OÑATI
Tel./Faxa: 943 78 05 60
EEEren Gidatze Ekonomikoaz
Ikastaroen autoeskola laguntzailea
Gidatzen duzun bakoitzean erregaiaren %15a arte aurreztu nahi ahal duzu?
PEÑAKOBA AUTOESKOLAN Energia Euskal Erakundearen laguntzarekin merke gidatzeko ikastaroa doan eskaintzen dizugu.
3 lagunez osatutako talde txikiak
Izena eman eta ingurumenarekin kolaboratu.
Informazio gehiago Peñakoba Autoeskolan.
Tel.: 943 79 29 93

**MENDIA** > BESAIDEREN IRTEERAK

# Gertu dituzte maiatzeko irteerak, baita Aiba! ere

Mendian oinez ibiltzeko bi irteera egingo dituzte, eta mendiko eskia egitera ere joango dira

**X.U.** > ARRASATE

Besaidek lau irteera zituen maiatzerako aurreikusita, baina hilaren 17an mendiko bizikletekin Izkira (Araba) egin beharreko irteera atzeratzea erabaki dute, egun horretan Zigorrolako jaien barruan mendiko bizikleta irteera egingo dute-eta. Hala, Besaidekoek bizikletazaleak irteera horretara joateko animatu gura dituzte.

**DOMEKAN KANPEZU ALDERA**

Hain zuzen ere, Izki aldera, Kanpezura egingo dute oraingo domekan oinezkoen irteera. Mendiko eskiko irteera ere asteburuan egingo dute, Bataillance eta Soum de Salettes aldera. Eta, hurrengo oinezkoen irteera hil amaieran egingo dute: 24ean eta 25ean Asturias aldera joateko irteera antolatu dute Besaidekoek. Lehenengo egunean, besteak beste, Camarmeñako begiratokia ezagutu ahal izango dute, eta egunean bertan Vega Urriellura joango dira, Naranco de Bulnes mendiaren magalera. Fuente De herri ezagunera joango dira bigarren egunean. Irteera horretan izena emateko egunak maiatzaren 13a eta 14a izango dra, 19:30etik 20:30era.

**AIBA! PROBA EKAINAREN 8AN**

Aiba!-ko antolatzaileak burubelarri dabiltza aurtengo mendi martxa antolatzen. Ekainaren 8an egingo dute Aramaioko ibarra zeharkatuko duen mendi irteera, eta dagoeneko zabalik dago izenemate epea.

Horretarako eta mendi irteeraren gaineko informazioa batzeko webgunea dute: *www.aiba.besaide.org*. Eta telefonoz ere eman ahal da izena: 695 77 62 22.



Europako Mendiak, Asiegu de Cabralesetik; atzean, Naranco de Bulnes. X.U.

> ATLETISMOA

### Arrasateko taldeko atleta gazteek Durangon eta Elgoibarren izango dituzte hitzorduak

Arrasateko atleta gazteak Durangon eta Elgoibarren lehiatuko dira asteburuan. Elgoibarren alebin mailako eskola arteko txapelketak egingo dituzte eta Durangon Euskadiko gazte mailako txapelketan lehiatuko dira. Bestalde, aipatzekoa joan den astean Maialen Axpek Euskadiko Txapelketan eskuratutako urrezko domina (3,21 metro).



MUko taldekideak, joan den domekako partiduan, Ointxe!-ren aldeko ohiua botatzen. JOSETXO ARANTZABAL

**SASKIBALOIA** > LEHENENGO MAILA, IGOERA FASEA

# MUren saskibaloi jaiak beste bi aste iraungo du

EBArako txartela poltsikoan, Iñaki Merinoren mutilei bi jardunaldi geratzen zaizkie tentsioa alde batera utzi eta igoera faseaz gozatzeko

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Amaitu dira tentsioak eta bestelako larritasunak. MUko mutilek bete dute helburua, eginda dago lana. Orain, klubak bestelako lanak hasi beharko ditu datorren denboraldiari begira. Baina EBArako igoera faseari oraindik bi jardunaldi geratzen zaizkio, eta zuri-moreek amaiera biribila eman gura diote denboraldiari. Gainera, geratzen diren bi norgehiagoka horietan –Viajes Marfil eta Leclerc– kontrarioek asko dute jokoan, batez ere Leclerc taldeak. Hala, kontrarioari zor zaion errespetuagatik, azken norgehiagoka horietan ere neurria eman behar da. Noski, horrek ez du esan gura kantxan egoteko aparteko ahalegina egin duten min hartutako jokalariek gehiago behartu behar dutenik, edota minutu gutxiago izan dituzten jokalariei aukera emateko partiduak ez direnik. Seriotasuna bai, baina nork bere interesak zainduta.

**BIGARREN IZATEKO LEHIAN**

Oraingo asteburuko kontrario Viajes Marfilek (domeka, 18:00, Iturripe) errepaso polita jaso zuen joan den astean Cafes Aitonaren kantxan (85-57). Donostiarrek Arrasatekoen bidea jarraitu gura dute; horiek ere EBA dute begiz jota, baina horretarako bigarren sailkatu behar dute, postu horrek ahalbidetzen du-eta lauko finala jokatzea. Eta oraingo asteburuan aurrez aurre izango dira bigarren postuagatik lehian dabiltzan Leclerc eta Cafes Aitona; asko egongo da hor jokoan. Baina azken jardunaldian MUk epaile lanak egingo ditu, Leclerc etorriko da-eta Iturripera.

### Igoera faseko sailkapena

| | |
|---|---|
| Mondragon Unibertsitatea | 31 |
| E. Leclerc Vitoria | 27 |
| Cafes Aitona | 26 |
| Valsay Ardoi | 25 |
| Viajes Marfil | 25 |
| Urdaneta | 22 |
| Fundacion Baskonia | 21 |
| CNP-UPNA | 21 |
| Zornotza | 21 |
| Tabirako Baque | 21 |

ITURRIA: WWW.OINTXE.COM


HOTEL JATETXEA SANTA ANA
Terraza • Barra
Eguneroko menua: 20 €
Aste bukaerako menua: 30 €
Karta • Dastatzeko menu berezia

Uribarri 37 ( Udala bidean ) • Tel: 943 79 49 39 • Arrasate

bote prontuen

**Miren Lasagabaster** > Lasagabaster etxe apainketa, altzari eta dekorazio dendakoa

# "Lagun onenari, larruzko eserleku eder bat"

JASONE ZABALA > ARRASATE

**Miren Lasagabasterrek abizen bera daraman dendan egiten du lan, familiako denda da-eta. Lasagabaster izeneko denda batzuk badaude Arrasaten, eta hauen artean, altzariena.**



**Zenbat urte daramatzazu denda?**
Familiako negozioa zen, gurasoena; eskola ez nuen gustuko, eta dendan hasi nintzen. Etxean beti ikusi izan ditut gurasoak lanbide honetan; dagoeneko badira 30 urte dendari lanetan nabilela.

**Zer saltzen duzue zuen dendan?**
Sukaldeak eta bainuak izan ezik, etxea janzteko eta apaintzeko behar diren altzari guztiak saltzen ditugu.

**Zein da jendeak gustukoen duen altzaria?**
Estilo asko daude. Orain, modernotasuna da gehien saltzen dena. Modan dauden gauzen barruan, norberak aukeratzen du; pertsonaren arabera dago.

**Zuk dekorazioan zer duzu nahiago, modernotasuna edo klasikotasuna?**
Modernotasunean ez da dena minimalista. Hemengo jendea modernoa da, bai, baina goxotasun bat bilatzen du erosten duen altzari edo apaingarri horretan.

**Nor etortzen da dendara gehiago erostera: emakumea ala gizona?**
Emakumea. Oraindik, hori ez da aldatu erostera etortzerako orduan.

**Gustukoen duzun altzaria zein da?**
Logela bateko altzariak.

**Nori oparituko zenioke larruzko eserleku eder bat?**
Nire lagunik onenari.

**Eta nori, egurrezko aulki gogor bat?**
Etsairen bati, hori seguru!

**Etorkizuneko tendentziak nola datoz?**
Linea zuzenak; ez dago barroko itxurako gauzarik. Adibidez, orain arte eraman diren gortina luzeak ez daude modan; orain, estoreak daude boladan, tela gutxirekin egindakoak.

txutxu-mutxua



JOSE RIVIERE

## Abaroa erretiratuen elkartekoek Aldeanueva de Ebrora egin dute bidaia

**Pasa den apirilaren 16an, Errioxara egin zuten bidaia Abaroako erretiratuen elkartekoek. Goizeko zortzietan irten ziren Arrasatetik, eta upategi batzuk bisitatu zituzten. Ondoren, San Bartolome eliza bisitatzeko aukera izan zuten, eta eguaztenean zenez, bertan egiten den merkatua ere bisitatu zuten. Bazkaltzera Azagrara (Nafarroa) joan ziren. Han dantza pixka bat egin ondoren, Lizarra aldera joan ziren. Txikiteoa egin zuten batzuek, eta erosketak egin zituzten beste batzuk. Bidaian ondo pasa zuten, eta 21:30 aldera bueltatu ziren etxera.**

bere ustez



Aitor Eizagirre

## Lillorekin Reala... primeran!

Aurreko astean Ino Galparsoro gure alkatea presondegian sartu zuten. Bera ei da munduko atsekabe guztien erruduna. Berriak, zur eta lur utzi ninduen. Zer dago erabaki honen atzean? Argi dago, helburu politikoak: mozioekin lortzen ez dena epaitegietatik inposatzen da.

Aspalditik dabil Paco Gartzia gure herriko alkate izan nahian. Baina, orain arte behintzat herritarrek ez diote konfiantzarik eman, aitzitik nahiko emaitza kaxkarrak ustiatu izan ditu udal hauteskundeetan. Badirudi, orain alkatetza lortzeko bidean dela... Aspaldian *El Pais*, La Sexta eta halakotan ikusi dugu Paco Arrasateri buruz hizketan, gaizki–esaka betiere. Zerbait ona ere izango du gure herriak, ezta? Nire ustez, hilketa batek ez ditu gertaera hauek guztiak justifikatzen.

**"Ohartuko zinen honezkero, irakurle, izenburuak eta artikuluak ez dutela zerikusirik"**

Ohartuko zinen honezkero, irakurle, izenburuak eta artikuluak ez dutela zerikusirik... bai, iruzurti bat naiz, espero dut trikimailu honekin, betikoez gain, beste norbaitek ere irakurriko zituela asteon nire berbak. Bitartean, gure alkateak (postua eskubide osoz erdietsi zuenak) kartzelan jarraitzen du. Ez dago eskubiderik.

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR
García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Pando
Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

**ZERBITZUAK** > TRATU TXARREN BIKTIMENDAKO

# Babes-etxea prestatu du Udalak sexu indarkeria jasan dutenendako

Tratu txarren kasuak gero eta gehiago direlako erabaki dute babes-etxea prestatzea. Hiru unitaterendako tokia du eta behin-behinekoa izango da

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Babes-etxea prestatu du Udalak sexu indarkeriaren ondorioz ohiko etxebizitza utzi behar dutenendako. Etxebizitza dagoeneko erabiltzeko moduan dago, eta araudia ere onartuta, apirileko osoko bilkuran onartu zuen-eta udalbatzak.

Egokitutako etxeak hiru logela ditu. Berez, hiru unitateri babesa emateko pentsatuta dago, baina kasuak nolakoak diren ikusi beharko da. "Hiru logela ditu, baina bost ohe. Demagun hiru ume dituen emakume batek duela hori erabiltzeko beharra. Hiru unitaterendako tokia egon arren, posible da bi familiarekin betetzea", dio Jon Lopez Gizarte Zerbitzuetako teknikariak.

Babes-etxea behin-behineko zerbitzua izango da. Gehienez sei hilabetez egon ahal izango dira babes-etxean sexu indarkeria jasan dutenak. "Posible da hiru hilabetez egotea ere, baina momentuz ez dugu pentsatu sei hilabeteko epea luzatzea. Pertsona normalizatzea da helburua, lehengo etxebizitzara, bizimodura bueltatzea. Horretarako ere izango dute gure laguntza", dio Jon Lopezek.

**BEHARRA ZEGOELAKO**

Bergarako Gizarte Zerbitzuak babes-etxearen beharra ikusten zuen. "Hemen ere gero eta sexu indarkeria kasu gehiago daude. Orain arte inguruko herriek dituzten babes-etxeak erabili izan ditugu, eta bazegoen beharra Bergaran bertan prestatzeko horrelako etxe bat", dio Lopezek. Horrela, zerbitzu honen beharra adierazi zion Gizarte Zerbitzuak udal gobernu berriari, eta duela urtebete hasi ziren proiektua gauzatzen. "Orain arte, pentsioetara bideratzen ziren tratu txarrak jasan dituztenak. Ikusi genuen Udalak hutsik zuela etxebizitza bat, eta hura prestatzea pentsatu genuen", dio Roberto Martinezek, Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak. Udan margotzen ibili ziren, altzariak eta oinarrizko etxe tresnak ere erosi dituzte eta dagoeneko erabiltzeko moduan dago. Hemendik aurrera, sexu indarkeriagatik jarritako salaketak eta kontsultak aztertu eta beharra duenari babes-etxea eskainiko dio Gizarte Zerbitzuak; urgentziazko kasuetan pentsioetara bidaltzen jarraituko dute.

**GERO ETA GEHIAGO**

Sexu indarkeria jasaten dutela esanaz gero eta jende gehiago doa Udaleko Gizarte Zerbitzuetara. Han emandako datuen arabera, urtarriletik apirilera bitartean sei laguni eta bi erasotzaileri eman diote laguntza psikologikoa. Kopurua handia da, kontuan izanda 2007an 10 biktimari eta bi erasotzaileri eman zietela. Horiez gain, beste asko kontsulta egitera joan ziren. Bestalde, gero eta kasu gehiago latinoamerikarren arteko kasuak dira.

DATUA

**8**

**LAGUNTZA PSIKOLOGIKO**

Lehen lau hilabeteetan, zortziri eman diote laguntza psikologikoa Gizarte Zerbitzuetako teknikariek: sei biktimak dira, eta bi, erasotzaileak. Iaz, 10 biktimari eta bi erasotzaileri eman zieten.

## Hemengo zuhaitzak landatu dituzte San Martzial eremuan

Zuhaitz-landaketa egin dute San Martzial eremuan. Biodibertsitatea babestea da helburua eta hainbat landare sartu dituzte. Hemengo zuhaitzak landatu dituzte: gaztainondoak, arteak, gorostiak eta haritzak, adibidez. Lehenago ere egin zuten zuhaitz-landaketa inguru horretan eta orain birjarpena egin dute, hau da, hartu ez dutenak edo apurtu direnak kendu eta hutsuneak osatu. Lanak Ikerlora enpresak egin ditu eta honen bestez bukatu dute San Martzial inguruan zuhaitz-landaketa egiteko proiektua.


GOIENKARIA

IBAR OSORAKO

## Mankomunitateko zerbitzu bihurtzeko asmoa dute

Bergarako babes-etxean Bergaran erroldatuta daudenek dute lehentasuna, baina beharra ikusiz gero, beste herri bateko bizilagun batek ere erabili dezake, beti ere etxea libre egonez gero. Jon Lopez Gizarte Zerbitzuetako teknikariak esan bezala, ordea, zerbitzua mankomunitate osora zabaltzeko asmoa dute. "Modu bat da orain bezala jarraitzea, hau da, beste herri horrek guri eskaera egitea eta guk kasua aztertzea eta etxea uztea libre egonez gero. Beste modu bat da mankomunitate mailako araudi bat egitea, egoeraren larritasunari lehentasuna emanez, erroldatuta dagoen herriari garrantzia kenduz. Bigarren aukera hori egokia dela uste dut eta asmoa dugu bilera bat egiteko ibarreko gainerako herrietako gizarte zerbitzuetako ordezkariekin honi buruz berba egiteko", aurreratu du Jon Lopezek.

margo industriala
margo orokorra
margo dekoratiboa
erreformak orokorrean
fatxadak
margolan
margoak
Sagasti auzoa 5-3D • ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 13 • 665 73 39 55 • 687 57 07 77

BEHEKO TABERNA
Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

> PAZKOAK

## Udal zerbitzuak itxita egongo dira astelehen eta martitzenean

Udal zerbitzuak itxita egongo dira datorren astelehenean eta martitzenean, Mendekoste jaiak direlako. Itxita egongo dira, adibidez, udaletxea, liburutegia eta Agorrosin kirol gunea. Agorrosin, gainera, zapatuan, bihar, eta domekan ere itxita egongo da. Beraz, lau egunetan jarraian egongo da itxita zerbitzu hori. Labegaraietako kiroldegia aldiz, zapatuan eta domekan zabalik egongo da baina ez astelehenean eta martitzenean, egun horietan itxi egingo dute eta.

> IRTEERA

## Irukurutzetara irteera antolatu du Jardun elkarteak

Jardun euskara elkarteak irteera antolatu du. Irukurutzetara joateko deialdia egin du, maiatzaren 17rako. Irteera Jarduneko Berriketan taldeak eta Arrasateko AEDko Zaharberri taldeak antolatu dute. Egitaraua da Elosutik irten eta Irukurutzetatik bueltа egitea.

Irteerara joan gura duenak izena eman behar du aurretik. Horretarako Jardun elkartera joan edo deitu dezake. Hauxe da telefono zenbakia: 943 76 36 61.

> ZERGAK

## Kontribuzioa ordaintzeko epea zabalduko dute

Ondasun Higiezinen gaineko zerga, kontribuzioa, ordaintzeko epea maiatzaren 15ean zabalduko dute. Ekainaren 30a izango da azken eguna eta epez kanpo gelditzen direnek, errekarguaz ordaindu beharko dute. Ordainketa banketxean helbideratuta dutenei handik kobratuko zaie. Helbideratu gabe dutenek, ordainketaren agiria jasoko dute etxean eta banketxetik edo Udaletik pasa beharko dira.

**KIROLA** > PAZKOETAKO PILOTA PARTIDUAK

# Goñik eta Titinek jokatuko dute gaur Udal pilotalekuan

Goñi-Urberuaga, Galarza V-Arizmendi eta Titin-Eulate, Xala-Lasa jaialdia 22:15ean hasiko da; astelehenean, Bergara Hiria pilota txapelketako finalak izango dira



Artxiboko argazkian, Titin eta Eulate; gaur bikotea osatuko dute Xala eta Lasaren aurka. GOIENKARIA

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Lehen mailako pilotarien arteko pilota partiduak egongo dira gaur, egubakoitza, herriko frontoian. Martitzeneko partidak erabakitze daude oraindik. Udalak eta Aspe enpresak azken orduan lotu dituzte bi pilota jaialdiak, Mendekoste jaien barruan.

Mikel Goñi izango da jokalarietako bat; berragertu zenetik bigarren partida du. Hain zuzen ere, bi partidu jokatu dituzte gaur eta lehenengoan jokatu du berak Urberuagarekin batera. Galarza V eta Arizmendi izango dituzte aurkari. Bigarren partiduan, Titin eta Eulatek, Xala eta Lasaren aurka jokatuko dute. 22:15ean hasiko da lehen partidua eta ETBk botako du.

**BERGARA HIRIA TXAPELKETA**

Bestalde, astelehenean Bergara Hiria txapelketako finalak jokatuko dituzte, 19:30ean. Jaunarena-Berguera, Elezkano-Landaburu eta Oillo-Linzoiain, Mendizabal (Antzuola)-Larrinaga pilotariek jokatu dituzte finak.

**HIRIGINTZA** > GARAJEAK

# Ibargaraiko 56 garaje salduko ditu Udalak

15.000 eta 20.000 euro kostatzen da bakoitza, eta zozketa egingo da eskaeren artean

**O.E.** > BERGARA

Ibargarai kalean Sukia enpresak egin duen etxe-blokearen azpian dauden 56 garaje salduko ditu Udalak. Aparkaleku-plaza irekiak dira eta bi tamaina ezberdinetakoak dira. Horrela, aparkaleku mota bakoitzari salmenta prezio bat jarri diote: bi garajek 20.000 euro kostatuko da bakoitza, eta beste guztiak, 15.000. 56 garajetako bi, gutxituendako egokituta daude.

Garajeak saltzeko, zozketa egingo dute eskaera egin duten herritarren artean. Erosketa agiria sinatzen denetik hamar urteko epean berriro saldu gura badu norbaitek garajea, Udalari saldu behar dio.



Ibargarain daude garajeak. GOIENKARIA

Zuri beltz Margoak

Barnealde eta kanpoaldeen erreforma
Pintura zerbitzu osoa

Zubieta 28 BERGARA • 607 447 494
Txomin Santamaria 609 150 164 • Jabier Seco 678 615 045

Ondo pasau jaixetan!

> ERROMERIAK

### Maiatzeko barikuetan erromeriak egingo dituzte Muniben

Erromeriak antolatu dituzte maiatzeko bariku gauetarako. Hilaren 16an izango da lehenengo erromeria Munibe plazan. 20:30etan Moiazpi dantza taldearen saioa izango da eta ondoren erromeria Unsain anaiekin. Hilaren 23an, Gazte-Alai dantza taldearekin saioa eta ondoren erromeria Ansorregi eta Larrañagarekin. Hilaren 23an 18:30ean Bergarako trikitilarien kalejira eta erromeria. Gero, afaria Munibe plazan eta 22:30ean erromeria Izer, Alabier eta Lutxurdiorekin.

> MUSIKA

### Udaberriko kontzertua datorren zapatuan izango da

Maiatzaren 17an izango da Musika Eskolak urtero antolatzen duen Udaberriko kontzertua. Udal pilotalekuan izango da; aurretik, baina, trikiti kalejira egingo dute, 18:30ean, hain zuzen.

Kontzertua 19:00etan hasiko da eta ondoren afaria egingo dute. Kontzerturako zein afarirako txartelak musika eskolan eros daitezke. Sarrera bakarrik 3 euro; eta, kontzertua eta afaria 16 euro kostako da. Txartelak hartzeko azken eguna hilaren 15a da.

> MUSIKA

### Bihar, zapatua, musika jaialdia egongo da Jam-en

Jingo de Lunch eta Cool Circus taldeek kontzertua emango dute bihar, zapatua, Jam aretoan. Ateak 20:00etan irekiko dituzte. 17 euro kostako dira sarrerak aurrez eta egunean, leihatilan, 20 eurotan salduko dituzte.

Jingo deLunch Berlineko taldeak hard-rock eta punk estiloko musika egiten dute. Bergaran aurkeztuko dute *The independent yars* azken lana. Taldeko abeslaria Yvonne Cucksworth kanadarra da.



Sexty Sexers taldeak Bergarako gaztetxean egindako kontzertu bat. GOIENKARIA

**TXAPA IRRATIA** > KONTZERTU MARATOIA

# Herriko musikariekin diskoa grabatu nahi dute

Maiatzaren 17an bilera bat egingo dute horren berri emateko, 19:00etan, gaztetxean

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Txapa irratiak herriko musikariekin CD bat ateratzeko asmoa dauka. Horretarako, deialdia egin diete herriko musika talde, bakarlari eta DJ guztiei proiektuan parte hartu dezaten.

**KONTZERTUAK**

Lehenengo asmoa orain arte gaztetxean grabatu izan diren kontzertuekin CDa ateratzea zen; baina, konturatu dira grabazio horiek ez dutela behar besteko kalitatea. Horregatik, deialdia egiten diete herriko musikariei proiektua aurrera eramaten laguntzeko. Txapa irratiko arduradunen asmoa, uztailaren 4an eta 5ean kontzertu maratoi bat egitea da, proiektuan parte hartzeko prest dauden talde guztiekin. Kontzertua gaztetxean izango litzateke. Egun horietako zuzenekoak ahal diren ondoen grabatzea izango litzateke asmoa. Gero, talde bakoitzaren kantu bat aukeratu eta CDa grabatuko litzateke.

**ORDU ERDIKO KONTZERTUAK**

Kontzertuak ordu erdikoak izango dira; gainera, CDak liburuxka fanzine bat izango du osagarri. Han, talde bakoitzaren informazioa jasoko dute; baita, kantuen berbak eta argazkiak ere. Txapa irratikoek uste dute herrian 20tik gora talde edo bakarlari daudela. Proiektuan parte hartzeko prest dauden taldeek mezu bat bidali beharko dute *txapairratia@yahoo.es* helbidera. Gainera, guzti honen berri emateko bilera bat egingo dute maiatzaren 17an arratsaldeko zazpietan Txapa irratian (gaztetxean).

**ORAIN ARTEKO GRABAKETAK**

Orain arte 25 kontzertu inguru grabatu dituzte Txapa irratian; guztira, 70 bat talde. Gogoratu talde horietako asko musika alorrean ezagunak direnak izan direla: Delorean. Anari, Sexty Sexer eta Señor No, besteak beste. 2005. urtean hasi ziren Txapa irratiak antolatutako kontzertuak grabatzen; gero, irratian ematen dituzte kontzertu horiek. Kontzertu guztiak Gaztetxean emandakoak dira eta, gehienak, Txapa irratiak antolatutakoak dira.

**ANTZERKI FOROA**

## Jarrera bortitzak ekiditeko antzezlana

Baketik zentroaren laguntzarekin antolatu dute antzerki foroa

**A.E.** > BERGARA

Maiatzaren 17an, zapatuan, *bullying*-aren eta arrazakeriaren inguruko antzerki foro saioa egingo dute Bergarako Aroztegi aretoan. Bergarako Udaleko Kultura sailak antolatu du ekitaldia Arantzazuko Baketik zentroaren laguntzarekin.

Baketik zentroan dagoen antzerki taldea etorriko da Bergarara. "Antzerki bat egingo dute; bertan, indarkeria jasaten duen ume baten istorioa kontatuko da. Zoritxarreko amaiera izango du antzerkiak", azaldu du Maider Osa Bergarako Kultura teknikariak.

**PARTE-HARTZEA**

Antzerkiak ordu erdi pasako iraupena izango du eta 8-12 urte bitarteko umeei zuzenduta egongo da. Antzerki taldekoek adierazi dutenez, antzerkiaren ondoren ikusleen parte-hartzea bultzatuko dute. "Haurrekin berba egingo dugu eta istorioa zer iruditu zaien galdetuko diegu. Gainera, eurak istorioko protagonistaren lekuan egonez gero zer egingo luketen galdetuko diegu", gaineratu dute. Modu horretan, istorioan aldaketak egin eta amaiera zoriontsua bilatzen ahalegin duko dira.

Baketik zentroa 2007ko urrian hasi zen antzerki foroaren bitartez indarkeria lantzen. Astelehenetik eguenera Arantzazun duten zentroan eskaintzen dute antzerki foroa. Orain arte Arantzazutik ia bost mila ume pasa direla esan dute; eta, Baketik antzerki taldeko arduradunek gaineratu dute ume hauen jarrera eta erantzuna oso ona izaten dela.

MIZPILDI
OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

*Mujika*
*gozotegia*
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34


Antzinako Arrasate
Maiatzak 10 eta 11
Arrasate
Arrasateko Udala



Aintzinako Arrasate nolakoa zen erakutsi nahi dute azokarekin. NAPARBIDEAK

■ ANTZINAKO AZOKA, BESTE JAI EREDU BAT

# Herrian sustraitutako jai partehartzailea

IKER BARANDIARAN

**Jaiaren eredua eta izaera erabat aldatzea erabaki du udal taldeak herriko elkarteekin batera. Jai apalagoa, baina hemengoagoa egin gura dute. Saltoki gutxiago izango dira, eta herriko taldeak eta premiak gehiago hartuko dituzte kontuan.**

Orain arte ezagutu dugun Erdi Aroko Azoka ez da momentuz Arrasaten errepikatuko. Horren ordez, Antzinako Arrasate izeneko jaia sortu dute. Bestelako eredua duen jaia da, eta ahalegindudo dena herritik bertatik gehiago duen ospakizun bat bilakatzen.

Udal taldeko kideen esanetan, orain arteko jaia "oso kontsumista, erakusleiho bat izan da, eta herritarrek egin beharrean kanpotik kontratatu egin dute".

Arrazoi horregatik, Udala herriko hainbat elkarterekin batu egin zen eta guztien artean erabaki zuten eredua aldatzeko premia zegoela, eta filosofia aldaketak herriari on egingo ziola. Horrekin batera, Naparbideak izeneko elkartearekin harremanetan jarri ziren, artisauak eta bestelakoak ekartzeko.

**HEMENGOAGOA DEN JAIA SORTU**

Naparbiderekin batera adostu zuten herrian dauden elkarte eta ekimenak jaian barneratzea, eta gainontzekoak kanpotik ekartzea. Horrez gain, erabaki zuten Erdi Aroko Azokaren eredua alboratzea: "Erdi Aroko Azoka ia guztiak berdinak dira, berdin da zer herritan kokatzen diren.

> **Kanpotik ekarritako azoka jarri beharrean, bestelako jaia egingo dute**

Horrekin apurtzea gura genuen, eta bestelako jaia sortu, apalagoa, baina hemengoagoa", azaldu zuten udal taldeko kideek.

**SALTOKIETAN, APALAGOA**

Aurten, guztira, 60 saltoki egongo dira herriko alde zaharrean banatuta, beste batzuetan baino gutxiago; eta taberna bakarra jarriko dute. "Orain artekoa azoka zen eta negozio ugari zeuden. Oraingoan, berriz, saltoki gutxiago ekarriko ditugu eta herriko negozioei kalterik ez egiteko saiakera egingo dugu".

Udal taldeko kideek uste dute Arrasatek historia handia daukala, eta urtez urte jai honetan hori lantzeko aukera izango dutela. "Gure asmoa da polikipoliki herrikoak diren elementuak sartzea. Esaterako, ondo legoke, herritarrek antzinako arropekin janzteko ohitura hartzea. Horrek gauzok garatzen joango gara herritarrek eskatutakoaren arabera".

■ NAPARBIDEAK ELKARTEA

# Elkarte batekin lankidetza landu

I.B.

**Naparbideak Nafarroako jaki ekoizleen elkartearekin lankidetzan antolatu du Udalak Antzinako Arrasate jaia. Erdi Aroko eredua alboratuta, jai txikiago eta herrikoago baten aldeko apustua egin dute biek.**

Aurten Udalak ez du enpresa bat kontratatuko Erdi Aroko Azoka antolatzeko. Jaiaren eredua aldatu gura izan duenez, Nafarroako Naparbideak elkartearekin harremanetan jarri da Udala.

Naparbideak elkartea Nafarroako 24 bat janari ekoizlek osatzen dute. Euren ekoizpenak promozionatzeko sortu zuten elkartea, eta orain dela 15 bat urte azokak antolatzen hasi ziren. Eskarmentu handia dute zeregin horretan, eta Nafarroako zein Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat azoka antolatzen dituzte.

Horretarako, azoka edo jaigune horiek jantzi eta aberasteko, beste hainbat elkarte, talde eta artisauekin lankidetzan ibiltzen dira. Hala, azokak osatu eta ikuskizunak ekartzen dituzte, premia badago. Gainera, bitartekari barik, ekoizleak eurak protagonista izatea gura dute.

**HERRIKO BALIABIDEEN ALDEKOAK**

Naparbideak elkarteko ordezkariak esan digu premiazkoa dena bakarrik ekartzen dutela: "Udalarekin batera antolatzen gabiltza, eta argi daukagu ekarri beharrekoa herrian dagoenari gehitu behar zaiola, ez da ezer ordezkatu behar".

Hala, jaigunean taberna bakarra jarriko dute, eta aurtengo edizioetan baino saltoki gutxiago, 60.

**TAILERRAK, IKUSKIZUNAK, SALTOKIAK**

Erdi Aroko eredu estereotipoa alboratuta, jaigune txikiagoa jarriko dute. Horren barruan umeendako tailerrak, animazio ikuskizunak, helduendako tailerrak, Euskal Herriko ekoizpenak zerbitzatuko dituzten taberna bat eta hainbat saltoki ipiniko dituzte Seber Altuben, Herriko Plazan, Erdiko kalean eta Iturriotz kalean.



Artisau bat egurra lantzen. NAPARBIDEAK



Sarrera salmenta
SERVIKUTXA KUTXAZAIN-SAREA
kutxa
943 00 12 00
www.kutxa.net

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Jabier Muguruza

Non: Arrasateko Amaia Antzokian
Noiz: Maiatzaren 24an, zapatuan, 20:00etan

■ EGITARAUA

# Herriko elkarteak eta kale ikuskizunak, protagonistak

## EGITARAUA

**DOKE** antzerki taldeak *Ezkontza* ikuskizuna egingo du zapatuan 19:00etan eta 20:00etan Iturriotz kalean, parrokiaren alboan.

Arrasateko**TRIKITILARIAK** zapatu eguerdian irtengo dira kalejiran.

**AEDk** *Erdi Aroko Mondragoe* izeneko bisita gidatua egingo du. Ana Ugalde irakasle arrasatearrak egingo ditu gidari eta hizlari lanak.

**PORTALOI** elkarteak Seber Altube plazan saltoki bat jarriko du, argitaratu duten kantuen liburuxka eskuragarri jartzeko. Elkarteko kideak bertan abesten ibiliko dira bi egunetan.

**TXATXILIPURDI** elkarteko kideek Seber Altube plazako umeen hainbat tailerren ardura izango dute.

**IBAI ARTE** merkatarien elkarteko kide diren saltzaileek erakusleihoen aurrealdea apainduko dute.

**TISURI** animazio taldeak, kanpotik etorriko denak, hainbat kale ikuskizun egingo ditu: hala nola, musikari, antzezleak, saltinbankiak, dantzariak eta akrobatak etorriko dira, besteak beste.

**ORKESTRA GIZONA** kalez kale ibiliko da musika zuzenean jotzen.




**TABERNA** jarriko dute Naparbideak Nafarroako ekoizleen elkarteko kideek Seber Altube plazan bertako produktuekin: sagardoa, ardoa, gazta, eztia, likoreak, gozokiak eta beste.

**60 SALTOKI** jarriko dituzte Seber Altube, Herriko Plaza, Erdiko kalea eta Iturriotz kalea bitartean: denetariko jakiak eta artisauen bestelako lanak egongo dira ikusgai eta salgai.

**TAILERRAK** Seber Altuben umeendako jarriko dituzten tailerrez gain, helduei eta adin guztietakoei zuzendutako beste hainbat tailer jarriko dituzte mota askotako artisauek: egurrezko kateak, burdina eta beste.



UME ETA HELDUAK GUSTURA IBILIKO DIRA TAILERRETAN




HERRIKO ZEIN KANPOTIK ETORRITAKO KALE IKUSKIZUNAK IZANGO DIRA




Sarrera salmenta
SERVIKUTXA KUTXAZAIN-SAREA
943 00 12 00
www.kutxa.net
kutxa

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Jessie Evans
& Toby Dammit

Non: Arrasateko Amaia Antzokian
Noiz: Maiatzaren 18an, domekan, 20:00etan



Argazkian Doke antzerki taldekoek orain dela bi urte egin zuten ikuskizuna. Aurten ere kalean izango dira herriko antzezleak. GOIENKARIA

■ HERRIKO ELKARTEAK

# Herriko elkarte eta taldeen esku-hartzea areagotu dute

IKER BARANDIARAN

**Udalaren eta herriko elkarte askoren ardura zen bertakoen esku-hartzea areagotzea. Hala, kanpoko ikuskizun eta saltoki ugari ekarri beharrean, gurago izan dute herrian dauden baliabideak ahal den heinean erabili eta horiei aukera ematea.**

Udalak herriko hainbat kultura elkarte, Ibai Arte eta bestelako taldeekin lehenengo batzarrak egin zituenean, horietako ordezkari gehienek adostu zuten jai honetan herriko taldeen eta herritarren esku-hartzea areagotu behar zutela. Are gehiago, kanpotik saltoki eta ikuskizun ugari ekarri beharrean, gurago zuten bertakoa, herrikoa, indartzea eta horiei guztiei protagonismo handiagoa ematea.

Hala, aurreko urteko ildoari jarraituta eta modu baten indartuta, herriko hainbat taldek, bakoitzak, duen onena emango dio jaiari. Hala ere, udal gobernutik jakinarazi digute jaia presaka antolatu dutela, eta herriko talde gutxi batzuk dagoeneko konpromisoak zituztela.

**DOKE ANTZERKI TALDEA**

Aurten ere Doke antzerki taldeko kideak kalera irtengo dira. *Ezkontza* ikuskizuna eskainiko dute Iturriotz kalean, parrokiaren alboan. Hori zapatuan egingo dute, bi alditan, 19:00etan eta 20:00etan.

Trikitilariak ere kalera irtengo dira kalejiran, zapatu eguerdian. AEDk, berriz, *Erdi Aroko Mondragoe* izeneko bisita gidatua egingo du. Orain dela hilabete batzuk egin zuen lehenengo aldiz, eta oso harrera ona izan zuen.

**PORTALOIKOAK, KANTUAN**

Bestalde, Portaloi elkartekoek saltoki txiki bat jarriko dute Seber Altuben. Han ibiliko dira kantuan, eta argitaratu berri duten kantuen liburuxka eskuragarri izango da.

Aspaldi honetan herriko kultura elkarte horrek ahalegin berezia egin du kantuak berreskuratu eta batez ere herritarren artean abesteko ohitura berpizteko. Horretan dihardu.

**UMEEN TAILERRETAN, TXATXILIPURDI**

Arrasaten ez dago umeekin lan egiten eskarmentu handiagoa duen elkarterik Txatxilipurdi baino gehiago. Hala, Seber Altube plazan umeendako jarriko dituzten tailerretako batzuen ardura elkarte horretako kideek izango dute.

Horiez gain, kanpotik Tisuri animazio taldea etorriko da, musikariekin, antzezleekin, saltinbankiekin, hanka-paluekin, dantzariekin eta beste hainbat kiderekin.

**Portaloi elkartekoak kantuan ibiliko dira eta kantutegia eskura jarriko dute**

**Doke antzerki taldeak aspaldiko ezkontza irudikatuko du zapatu iluntzean**

**AEDk 'Erdi Aroko Mondragoe' izeneko bisita gidatua antolatu du**


arte
arrasateko tailaginen elkartea
ARRASATEKO UDALA
kultur ate
Non: Kulturaten
Noiz: Maiatzaren 9tik 25era arte
Ordutegia: asteartetik igandera, 17:30-20:30

OSPAKIZUNA > EUSKARAREN ASTEA

# Antzerkia, film laburrak, berbaldiak eta ipuin tailerra, Euskararen Astean

Maiatzaren 12tik 17ra ospatuko du Loramendi elkarteak Euskararen Astea, eta hilaren 17a izango da euskararen egun handia

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Umeak izan dituzte gogoan Euskararen Asteko antolatzaileek, eta hainbat ekitaldi eskaini dizkiete. Astelehenean, hilak 12, antzerkia egingo dute Algara ludotekako gaztetxoek, Kurtzebarri eskolan (17:30). Azken asteotan gogor dabiltza entseguetan, eta ilusio handiarekin gertatutakoa eskainiko dute.

Martitzenean, hilak 13, film laburren emanaldia egingo dute udaletxe zaharrean (21:30). Topagunearen film laburren zirkuituak hamar film ekarriko ditu gurera, tartean, Gentzane Agirre Onaindiaren *Unrest* eta *All about eves*, Koldo Almandozen *Columba Palumbus* eta Asier Mendozaren *Momorro*.

Eguaztenean eta eguenean berbaldiak izango dira protagonista: hizkuntza ekologiaren gainean jardungo du Amaia Anterok hilaren 14an (19:00), eta Euskal Herriak Bere Eskolako kide den Aiora Filarmendik *Auzolanean hezkuntza sistema naziona-la eraikitzen* izango du berbagai hilaren 15ean (19:00). Gainera, *Euskal Herriko emakumeen 12 pasarte* erakusketa egongo da eguenean udaletxe zaharrean (16:00-20:00), EHBEk antolatuta.

Eta egubakoitzean, hilak 16, Antton Irusta ipuin kontalariak eta Enrique Morente marrazkilariak ipuin tailerra egingo dute umeendako. Udaletxe zaharrean izango da ekitaldia (17:30).

**EUSKARAREN EGUNA, ZAPATUAN**

Euskararen Asteko egun handiena zapatua izango da, hilak 17. Ohitura den legez trikitilariak eta txalapartariak izango dira, hainbat baserritako gazta dastatzea eskainiko dute eta Iban Urdangarin eta Iker Zubeldia bertsolariek txikiteoan jardungo dute. Babarrun jana egingo dute Iturrigorri frontoian, eta arratsaldean Zirika Zirkus taldea izango dute ikusgai umeek (17:30). Larrain dantza eta Beinke Loramendi dantza egingo dituzte gero (19:00), eta gau partea Tapia eta Leturiak girotuko dute.



Zirika Zirkus taldeak umeendako antzerkia eskainiko du hilaren 17an. GOIENKARIA


Deisaotz baserri albotik pasatzen den bidegorrian dagoen zartadura. UDALA

INGURUMENA > BIDEGORRIA

# Urkuluko bidegorriak dituen zartadurak konponduko dituzte

Goroeta auzoko Deisaotz baserri inguruan zartadurak ditu, eta lurra behera egiten hasita dago; azterketa geoteknikoa egin dute zelan konpondu jakiteko

M.A. > ARETXABALETA

Urkulu urtegiari buelta ematen dion bidegorriak zartadurak ditu. Goroeta auzoko Deisaotz baserri alboan daude zartadurok, bat baserrira iritsi baino lehen eta bestea pasatu eta gero. Errepideko lurrak behera egin du, eta oinezkoen bidegorria apurtuta geratu da.

Udaleko Hirigintza Saileko teknikariak azaldu digunez arazoa aspaldikoa da. Izan ere, urtegia egin zutenean Deisaotz inguruko errepidea lurrez betetako hutsunearen gainean jarri zuten. Horregatik konpontzen hasi aurretik azterketa geoteknikoa egin dute harkaitza zenbat metrora dagoen jakiteko. Eta lurraren ezaugarriak aztertu dituzte eusteko zer egin erabaki eta behin betiko konpontzeko.

Azterketa geoteknikoa egiteko asmoa Udalak bazuen ere, azkenean, ur kontsortzioak egin du. Baina oraindik ez dute erabaki konpontze lanak zeini dagokion egitea: Udalari, Aldundiari edo ur kontsortzioari.

ANDRA MARI
Aholkularitza

Fiskala
Kontablea
Juridiko/laborala

2007ko ondare eta errenta aitorpenenerako epea zabalik

Andra Mari auzunea 3 ARETXABALETA Tel.: 943 79 29 26

**Saioa Baena** > Amazulo elkarteko kidea

# "Pelbisa indartzeko ikastaroa, bereziki, menopausia pasatzen dabiltzan emakumeendako da"



Amazulo elkarteko kide Saioa Baena. IKER BARANDIARAN

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

**Pelbisaren oinarria indartzeko ikastaroa antolatu du Loramendi EEk, eta Arrasateko Amazulo elkarteko Saioa Baenak emango du. Ekainaren 2an hasi eta uztailaren 21a bitartean izango dira eskolak, astelehenetan (18:30-20:00). Eta izenemate epea zabalik dauka Loramendi EEk maiatzaren 23ra arte. Bazkideek 30 euro ordaindu beharko dute, eta gainontzekoek 50 euro.**

**Amazulo elkarteko kidea zara; zer da Amazulo?**

Obstetrizia, ginekologia eta pelbisaren funtzioan espezializatutako hiru fisioterapeutak sortutako elkartea da.

**Emakumeendako da antolatutako ikastaroa, baina zelako emakumeendako?**

Parte hartu gura duen edonorendako, baina bereziki menopausia hasi edo pasatzen dabiltzanendako, umetokia edo puxika erauzita dutenendako, pixaren galerak dituztenendako eta erditu berri dauden emakumeendako –erditze osteko tratamendua.

**Zer erakutsiko duzue?**

Gure perineoaren funtzioa ezagutzen eta lantzen. Era berean, perineoaren aurka jokatzen duten hainbat faktore ezagutu eta prebenitu, eta ahal den neurrian disfuntzioak tratatu.

**Hobekuntza handia igartzen dute ikastaroa egindakoek?**

Orain arteko ikastaroek harrera oso ona izan dute. Kontzeptuak jaso eta ariketak egiten ikasten dute, eta aukera ematen diegu, fisioterapiako balorazio pertsonal bati esker, norberaren pelbisaren egoera zehazteko. Hala, taula pertsonalizatua ematen diogu bakoitzari. Kasu batzuek fisioterapia espezializatu baten beharra dute, hau da, banakako errehabilitazioa, eta nora jo gomendatzen diegu.

**Txizari ezin eusteari behar besteko garrantzia ematen diogu?**

Azken urteotan, besteak beste, pixoihalen publizitateari esker gaia normalizatzen dabil, baina lan handia dago egiteko oraindik. Hasteko, emakumeok ez dugu gai horren gainean erosotasunez berba egiten, eta ez dugu jakiten nora jo.

**"Gure perineoaren funtzioa ezagutzen eta lantzen erakutsiko dugu"**

**"Beharrezkoa den kasuetan egiten da ebakuntza, baina aurrez lan handia egin daiteke"**

**Askok pentsatuko dute arazoa ebakuntza samur batekin konpontzen dela orain.**

Behar-beharrezkoa den kasuetan egiten dute ebakuntza, baina, sarritan, horra heldu aurretik lan handia egin daiteke. Eta ebakuntza egindakoan ere fisioterapia ezinbestekoa da pelbisaren funtzioa landu eta indartzeko. Adibide bat jartzearren: esfortzuko inkontinentzia duten emakumeetan, %80 espezializatutako fisioterapiarekin konpon daiteke.

> AISIALDIA

### Arlutz osteko kantxan puzgarriak egongo dira bihar

Bihar, zapatua, Arlutz ostean dagoen kantxan gaztelu puzgarriak jarriko dituzte umeendako (11:00-13:00).

Herriko merkataritza sustatzea du helburu *Jendea non, giroa han. Aretxabaleta bizirik* leloa duen egitasmoak, eta puzgarriak antolatzen dituzte hileko zapatu baten.

> KONTZERTUA

### Landarbaso abesbatzaren kontzertua bihar

Errenteriako Landarbaso abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar parrokian (20:00). Hainbat sari eskuratu dituen abesbatza da; iaz, esaterako, Kaliforniako Nazioarteko Lehiaketan bigarren saria jaso zuen folklore sailean eta derrigorrezko obren modalitatean hirugarrena.

> ERLIJIOA

### Jaunartzeak ospatuko dituzte 30en bat umek bihar eta etzi

Lehenengo jaunartzea ospatuko dute herriko hainbat neska-mutikok aste bukaeran. Izan ere, 30en bat dira, batzuek bihar zapatua egingo dute (12:30) eta beste batzuek domekan (12:30). Jesus Ortiz de Urbina parrokoa izango dute gidari ospakizunetan.

> IZENEMATEA

### Movie Maker programa erabiltzeko ikastaroa egingo dute

Pelikulak muntatzeko programaren gaineko ikastaroa antolatu du Loramendi Euskara Elkarteak. Ekainean egingo dute, 2an, 3an, 9an eta 10ean, baina dagoeneko zabalik dago izena emateko epea, hilaren 23a arte. Horretarako Loramendi EEra deitu behar da (943 77 09 70). Debalde da.

**HEZKUNTZA** > LITERATURA ASTEA

# Bikoizketaren sekretuak ikasten

## Bikoizketaren gaineko ikastaroa egin dute DBHko ikasleek Beatriz Zabalondo gidoigilearekin

Japoniako marrazki bizidunei ahotsa sartu diete ikasleek, eta ez dela batere samurra frogatu dute


Beatriz Zabalondo, DBHko ikasleekin lanean. KURTZEBARRI ESKOLA

M.A. > ARETXABALETA

Orain dela aste batzuk hasitako Literatura Asteari bukaera eman diote Kurtzebarri eskolan. 3 eta 16 urte arteko ikasle guztiek landu dituzte literaturaren gaineko kontuak, eta DBHkoek *Hizkuntzaren autokontzientzia* izeneko ikastarotxoarekin bukatu dute.

Gidoiak bikoizten 24 urte baino gehiago eman dituen Beatriz Zabalondo Huheziko irakaslearen eskutik jaso dute ikastaroa, hain zuzen estreinatu berri den *Un poco de chocolate* filma euskarara itzuli duen bikoiztailearen eskutik. "Lehenengo, gidoien irakurketa egin dugu, erregistroaren arabera zelan irakurri jakiteko –pozik, haserre, triste…–, eta gero filma jarri dugu", azaldu digu Elustondok. Japoniako marrazki bizidunak jarri dizkiete ikasleei ikusteko, eta horiei ahotsa sartzen saiatu dira: "Irakurtzen dena pertsonaiak berba egiten duen denboran sartu behar da, eta, gainera, pertsonaiaren egoerara moldatu beharra dago tonua", dio Elustondok. Ikasleek gustura jarraitu dute ikastaroa, eta frogatu dute ez dela batere samurra bikoizketa lana.

**ENTZUTEKO OHITURARIK EZ**

Elustondo elgetarraren esanetan, ikus-entzunezkoen kasuan ikusteari bakarrik ematen diogu garrantzia gaur egun, eta ez entzuteari: "Entzuteko ohitura galdu dugu, eta entzundakoak hiztun hobeak egiten gaitu, baita irakurle hobeak ere. Arlo akademikoari ematen diogu garrantzia, baina hizkuntzaren garrantziaz jabetu beharra dago, oso garrantzitsua delako hizkuntzaren oinarria".

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

**ETXEBIZITZAK** > KASABLANKA-HEGOA GUNEA

# Kurtiderixako etxeetarako izenemate bulegoa astelehenean zabalduko dute

Foruen plazako 7. zenbakiko bulegoa maiatzaren 31ra arte egongo da zabalik

Lau kupo bereiztuko dira Kurtiderixako 48 etxebizitza tasatuen zozketan



**BULEGOA** Erregistroa egiteko, Foruen plazako 7. zenbakiran dagoen bulegora joan beharko dute interesatuek. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Datorren astelehenean, hilak 12, zabalduko dute Kurtiderixan egingo diren 48 etxebizitza tasatuak eskuratu ahal izateko izena emateko bulegoa; hain zuzen ere, Foruen plazako 7. zenbakiko beheko solairuan. Informazio gehiago eskatzeko edo zalantzak argitzeko, 943 03 88 38 telefonora dei daiteke.

Bulegoa astegunetan egongo da zabalik: astelehenetan, 10:00etatik 12:00etara; martitzenetan, eguenetan eta egubakoitzetan, 12:00etatik 14:00etara; eta eguaztenetan, 16:00etatik 18:30era. Plazako bulegoa maiatzaren 31ra arte egongo da zabalik, eta, bitartean, Otadui Zuhaiztiko 12-A, 12-B, 16-A, 16-B, 18-A eta 18-B zenbakietan, etxebizitza horiek eskuratu nahi dituzten eskariekin erregistro bat egingo dute.

Kurtiderixako etxebizitza tasatuak eskuratu gura dituztenek Udalak zehaztutako hainbat baldintza bete behar dituzte. Adibidez, Oñatin erroldatua egotea ez da derrigorrezkoa, baina erroldatuek zozketan lehentasuna dute. Baldintza ekonomikoei dagokienez, 2006. urteko diru-sarrerak hartuko dira kontuan: hain justu, 27.000 eta 54.165 euro artekoak izan behar dira. Gainera, etxebizitzaren titular-kide guztien diru-sarrerak hartuko dituzte kontutan azken zenbatekoa egiteko. Bestalde, etxe tasatuak eskuratzeko eskaera egin duten lagunek ezingo dute beste etxerik izan jabetzan azken bi urteotan, Espainiako Estatuan.

**ZOZKETA, LAU KUPOTAN**

Kurtiderixako eremuan eraikiko diren 48 etxeak lau kupotan zozketatuko dituzte. Alde batetik, ezgaitasunen bat edo mugikortasun arazoak dituzten eskatzaileen artean etxe bat zozketatuko da. Beste alde batetik, hiru semealaba edo gehiago dituztenen artean hiru etxe zozketatuko dituzte. Beste hiru etxe banatuko dira Etxebideko zerrendan lau urtez edo gehiagoz izena emanda duten eskatzaileen artean. Azkenik, gainerako 41 etxeak kupo orokorrean zozketatuko dituzte. Gainera, lehenengo etxeen zozketa Oñatin erroldatuta egotearen baldintza betetzen dutenen artean egingo dute, eta adjudikatu bariko etxeak gelditu gero, baldintza hori betetzen ez dutenen artean zozketatuko dituzte. Dena den, kupo bakoitzean etxebizitza barik geratzen direnek bigarren aukera izango dute, kupo orokorreko zozketan.

**2010ERAKO, BUKATUTA**

Kasablanka-Hegoa izeneko gunean eraikiko dituzten etxe tasatuek 81 eta 106 metro koadro arteko azalera izango dute (ikus ondoko taula), eta prezioak, 184.800 eta 235.572 euro artekoak. Gainera, etxe guztiak garajearekin saldu-ko dira, eta garaje guztiek prezio bera izango dute: 18.570 euro. Etxearen eta garajearen prezioari %7ko BEZa gehitu behar zaio. Era berean, bai etxeak eta baita garajeak ere 'babestutako etxebizitza' kalifikazio iraunkorra izango dute. Hortaz, besteren bati saldu nahi izanez gero, prezioa ezingo da behin-behineko kalifikazioan finkatutakoa baino handiagoa izan. Gainera, Udalak izango du etxeak lehentasunez erosteko eskubidea.

Aikia SL enpresak eraikiko dituen 48 etxe tasatuekin batera, merkatu prezioan salduko diren beste 12 etxebizitza eraikiko ditu. Hasieran zehaztutako epeak betetzen badira, 2010 urte hasierarako bukatuko dituzte.

## Etxe tasatuen azalerak eta prezioak

| ETXEBIZITZA | AZALERA | ETXEA | GARAJEA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Beheko solairua | 81,25 m$^2$ | 184.800 € | 18.570 € | 203.370 € |
| Beheko solairua | 81,60 m$^2$ | 190.962 € | 18.570 € | 209.532 € |
| Beheko solairua | 89,00 m$^2$ | 203.802 € | 18.570 € | 222.372 € |
| 1., 2. eta 3. solairuak | 93,95 m$^2$ | 209.267 € | 18.570 € | 227.837 € |
| 1., 2. eta 3. solairuak | 99,75 m$^2$ | 223.107 € | 18.570 € | 241.677€ |
| 1., 2. eta 3. solairuak | 106,35 m$^2$ | 235.572 € | 18.570 € | 254.142 € |

OHARRA: PREZIOEI %7KO BEZA GEHIATU BEHAR ZAIE.
ITURRIA: OÑATIKO UDALA.

> ERRETIRATUAK

### Bazkarirako eta irteerarako sarrerak salgai maiatzaren 14tik

Pake Lekuk maiatzaren 26tik ekainaren 1era ospatuko duen Erretiratuen Asterako iragartzen dituen hainbat ekitaldietarako sarrerak salgai jarriko dituzte, maiatzaren 14an hasita. Alde batetik, maiatzaren 30ean, Arrikrutzera egingo duten irteerarako txartelak jaso ditzakete elkarteko ekintza gelan, hiru eurotan. Beste alde batetik, ekainaren 1eko bazkarirako txartelak 10 eurotan salduko dituzte. Era berean, maiatzaren 26an eta 28an egingo diren txokolate janerako eta San Martinera egingo duten irteerarako txartelak aldez aurretik jaso behar dituzte. Sarrera guztiak maiatzaren 14tik 20ra egongo dira salgai erretiratuen elkartean, 18:00etatik 20:00etara.

> HITZALDIA

### Adimen emozionalari buruzko berbaldia antolatu dute

Adimen emozionalari buruz martitzenean, kultura etxeko zine aretoan, 18:30ean emango duten hitzaldia, Udaleko Gizarte Zerbitzuek, eta Elkar Hezi, Txantxiku Ikastola eta Errekalde Herri Eskolako gurasoen elkarteek antolatu dute. Hizlaria, Syscom Trining Systems-eko zuzendari Jose Antonio Gonzalez izango da

Bestalde, emakumeendako autoestimu tailerra atzeratu da. Hala, maiatzaren 19an hasiko da. Silvia Camino psikologoak autoestimua altxatzeko aholkuak eta teknikak azalduko ditu. Tailerra 12 ordukoa izango da, maiatzaren 19an, 23an, 26an eta 29an, eta ekainaren 2an eta 6an. Hamabost lagunendako tokia dago, eta izena Gizarte Zerbitzuetan eman behar da.

**JAIAK** > DOMEKARA ARTE

## Show Businessen emanaldia San Migel Txikitan, gaur

Governors eta SanLo Garage Brothers taldeekin joko dute, gaueko hamarretan hasita

**M.B.** > OÑATI

Gaur hasten diren San Migel Txiki jaietan, Show Business taldeak grabatutako *Eter del demonio* diskoko kantak ezagutzeko aukera izango dute entzuleek, Governors eta SanLo Garage Brothers taldeekin batera, 22:00etan egingo duten emanaldian. Aurretik, jaiak hasteko, ardo eta gazta-dastatzea, txorimaloak eta garagardo festa egingo dituzte.

Zapatuan, 16:30ean, Unibertsitate aurrean, haur parkea egingo dute, eta 18:00etan, Alberto Arregiren omenezko futbol txapelketako finala jokatu dute. Bestalde, txosna gunean, taloak, txorizoa eta sagardoa dastatzeko aukea egongo da. Gauean, musikaz gozatzeko hiru aukera egongo dira: Tapia eta Leturiren erromeria, DJ Kirrinen emanaldia Iturri tabernan edo Rock Privadoren kontzertua Harripen.

Azkenik, domekan, auzoko emakumeen bazkaria, Oñatz taldekoen emanaldia eta film laburren emanaldia iragartzen dituzte, besteak beste.

> DEIALDIA

### Arrasate-Oñati lasterketarako laguntzaileak

Laixan Elkarteak bihar jokatuko den Arrasate-Oñati lasterketarako laguntzaileak behar ditu. Hain zuzen, bidegurutzeak zaintzeko boluntarioak. Interesatuek Laixanera deitu beharko dute.

> KONTZERTUA

### Azpeitiko Abesbatzak emanaldia egingo du bihar

Oñati Abesbatzaren gonbidapena onartu ondoren, Azpeitiko Abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar, 20:00etatik aurrera. Hain zuzen, agustindarren elizan emango dute emanaldia.

**HIRIGINTZA** > SAN JUAN KALEKO LANAK

# Bolibarko bide zaharra hiru bat astez itxiko dute

San Juan kaleari dagokion bidegorriaren zatia egiteko, Bolibarko bidea itxi egin dute

Bidegorriaren zatia eginda, San Juan kaleko lanak bukatutzat eman ahal izango dituzte laster



Bolibarrera gora eta behera egiteko, bide alternatiboa eraiki dute egunotan. IKER BARANDIARAN

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Bolibarko bidea atzotik (eguena) moztea zen helburua, eta jakinarazi dutenez hiru bat astez egongo da itxita. Modu horretan, San Juan kalea batetik eta Aingeru Guarda eta Sorautz bitarteko bidegorria bestetik batzen dituen puntuan lan bereziak egiten hasiak dira dagoeneko.

Arrazoia da San Juan kalea konpontzen duten bitartean, bidegorriko tramuari dagokion zatia ere egitea, puntu berean denbora laburrean lanak birritan ez egitearren. Udalak lan hori aurreratzeko eskatu zion Aldundiari, eta azken horrek onartu egin zuen. Hortaz, Sukia enpresak egingo du lan hori eta Aldundiak osorik finantzatuko du.

**BOLIBARRERA BIDE ALTERNATIBOA**
Bitartean, Bolibar auzora gora eta behera egiteko bide alternatiboa jarri berri dute, hainbat aukera aztertu ondoren. Hain zuzen ere, San Juan kalea itxita, bidea bi noranzkoetan guztiz oztopatuta egongo litzateke, eta horri irtenbidea eman gura izan diote. Astelehen honetan bukatu dute bide alternatiboa, eta dagoeneko erabilgarri dago.

**GARAJEAK, UREZ BETE**
San Juan kaleko eta Aingeru Guarda-Sorautz tramuko lanekin lotuta, astelehenean inguru horretan lanean zebilen makina hondeatzaile batek ur hornidurako hodi bat jo eta zulatu egin zuen. Horrek uholde txiki bat eragin zuen Hidalga kalearen atzealdean. Urak gainezka egin zuen, eta ingurune horretako hainbat garaje urez bete zituen.

argazki zaharra



## Santikurtz eguna ospatzen

Argazki hori Atxorrotzen egina dago, 1950eko maiatzaren 7an. Argazkian agertzen den lagun taldea Santikurtz eguna ospatzera joan zen, erromeriara. Buruz behera dagoena Satur Arregi da, eta ezkerretik hirugarrena Inazio Uribesalgo. Besteen izenak ez dakizkigu.
**Argazkia:** Inazio Uribesalgo.
**Testua:** Inazio Uribesalgo.
**Urtea:** 1950.

**KULTURA** > IKASLEEN EKINTZAK

# Kultura hamabostaldia ospatu dute azken asteotan Arizmendiko Almen gunean

Almen guneko ikasleek Liburuaren eta Lurraren nazioarteko egunarekin, biekin, lotutako ekintzak egin dituzte



Argazkian, LMHko ikasle bi, antzararen jokoan. ARIZMENDI

**I.B.** > ESKORIATZA
Apirilaren 21ean hasita eta gaur (egubakoitza) arte kultura hamabostaldia egin dute Arizmendi ikastolako Almen gunean. Hala, Liburuaren Nazioarteko Eguna eta Lurraren Nazioarteko Eguna, biak batu dituzte.

**EKINTZA UGARI**
Ikasleek urtean irakurritako liburu eta ilustrazio gustukoenak aukeratu dituzte eta emaitzak jendaurrean jarri dituzte.

Lurraren Egunaren harira, berriz, dokumentalak ikusi dituzte eta ikasleen artean lazo berdeak banatu.

Bestalde, hainbat taldek antzararen jokoa egin dute (argazkian), eta, taldeka, ipuinei hasiera eta amaiera eman diete.



**OSPAKIZUNA** > AITZORROTZ KULTURA ELKARTEA

# Ekitaldi ugari dago bihar, Aitzorrotz kultura elkartearen eguna ospatzeko

Egun osoko eta adin guztietarako ekitaldiak egingo dituzte bihar: umeen txokoa, kontzertu akustikoak, kalejirak, herri bazkaria...


Argazkian, joan den urtean kultura elkartearen egunean egin zuten herri bazkaria. GOIENKARIA

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Biharko, zapatua, Aitzorrotz kultura elkarteak egun berezia antolatu du. Elkarte horrek urte asko darama herrian lanean, eta azken bizpahiru urteotan ekintza asko egiten dihardute. Hala, zapatuan elkartearen eguna ospatuko dute. Elkartearen helburua da herriko kultura dinamizatzea eta euskarari bultzada ematea.

**EGUN OSOKO EGITARAUA**

11:00etan txupinazoa jaurtiko dute egitarauarekin hasteko. Eta 12:00etarako herritarrek kalera irteteko gonbidapena izango dute, Eskoriatzako txistularie-kin kalejira izango da-eta. 13:30ean, berriz, bertso poteoa egingo dute Andoni Otamendi eta Egoitz Alkortaren laguntzarekin; eta jarraian, 14:30ean, herri bazkaria egingo dute plazan. Umeendako eta helduendako menuak prestatuko dituzte, 9 eta 15 eurotan hurrenez hurren. Helduek baba-jana izango dute; eta txikienek makarroiak eta oilaskoa. Txartelak salgai daude Inkernun, Gozo-Txikin eta Cipris tabernetan.

**EKITALDI NAGUSIAK**

Bazkalostean, ekitaldi nagusiak egingo dituzte: Andoni Otamendi eta Egoitz Alkorta bertsolariek emanaldia egingo dute; umeen txokoa jarriko dute; Aretxabaletako dultzaineroekin kalejira izango da; eta Villabonako Lain eta Arrasateko ain_1 musika taldeek eta Iruñeko Fermin Balentzia bakarlariak kontzertua egingo dute.

**GAUEAN, ROCK KONTZERTUA**

Gauean, berriz, rockaren txanda izango da. 22:30ean, Inkernu tabernan, bi talde izango dira: Eskoriatzako S-Covers talde berriak Dictators, Ramones, Gluecifer, Hertzainak eta Delirium Tremensen kantuak joko ditu; eta horren ostean, Berrizko Sei Urte taldeak hartuko du Inkernu tabernako agertokia. Sei Urte taldeak ibilbide luzea dauka euskarazko pop-rocka egiten.

**OSPAKIZUNA** > LOREEN EGUNA

# Loreak eskuratzeko eta trukatzeko aukera zapatuan

Herriko hainbat dendarik laugarren aldiz antolatu dute Loreen Eguna

**I.B.** > ESKORIATZA

Bezeroen konfiantza eskertzeko ekimena da Loreen Eguna. Hala jakinarazi digute antolatzaileetako batzuek. Aurtengoa egiten duten laugarren aldia da, eta herriko plazan loreen postu handi bat jarriko dute 09:30etik 14:00etara bitartean.

Hala, astelehenetik gaur arte (egubakoitza) herriko 24 negoziotan bezeroei txartelak banatzen dihardute. Herritarrek txartel horiek landareengatik trukatu ahal izango dituzte zapatuko goizeguerdian.

Guztira 2.500 txartel atera dituzte eta aurreko urteetan 2.000 bat landare banatu izan dituzte.

Merkatariek jakinarazi dute txartelak ez dituztela egindako gastuaren arabera banatzen; hain zuzen ere, bezero guztiei ematen dabiltza, gastua txikiago edo handiago izan.

Bestalde, Usurbilgo Urtinea negozioak jarriko duen postuan aukera izango da landareak txartelengatik trukatzeko, eta baita bestelako landareak erosteko ere. Herriko plazan jarriko dute postua, ohiko duten lekuan.

**JAIAK** > LEHIAKETA

# San Pedrotako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du Udalak

**I.B.** > ESKORIATZA

San Pedro jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketan edozein pertsonak esku hartu ahal izango du, eskoriatzarra zein kanpotarra izan; eta aurkeztutako irudiak 15 zentimetro luze eta 25 zentimetro zabal izan beharko ditu. Erabilitako teknikari dagokionez, librea izango da.

Horrez gain, Udaleko Kultura batzordeak jakinarazi du irudiek derrigorrez honako testua eraman beharko dutela: *2008ko Sanpedruak. Eskoriatza,* eta irabazleek 300 euroko saria jasoko dutela.

**HILAREN 30ERA ARTE**

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 30ean bukatuko da, eta interesatuek udaletxera zein kultura etxera eraman ahal izango dituzte lanok.

Udaleko Kultura batzordeko kideek aproposa ikusten badute, aurkeztutako irudi guztiekin erakusketa egiteko eskubidea daukate.

((112))
SOS DEIAK



FAGOR
Fagor Ederlan, Elk. Koop.
Torrebaso pasealekua 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
Tel.: +34 943 71 90 00
Faxa: +34 943 71 90 01
MONDRAGON

> PILOTA

## Bihar hasiko da Olaldek antolatutako herriko txapelketa

Eskuz binakako herriko txapelketak hamargarren aldia du aurtengoa, eta hamar bikotek eman du izena. Lehen faseko lehenengo partiduak zapatu honetan jokatuko dituzte eta gainontzekoak ere zapatu goizetan 18 tantotara Lehen faseko azken saioa ekainaren 7an izango da.

### Partiduak

**Maiatzak 10, zapatua**

09:00
M. M. Jauregi-M. Larrañaga/ A. Aranburu-I. Irizar
09:45
J. Agirre-E. Iturbe/ B. Ormazabal-J. M. Iturbe
10:30
I. Agirre-I. Zabalo/ J. Lezeta-J. J. Aranburu
11:15
L. Larrea-J. Aranguren/ A. Guridi-J. Urtzelai

> HITZALDIA

## Landareak eta arbolak izango dira hizpide San Isidro egunean

San Isidro egunean, hilaren 15ean, hitzaldia egongo da Olaranen 18:30ean. Basogintzaz, inausketaz edo poda forestalaz, gaixotasunez eta landatzeko espezieen aukeraketarako irizpideez jardungo dute. Hizlariak izango dira Gebe elkarteko teknikari Iñaki Azurmendi eta Jone Maioz.

> IRTEERA

## Getariara joango dira erretiratuak maiatzaren 21ean

Erretiratuen elkarteak egun erdiko irteera antolatu du hilaren 21erako. Getariara joango dira eta gidari batekin herria bisitatu ostean, merienda egingo dute Loiolako Uranga hotelean. Izen-ematea hilaren 15ean edo 16an egin behar da lokalean 18:00etatik 19:00etara eta 11 euro ordaindu.

**UDALA** > OHIKO UDALBATZARRA

# Terrazendako araudi berria onartu dute

Udalbatzarrean erabaki zuten ostalariei jakinaraztea, besteak beste, zein diren arau hausteen ondorioz jaso ditzaketen isunak

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Eguaztenean ohiko udalbatzarra egin zuten udaletxeko areto nagusian, eta askotariko gaiak izan zituzten mahai gainean.

Aho batez onartu zuten zinegotziek Antzuolako Udal Etxegintzari Eguzki auzoan kokatutako udal lur zatia besterentzea. Gune hori da, hain zuzen ere, sustapen publikoko etxebizitzak eraikitzen dihardutena. Udal ordezkariek besterentzea onartu badute ere Foru Aldundiaren baimena behar da orain, eta lanak amaitu arren, baimena eman artean ezin zaizkie etxeak jabeei eman.



Terrazek bete dezaketen azalera ere zehaztuko dute. I.A.

**ISUNAK**

Ostalaritza guneetako terrazen ordenantza moldatzeaz ere jardun zuten eta aldaketak aho batez onartu zituzten. Aldaketak, besteak beste, isunen gainekoak dira. Arau hauste txikiengatik 300 euro ordaindu beharko dira eta larriengatik 900 euro. Orain, ostalariei jakinaraziko diete arauen eta bakoitzari terrazak ipintzeko dagokion eremuaren berri.

Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren EAEko ibaiak eta errekak antolatzeko Lurralde Arloko Planaren Aldaketa delakoari Debagoieneko Mankomunitateak egindako alegazio proposamenak hainbat zalantza sortu zituen gaiaren konplexutasuna dela-eta baina onartzea erabaki zuten denek.

Torresoroako Gizarte Etxearen erabilera eta kudeaketa eta material tekniko, altzari eta ekipamendua kontratatzea ere onartu zituzten.

Bestalde, adostu zuten Kontseiluarekin elkarlanerako proposamena egitea besteak beste Udaleko euskararen erabilera neurtzeko eta hobetzeko.

**HIRIGINTZA** > BEHEKO AUZOA

# Marrak margotu dituzte Beheko auzoko bi etxebizitza blokeen arteko gune batean

Gidariek maniobrak errazago egitea eta autoak auzoan hobeto aparkatzea da aldaketa horren helburua

**I.A.** > ANTZUOLA

Beheko auzoan, orain dela bi hilabete inguru, obrak egin zituzten. Orduan, ibilgailuen zirkulaziorako norabide bakarra ipini zuten, goitik beherakoa, auzo guztian, hasi Maristetako bidegurutzetik eta Uzarragako bidegurutzeraino, hain zuzen ere. Izan ere, ordura arte bi norabidetan ibil zitezkeen autoak Beheko auzoan.

**APARTEKO ERAGINIK EZ**

Orain, ordea, aldaketa txiki bat egingo dute. Ibilgailuen maniobrak erraztea eta gidariek hobeto aparkatzea da aldaketaren helburua. Beheko auzoko etxe bien artean marrak margotu dituzte gune batean horretarako. Aldaketak ez du beste eraginik izango ez bizilagunengan ezta gidariengan ere; aparkaleku kopurua ere apenas gutxituko da.

**bere ustez**



Ainhoa Ugarteburu

## Telebistaren aurrian jarrita

Hemen, Irlandan, gehingua ez da arduratzen asko politikaz edo gai sozialetaz. Irlandesak *The X Factor* telebistako saiuaz arduratzen die gehienetan.

Badakit etxian be antzera dala. Baina badago Euskal Herrixan beste "bihar" bat, beste borondate bat, hobetu biharko litzakeena, ikusi eta horren inguruan lan eitteko.

Bai, bai, esango dostazue, gauzak asko aldatu diela. Orain dala hogei urte bai mugimendu soziala, gaur ez dago ezebez. Gero eta indibidualistaguak gara... Posible da, baina ez gara oraindik Irlandako indibidualismora iristen.

> **"Gero eta indibidualistauak izan arren, ez gara iristen Irlandako indibidualismora"**

Oindio grina, gauzak eitteko gogua dago. Asoziazioetatik edo taldeetatik sortzen die, enpresa pribatutatik baino. Adibide bezala, Dublingo emakumien maratoi erdixa *Flora* etxiak antolatzen dau, ez antolatzen lagundu, baizik antolatu.

Grina horrek gorabeherak eukitzen dittu. Beti ez da erraza izaten. Baina beti dago prest bateron bat lan hori eitteko.

Gizartian beste kolore bat dauka, dinamikuagua, kritikuagoa. Eta auzolanerako hobeto prestauta dago, aldaketarako esperantza mantetzen dau.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatu eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

**INGURUMENA** > ASTE BERDEA

# Aste Berdea egingo du Udalak datorren astean

I. Elgetako Aste Berdean, uraren erabilera arduratsua bultzatzeko ekimenak egingo ditu Udalak, eta era eraginkor eta ekonomikoan gidatzeko ikastaroa egingo du RAC erakundeak

**LARRAITZ ZEBERIO**> ELGETA

Astelehenetik domekara bitartean, hilaren 16tik 23ra, Aste Berdea egingo du Elgetako Udalak. Lehenengo Aste Berdean uraren kontsumo arduratsuak izango du protagonista. Eskolako umeak uraren gaia lantzen ari dira Agenda 21 programaren barruan, eta eskolan egindakoak kalera aterako dituzte erakusketa baten bitartez herritarrek ikus ditzaten.

**EKO-ERREDUKTOREAK OPARI**

Uraren kontsumoaren gaineko *Tantaka Tantaka aurreztu ura* izeneko liburuxka banatuko du egunotan Udalak etxez etxe. Bertan, kontsumoa txikitzeko gomendioak jasotzeaz gain, bete beharreko kupoi bat aurkituko dute herritarrek; horren truke, etxeko iturrietan jarriz gero ur kontsumoa txikitzen duten hiru eko-erreduktore edo difusore eskuratuko dituzte elgetarrek. "Lehenengo, Aste Berdean uraren gaia landu nahi izan dugu", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Ur kontsumoa jaistea posiblea dela erakutsi nahi diegu herritarrei".

**EKONOMIKOKI GIDATZEA**

Hilaren 17an, zapatua, era eraginkor eta ekonomikoan gidatzeko ikastaroa egingo du RAC erakundeak Aste Berdearen barruan. Autoek kontsumitzen duten erregaia %20 murriztu daiteke, eta hori lortzeko gomendioak emango dituzte. Interesatuek udaletxean aurkituko dituzte argibide gehiago.

**AISIA** > KIROLA

# Bihar, eskola umeek atletismo jardunaldia egingo dute

**L.Z.** > ELGETA

Elgetako Udalak eta Egokik antolatuta, bihar, zapatua, atletismo jardunaldia egingo dute 6-12 urte bitarteko gazteek.

Bolatokian elkartuko dira, 12:00etan, hainbat atletismo proba egiteko: altuera eta luzera saltoa, pisu eta xabalina jaurtiketa, 50 metroko lasterketa eta 50 metroko hesi-lasterketa. Antolatzaileek bi taldetan banatuko dituzte gazteak: 6-8 urte bitartekoak alde batetik eta 9-12 urte bitartekoak bestetik. Herrian berriki egindako kros txapelketak arrakasta izan zuen, eta errepikatzea nahi dute antolatzaileek.



Martxoan egindako saioan 27 umek hartu zuten parte. L.Z.

**MENDI BIZIKLETA IRTEERA**

Udalak eta Egokik mendi bizikleta irteera antolatu dute hilaren 18rako, domeka. Errege Bardea (Nafarroa) aukeratu dute 40 kilometro eta zailtasun ertaineko ibilbidea egiteko. Izenematea zabalik dago hilaren 16ra arte. Bidaia autoetan egingo dute.

Azkenik, gogora ezazue zabalik jarraitzen duela hilaren 15era arte kirolean lehenengo laguntzak emateko oinarrizko ikastaroan izena emateko epeak.

# Intxortako Atea garbitzen jardun dute asteon

Mineralez osatutako hareazko txorroekin garbitu dute Intxortako Atea. Altzairuzko eskultura oxidatu ostean bernizatzaile bat aplikatu diote. Lanak egin dituen enpresako arduradunen esanetan, atzera ere pintadak egiten badizkiote ur zorrotada nahiko izango da eskultura garbitzeko. Lanok 4.000 eurotik gorako aurrekontua dute.



**ONGIZATEA** > IKASTAROA

# Adineko pertsonak zaintzen dituztendako hitzaldiak

Hilaren 26tik 30era egunerokoan lagungarri izango diren bost hitzaldi egingo dituzte

**L.Z.** > ELGETA

Mendekotasuna duten adineko pertsonak zaintzen dituzten elgetarrendako hainbat prestakuntza ikastaro egingo dituzte maiatzeko azken astean. Sendian programaren barruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Elgetako Udalak eta Matia Fundazioko Institutu Gerontologikoak antolatutako ekimena da *Zure nagusiak maite dituzunez hobeto zaintzen ikasi* izeneko jardunaldia. Medikuntzan, psikologian, legean eta gizarte arloetako gaietan adituak direnek emango dituzte hitzaldiok. Laguntza teknikoak eta Udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuen bidez urte osoan zehar eska daitezkeen laguntzak ere hizpide izango dituzte.

**ARGIBIDEAK UDALETXEAN**

Hitzaldiok maiatzaren 26tik 30era egingo dira Elgetako kultura etxean, 15:00etatik 17:00etara. Informazio gehiago jaso eta bertan parte hartzeko eskaera orria bete nahi duten herritarrek Udaleko gizarte zerbitzuetara jo behar dute.

**UDALA** > HERRITARREN FOROA

# Herritarren Foroa deituko du Udalak gutxi barru

Besteak beste, agintaldiko plana egiteko eta Agenda 21 lantzeko deituko du

**L.Z.** > ELGETA

Oxel Erostarbe alkateak jakinarazi du Udala Herritarren Foroa deitzeko asmotan dabilela. "Pentsatzen dugu agintaldiko plana egiterakoan herritarren ekarpenak kontuan hartu behar ditugula, eta Herritarren Foroa deituko dugu horretarako". Alkateak esan du lehenik lantalde bat osatuko dutela udaletxeko alderdi politikoekin, "proiektua elkarrekin aurrera eramateko".

Herritarren Foroa nola egituratu eztabaidatuko dute bertan ekainetik aurrera.

> ERRETIRATUAK

## Zezilio Totorikaguenak jarraituko du erretiratuen elkarteko presidente karguan

Erretiratuen elkarteko batzordean ez da aldaketarik izango. Zezilio Totorikaguenak jarraituko du presidente karguan. Presidenteordea Pedro Mari Ubera izango da, idazkaria Guadalupe Ibarbia eta diruzaina Joakin Gastesi. Mertxe Elorriaga, Nati Arrieta eta Irene Bolinaga dira gainerako batzordekideak.

> OSPAKIZUNA

## Domekan, hilaren 11n, urteroko bazkaria egingo dute Ozkarbin elkartearen eguna dela-eta

Urtero legez, Ozkarbi Eguna egingo dute maiatzean elkarteko bazkideek. Bazkaria egingo dute domekan, hilak 11. Trikitilariekin egingo dute poteoa eguerdian eta ohiturari jarraipena emanez zuzendaritza batzordeko kideek egingo dituzte zerbitzari lanak bazkaritan. Manu Sarasuak gertatuko du menua.

> HITZALDIA

## Baserritarren elkarteak antolatuta hitzaldia egingo dute martitzenean kultura etxean

Jakoba Errekondo garapen teknikari usurbildarrak landareen bizimoduari buruzko hitzaldia egingo du martitzenean, hilak 13, Elgetako kultura etxean. Besteak beste, baratzeak, loorategiak eta basoak izango ditu hizpide, 18:30ean hasita. Xehetasun ugari emateaz gain, herritarren galderak ere erantzungo ditu.

**UDALA** > PLAN OROKORRA

# Plan Orokorra ondo zehaztu nahi dute, eta atzeratu egingo da apur bat

Herritarrei Plan Orokorraren nondik norakoak azaltzen aritu da Udala azken hilabete hauetan

Uste zuten baino traba gehiago aurkitu dituzte eta plana ondo zehaztu nahi dute aurkeztu aurretik

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Joan zen agintaldiko udalbatzak Plan Orokorraren aurreproiektua eginda zeukan arren, udalbatza berriak hura bertan behera utzi eta berria lantzea erabaki zuen. Aurreproiektua bukatu dutenean, herritarrei euren planen berri eman diete. Azken hilabete hauetan auzoz auzo aurkeztu dute plana eta herriko elkarte eta sentsibilitate desberdinetako pertsonekin bildu dira.

Asier Agirre alkateak azaldu du denetariko iritzi eta balorazioak jaso dituztela eta horiei erantzuna ematen saiatu behar dutela orain.

**HERRITARREN KEZKAK**

Aramaion zaharren egoitza baten beharra izan da herritarren kezka nagusietako bat. Baita emergentzietarako gune baten beharra ere. Izan ere, zerbait gertatuz gero Oñatiko edo Gasteizko suhiltzaileek joan behar dute Aramaiora, eta, hala, bidean denbora luzea galtzen da. Industrialde bat ere eskatzen dute herritarrek, herriko enpresak bilduko dituena.

Etxebizitzei dagokienez, babes ofizialeko edo etxebizitza tasatuak egiteko beharra azaldu dute aramaioarrek. Auzoetan bizi direnek, berriz, euren semealabek auzoan etxebizitzak eraiki ahal izateko aukerak eskatu dituzte.

Kezka horiei erantzuna eman nahi die Udalak, lantzen ari den Plan Orokorrean: "Plan Orokorra oso garrantzitsua da guretako, horrek zehaztuko dueta hemendik hamar urtera nolakoa izango den Aramaio, eta hori gauza serioa da. Horregatik, ondo egin nahi dugu gure lana, horrek planaren aurkezpena atzeratzea badakar ere", azaldu du Agirre alkateak. Plana aurkeztean eragozpenik egon ez dadin ahalik eta gehien zehaztu nahi dute guztia.

**TRABAK ETA OZTOPOAK**

Baina hori ez da planaren aurkezpena atzeratzearen arrazoi bakarra. Alkateak azaldu du plana lantzeko orduan uste zutena baino traba eta oztopo gehiago aurkitzen ari direla eta horrek ere eurek finkatutako egutegian atzerapenak eragin dituela.

Traba horiei aurre egiteko gogor ari direla lanean azaldu du alkateak. Diputazioarekin eta Plan Orokorra lantzen ari den Stoa enpresarekin beharrezkoak diren tramite guztiak lantzen ari direla adierazi du Asier Agirrek.

**EUSKARA**> HENRIKE KNÖRR HIL EGIN DA

# Aramaioko Udako Ikastaroak antolatzen zituen Henrike Knörr Euskaltzaindiko kideak urtero

Gaitz larri batek jota hil da Henrike Knörr; Tarragonan jaio zen 1947an, baina Gasteizen bizi izan zen umetatik. Argitalpen ugari utzi ditu



Henrike Knörr Aramaioko Udako Ikastaroak antolatzen zituen. GOIENKARIA

**A.B.** > ARAMAIO

Ezaguna zen Henrike Knörr Aramaion. Izan ere, urtero-urtero Aramaioko Udako Ikastaroak antolatzen zituen. Euskara, euskal kultura eta historiaren alde lan handia egin zuen Knörrek. Horixe bera izaten zen Aramaioko Udako Ikastaroen ardatza, euskal kultura eta Euskal Herriko historia.

Tarragonan jaio zen, 1947an. Aita Gasteizkoa zuen eta ama, ordea, katalana. Zazpi urte zituela joan zen familia osoa Gasteizera bizi izatera.

Filosofia eta Letrak ikasi zituen Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta geroago Filologian doktore titulua eskuratu zuen Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapean. Euskal Filologiako katedraduna zen Euskal Herriko Unibertsitatean.

Egun, Gasteizko EHUko Filologia, Geografia eta Historia Fakultatean irakasle zen, eta, horrez gain, euskaltzain osoa, eta Euskaltzaindiaren Iker Saileko burua ere bazen. Euskaltzaindiak 1975ean hautatu zuen euskaltzain urgazle eta, bi urte eta gero, euskaltzain oso izendatu zuen, Antonio Arrueren ordez.

Argitaratutako liburuei dagokienez, besteak beste, *Gabonetako ikuskizuna* lanaren edizio kritikoa kaleratu zuen Henrike Knörrek 1983an, *Voces alavesas* eta *Arabako euskarari buruz jakin behar dena* 1998. urtean eta *Nombres vascos de persona: cuestiones históricas y de normalización* 1999an.

Aramaioko Udako Ikastaroak garrantzitsuak ziren Henrike Knörrendako. Iazko udan GOIENKARIAk egindako elkarrizketa batean adierazi zuen azken urteotako ikastaroek emandako guztia liburu batean jasotzeko asmoa zeukala.

**TXIRRITOLA ELKARTEA** > BERTSO POTEOA

# Barikuan, bertso poteoa eta bertso afaria egingo dituzte

19:00etan, esaera zaharren poteoa egingo dute, eta 21:00etan, afaria

**A.B.** > ARAMAIO

Barikuan, maiatzaren 9an, bertso giroa izango da Aramaion. Txirritola Euskara Elkarteak eta Aramaioko Bertso Elkarteak bertso poteoa eta afaria antolatu dituzte barikurako.

Bertso poteoa, baina, berezia izango da, esaera zaharren bertso poteoa izango da-eta. 19:00tan hasiko dute poteoa. Urtero egiten duten moduan esaera zaharren zerrenda luze bat egingo dute eta bertsolariek horien inguruko bertso bana bota beharko dute. Bertsoa entzunda, poteoan dabiltzatenek asmatu egin beharko dute zein esaera zahar aukeratu duen bakoitzak.

Bertso giroarekin jarraitzeko, gauerako afaria antolatu dute. 21:00etan izango da hori Ullibarriko elkartean. Giroa berotzeaz arduratuko dira herriko hiru bertsolariak: Manex Agirre, Andere Arriolabengoa eta Iker Agirre. Bertso pike sariketa egingo dute. Horretarako bertsolari bakoitza afarian daudenen artetik pertsona bat aukeratu beharko dute bikote moduan.

Epaimahaia ere egongo dela adierazi dute Txirritola elkartetik. Baina, seguruenik afarian bertan erabakiko dute zeintzuk osatuko duten epaimahaia. Izan ere, baliteke epaimahaian izateko aukeratutako pertsonaren bat, bertsolariek aukeratzea pike sariketarako bikote moduan. Sariak ere egongo dira bikote onenarendako. Giro polita egongo dela-eta herritarrak animatu nahi dituzte poteoan eta afarian parte hartzera.

> AUZOLANA

### Santikurtz ermita konpontzeko lanak zapatuan hasiko dira, eta herritarren laguntza eskatu dute

08:15 inguruan elkartuko dira zapatuan Santikurtz ermita konpontzeko auzolanerako; Añai tabernan bilduko dira. Auzolana antolatzen dihardutenek azaldu dute asteburu honetan oso garrantzitsua dela herritarren laguntza, traktoreak behar dira-eta material guztia ermitara eroan ahal izateko.

23 urte pasa dira Santikurtz ermita azkenekoz konpondu zenetik. Azken urte hauetan, baina, ermitaren egoerak okerrera egin du eta konpondu beharrean dago berriz. Hori horrela, auzolanean konpontzea erabaki dute aste bukaera honetan eta datozen bi asteburuetan. Teilatua osorik konpondu nahi dute eta barruko eta kanpoko hormak ere bai; margotu ere egingo dute.



Arlabango errepide ertzean dagoen Dorletako Amaren irudia txirrindulariek utzitako lore sorta eta oroigarriz beteta. MIRARI ALTUBE

**URTEURRENA** > DORLETAKO AMA

# 50 urte beteko ditu Arlabango Ama Birjinak

Urrian da urteurrena, eta ospakizun ekitaldiak antolatzeko proposamena jaso du Udalak Euskal Herriko txirrindulari batzorde baten eskutik

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Urriaren 25ean beteko ditu 50 urte Arlabango errepide ertzean dagoen Dorletako Amaren irudiak. Dorletako Txirrindulari Batzordeak, oraingoz, ez du ekitaldirik pentsatu urteurrena ospatzeko, baina Euskal Herriko txirrindulari batzorde batek zerbait antolatzeko asmoa agertu dio Udalari. Eta, hala izanez gero, Udala gertu dago laguntzeko: "Batzorde baten izenean deitu ziguten ospakizunen bat egin gura zutela esanaz, baina ez dugu izan berri gehiago, eta, egia esan, geuk ere ez dakigu zeinekin jarri harremanetan. Herriko Txirrindularitza batzordea jakinaren gainean jarri nuen, eta orain ikusi egin behar da zerbait egiten dugun urri inguruan", azaldu digu Eusebio Villar alkateak.

**IZENDAPENA ERROMAN**

50eko hamarkadan Italiako eta Frantziako txirrindulariek euren zaindariak izendatu zituzten. Hori horrela, Bilbo eta Gasteiz inguruko txirrindularizale batzuek Espainiako txirrindularien zaindari Dorletako Ama izendatzea erabaki zuten. 1958ko urriaren 25ean jarri zuten Arlabango irudia, eta sasoi hartan Arrasateko parroko eta artzapeza zen Jose Luis Iñarrak egin zuen elizkizuna. Izendapena lortzeko Dorletako Txirrindulari batzordea sortu zuten, eta gogor ekin zioten lanari. Hainbat eskaera egin behar izan zituzten: lehenengo Gatzagako parrokiari eta gero Donostiako gotzainari. Biek baietza eman zutenean, Gipuzkoa eta Bizkaiko txirrindulari batzordeei proposatu zieten, eta ekimena bultzatzea erabaki zuten biek. Espainiako Txirrindulari Elkarteko arduradunekin berba egin zuten gero; baina oraindik urrunago joan beharra zegoen izendapena eskuratzeko: Aulki Santuaren adierazpen kanonikoa lortzera. Horretarako, hiru txirrindulari Erromara joan ziren bizikletan, eta Donostiako prelatuak emandako otoitzak eroan zituzten Errituen Kongregazio Sakratuarendako.

Juan XXIII.a aita santuak audientzia berezian hartu zituen hiru txirrindulariak 1960ko abuztuaren 8an, eta Espainiako Txirrindularien Elkartea ere bertan egon zen. 1973an onartu zituen Espainiako Elkarteak estatutu ofizialak.

**MAILLOTAK IKUSGAI SANTUTEGIAN**

Txirrindulariek estimu handia diote Dorletako Amari, eta Arlabango irudia lore sorta, kandela eta oroigarriz beteta egoten da beti. Txirrindulari askok euren maillotak eskaini izan dizkiote, esker onaren seinale. Eta Dorletako santutegian mailloten erakusketa txiki bat dago, tartean izen handiko profesionalenak.

**UDALA** > ARAUAK

# Abereak mendian ibiltzea arautzen duen ordenantza ikusgai, erreklamazioak jartzeko

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Astelehena ezkero daude ikusgai abereak mendian ibiltzea arautzen duen ordenantzaren aldaketak. Apirilaren 10ean egindako osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak, eta asteleheneko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten jakinarazpena: Gatzagako mendia 2068-1 mendi publikoan larretzearen ordenantza aldatzea. Orain, hilabeteko epea daukate interesatuek erreklamazioak eta kexak aurkezteko. Udaletxera bideratu behar dituzte guztiak.

**GATZAGAN ERROLDATU ETA BIZI**

Aldaketok bertako baserritarrekin adostu zituen Udalak. Hala ere, erreklamazioak egon daitezkeela uste du Eusebio Villar alkateak, baserritar ez direnek ere badituztelako abereak. Aldaketarik handiena, gainera, bizitokiarekin dauka zerikusia; hau da, Gatzagan erroldatuta daudenek eta bertan bizi direnek izango dute lehentasuna abereak mendira eroateko baimenak lortzerakoan: "Baina lekua egonez gero mendian, Gatzagan bizi ez direnek ere eroan ahal izango dituzte", dio alkateak. Baimen eskaerak udaletxean egin behar dituzte azaroaren 30a baino lehen, eta Udalak Aldundiari bideratuko dizkio: "Azkenean, Aldundia da baimenak ematen dituena, eta ez dakit lekuarekin arazorik izaten den. Nik ezetz esango nuke; izan ere, gero eta abere gutxiago ditugu; behorrak eta behiak oraindik badituzte baserrietan, baina ardiak, esaterako, gutxitzen dabiltza", argitu digu alkateak.

Maiatzaren 1a ezkero abereak mendira eroan ditzakete baimena duten jabeek. Behiek azaroaren 30era arte egon ahal izango dute eta behorrek, ardiek eta ahuntzek, otsailaren 29ra arte.

> ERLIJIOA

### Dorletako santutegian dira mezak azarora arte

Maiatzaren 1etik azaroaren 1era bitartean domeketan esaten dituzten mezak Dorletako santutegian dira (12:30), eta ez herriko parrokian. Hala, uda sasoia aprobetxatzen dute herritarrek eta inguruko bizilagunek Dorletako Ama ikusi eta mezak santutegian entzuteko. Irraileko Andramari jaietako bederatziurrena eta meza nagusia ere bertan egiten dituzte. Salbuespen bakarra dago: uztaileko lehenengo domekan –uztailaren 6an aurten– San Martin ermitan esaten dute.

**SASKIBALOIA** > LAUKO FINALA

# Eskoriatzak asteburuan du Bigarren Mailara igotzeko aukera

Lasarten jokatuko dute Bigarren Mailara igotzeko Lauko Finala; Eskoriatzako neskek bihar dute lehenengo kanporaketa, 17:00etan. Autobusa jarri dute zaleendako

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Eskoriatza, Añorga, Doka eta Easo. Lau talde horietako bat Bigarren Nazional Mailako taldea izango da domekan, Lauko Finalean nagusitu eta gero. Eta, lau talde horietako bakarra ez da Donostiakoa, gure ordezkaria.

Eskoriatza izan da ligan gailendu den taldea, baina horrek ez du esan gura asteburuan Lasarten jokatuko duten azken faserako faboritoa denik: "Iaz bai ginen faboritoak, gainera etxean jokatu genuen fase erabakigarri hori, Eskoriatzan, eta orduan Añorgaren kontra galdu genuen. Nire ustez, etxean jokatzeak mesede baino kalte egin zigun, jokalariak gogortuta kantxaratu ziren-eta", adierazi du taldeko entrenatzaile Fernando Rasok. Aurtengo finala, baina, parekatuago dago: "Azken urteotako Lauko Finalik parekatuena dela esango nuke, edonork irabaz dezake".

**MIN HARTUTAKO JOKALARI ASKO**

Hain zuzen ere, denboraldian zehar izan dituzten zailtasun guztiak kontutan hartuta, taldea lehenengo geratu izanak meritu handia du: "Egia da finalera ez garela oneneAn iristen, ondo entrenatzeko zailtasunak izan ditugulako eta hiru jokalari garrantzitsu min hartuta ditugulako. Baina, badakigu barruan daramagun saskibaloia aterata edonori irabazteko gauza garela, eta ilusio handiz goaz".

Domekako finalean egoteko, Eskoriatzak Añorga gainditu beharko du bihar. Alde horretatik, Eskoriatzakoak errebantxa gogoz daude, iaz talde horrek kanporatu zituelako Lauko Finaetik, eta ligan ere talde horren eskutik jipoi polita jaso zutelako: "Gure etxean 20 puntuko aldeagatik galdu genuen, nahiz eta euren kantxan irabazteko gauza izan ginen".

**ZALEENDAKO AUTOBUSA**

Taldeko presidente Manolo Muñozek adierazita, klubak autobusa jarri du biharko norgehiagokarako: "Autobusa doanekoa izango da. 15:30ean Eskoriatzako kiroldegitik aterako da, 15:40an Aretxabaletako zaleak batuko ditu Azbeko geltokian, eta 15:45ean Arrasateko Garibai geltokian egingo du geldialdia".

KONTUTAN HARTZEKO

## Pablo Laso Eskoriatzan izango da astelehenean, 20:00etan, kultura etxean

Bruesa GBC taldeko entrenatzaile Pablo Laso (Gasteiz, 1967) Eskoriatzan izango da datorren astelehenean. Hasieran, berbaldia Ibarraundi museoan egin behar zuten, baina azkenean kultura etxean izango da hitzordua, 20:00etan.

Lasok elite mailako kirolaren gainean egingo du berba, eta baita Bruesa GBC moduko saskibaloi talde batek behar duen planifikazioaren gainean ere. Horrekin batera, baina, berbaldian Bruesaren egungo egoera aztertuko dute, maila gorenera igotzeko ze aukera duten, eta zelan ikusten dituen *play off*-ak. Gainera, ikusleen galderak erantzuteko gertu egongo da Laso.



Eskoriatza taldeko Ainhoa Alartzia, Añorga taldearen kontrako partiduan, Intxaurtxuetan.

> FUTBOLA

### Aloña Mendik etxean jokatuko du domekan, Trintxerperen kontra

Hirugarren Mailara igotzeko bidean amore eman gura ez duen Trintxerpe (61) izango dute domekan oñatiarrek bisitari (16:30). Sailkapenean hirugarren, Trintxerpekoek hiru puntura dute liderra, eta 12 puntu geratzen dira jokoan. Hala, soberan dago Oñatiko kontrarioa dena ematera etorriko dela esatea. Aloñako (38) mutilek, berriz, lasaitu ona hartu dute azken jardunaldietan, atzealdetik irteteko beharrezkoak ziren puntuak eskuratuta. Azken lau jardunaldietan hiru partidu irabazi dituzte, hilabetean 12 puntu. Eta horri esker, Preferenteko erdialdean daude sailkatuta.

Mondrak (44) eta Aretxabaletak (46) etxetik kanpora jokatuko dute. Arrasatekoak Donostiara joango dira bihar (17:30), jaitsiera postuetatik ihes egin guran dabilen EHUren zelaira. Aretxabaleta ere Donostiara joango da bihar, laugarren dagoen Berioren kontra jokatzera (16:00).

ULMA
ULMA Agrícola, Koop. E.
Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

**Eguna:** 2008ko maiatzaren 15a.
**Ordua:** 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena.
**Tokia:** ULMA Taldeko Auditorioa – Garagaltza auzoa 51 - Oñati

GAI ZERRENDA

1. Aurreko aktak onartzeari buruzko txostena eta Batzar Nagusi honen akta onartzeko bazkideak izendatzea.
2. 2007ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2008ko gestio plana berrestea.
3. ULMA Taldeari buruzko txostena.
4. 2007ko ekitaldiko kontuak eta balantzea aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
5. Auditore izendatzea.
6. Soberakin garbiak banatzea.
7. Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoen (HKSF) erabilera.
8. Egituraz gaindiko erakundeekin zerikusia duten gaiak.
9. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak.
10. Kapital ekarpenak derrigor aldatzeko eta, hala badagokio, Estatutu Sozialetako 17, 21, 38, 54, 56, 57 eta 72 artikuluak eta Lehenengo Xedapen Gehigarria aldatzeko akordioak.
11. Kooperatibaren Barne Araudiaren 44 eta 46 artikuluak aldatzea, hala badagokio.
12. Mendeko ekarpen finantzarioen jaulkipena.
13. Zaintza Batzorderako kide bat izendatzea.
14. Galderak eta eskaerak.

*Oñati, 2008ko maiatza*

OHARRA: Bazkide guztien jakinaren gainean zera jartzen da, kontabilitate liburuak eta deialdi honetan proposatutako estatutuzko eta Barne Araudiaren aldaketen testuak eta zergatien txostena egoitza sozialean aztertzeko eskubidea dutela. Hala eskatzekotan, dokumentuok eman egingo zaizkie, edo doan bidaliko.

ULMA
ULMA C y E, Koop. E.
Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

**Eguna:** 2008ko maiatzaren 16a.
**Ordua:** 12:00etan lehen deialdia eta 12:30ean bigarrena.
**Tokia:** KURSAAL Elkarguneko Auditorioa – Donostia.

GAI ZERRENDA

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta Batzar Nagusi honen akta onartzeko bazkideak izendatzea.
2. 2007ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2008ko gestio plana berrestea.
3. ULMA Taldeari buruzko txostena.
4. 2007ko ekitaldiko kontuak eta balantzea aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
5. Soberakin garbiak banatzea.
6. Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoen (HKSF) erabilera .
7. Egituraz gaindiko erakundeekin zerikusia duten gaiak.
8. Kapital ekarpenak derrigor aldatzeko eta, hala badagokio, Estatutu Sozialetako 17, 21, 38, 54, 56, 57 eta 72 artikuluak eta Lehenengo Xedapen Gehigarria aldatzeko akordioak.
9. Kooperatibaren Barne Araudiaren 44 eta 46 artikuluak aldatzea, hala badagokio.
10. ROCHMAN Koop.E.-ren zatiketa.
11. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak.
12. Mendeko ekarpen finantzarioen jaulkipena.
13. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
14. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
15. Galderak eta eskaerak.

*Oñati, 2008ko maiatza*

OHARRA: Bazkide guztien jakinaren gainean zera jartzen da, kontabilitate liburuak eta deialdi honetan proposatutako estatutuzko eta Barne Araudiaren aldaketen testuak eta zergatien txostena egoitza sozialean aztertzeko eskubidea dutela. Hala eskatzekotan, dokumentuok eman egingo zaizkie, edo doan bidaliko.



IMANOL SORIANO

**TXIRRINDULARITZA** > ITALIAKO GIROA

# Debagoieneko bi 'laranjak', Italiako Giroan, bihar hasita

Taldekako erlojupekoarekin hasiko dute bihar hiru aste iraungo duen proba gogorra

Irizarrek eta Velascok blog baten bitartez kontatuko dituzte lasterketaren gainekoak



Irizar eta Velasco, denboraldi hasieran egindako argazkian, Barajuenen. X.U.

**X.U.** > ARRASATE

Eguaztenean hartu zuten Markel Irizarrek eta Iban Velascok Palermorako (Italia) bidea. Han hasiko dute bihar Giroa, taldekako erlojupekoarekin, eta 3.420 kilometro egin eta gero Milanen amaituko dute proba, bakarkako erlojupekoarekin, ekainaren 1ean. "Hasierako etapetan taldearendako lan egitera goaz", dio Irizarrek, "lasterketak aurrera egiten duen neurrian, berriz, askatasun handiagoa izango dugu gure kontu ibiltzeko, baina egia da hasierako egunetan esfortzu handia egiten badugu ondoren ordaindu egingo dugula". Hain zuzen, Oñatikoa izango da taldeko buruendako esprintak prestatzeko ardura izango duenetako bat: "Indar handiena dugunoi egokitu zaigu lan hori, eta egia esan, hor ibiliko diren oilarren artean egoteak errespetua ematen badit ere, ahaleginduko gara neurria ematen".

Velascok, berriz, adi-adi errepasatu ditu mendate guztiak: "Buf, sekulako maldak gainditu beharko ditugu, ahaleginduko gara ihesaldiren baten sartzen". Ibarreko bi txirrindulariekin batera Koldo Fernandez de Larreak, Iñigo Landaluzek, Aitor Galdosek, Dioni Galparsorok, Alan Perezek, Josu Agirrek eta Lander Aperribaik osatuko dute Euskaltelek izango duen bederatzi laguneko taldea.

**GIROAREN GAINEKO BLOGA**

Giroan buru-belarri ibiliko dira ibarreko bi *laranjak*, eta eguneroizango dugu euren berri *www.goiena.net/blogak/giroa-barrutik* helbidean. Etapen berri emango dute Irizarrek eta Velascok, lasterketa barrutik zelan bizi duten kontatuko dute, anekdota eta bestelakoekin. Baina ez da txirrindulariek soilik idatziko duten bloga, edonork parte hartu ahal izango du-eta blog horretan.

Hala, bloga berotzen hasteko Euskalteleko bikoteak Girorako faboritoen gainean egin du berba: "Kloden, Simoni, Di Luca... horiek aurrean ibiliko dira. Gero, ikusteko dago Caisse d'Epargne taldeko hegoamerikarrak zelan ibiliko diren, Menchov ere zelan egongo den...".

> TXIRRINDULARITZA

## Amateur mailako Gipuzkoako Txapelketa Bergaran, domekan

Lokatzak antolatuta, amateur mailako Gipuzkoako Txapelketa jokatuko dute domekan Bergaran (09:30). Mendekoste Sariko 73. lasterketa izango da, eta txirrindulariek 123 kilometroko ibilbideari egin beharko diote aurre. 12:30ak inguruan iritsiko dira Altos Hornosen egongo den helmugara.

> TXIRRINDULARITZA

## Gazte mailako ziklistek Arantzazura Igoera egingo dute bihar

Antolatzaileek ehun lasterkari inguru espero dituzte bihar (16:30ean hasita) egingo duten 39. Arantzazura Igoera proban.

Oñatiko taldeko txirrindulariekin batera –Julen Arkauz eta Xabier Arnaiz ondo ibili ziren Zegaman– ibarreko gainontzeko taldetako lasterkariak ere izango dira.

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Energia fotovoltaikoa
Energia termikoa
Geotermikoa
ALET
ALET TALDEA S.L.
Ondo ibili Pazkoetan!
Amillaga 10, 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
620561316 / 669366953 • Faxa: 943762052
e.maila: info@alet-taldea.com • www.alet-taldea.com
Erregistro industriala: 20/28318 • INSTAGIren sozietate elkartua

# IV. MAGIA MOSTRA

## 2008ko maiatzak 16, 17, eta 18

## ELGETAKO ESPALOIA KAFE ANTZOKIA

### 16 BARIKUA

22:30
**MAGIA GALA**
Prezioa: 18 € Bazkideak: 15 €

**MORRISON**
Aurkezlea. Madriletik dator, Portabenturako magoa. "El Magnifico" moduan ezaguna.



**ANDY GONZALEZ**
Mundu guztian ibilitako magoa. Estatuko lehenengo saria magia orokorrean.



**ILVA SCALI**
Paris. "Magic lady". Eszena magian hainbat sari. Magoen artean oso maitatua.



**MIRCO**
Argentina. Hainbat sari internazional: Mandrake D'or, originaltasunari saria Las Vegasen, Eszenako lehen sariduna, AEBn urrezko saria...



**BRANDO ETA SILVANA**
Argentina. 2005eko Chevallier Andrey sarian Argentinako mago onena, baita "Cometa Mágico" saria ere.



### 17 ZAPATUA

22:30
**MAGIA**
Prezioa: 14 € Bazkideak: 11 €

> Migué magoa: Holandan kartomagiako lehen saria. III. Magia Mostran publikoaren saria.
>"Baraja eta pianorako kontzertua" emanaldia: Jonathan Waleson eta Miguel Puga.



### 18 DOMEKA

12:45
**KALEKO MAGIA**

Kalean zehar ikusi ahal izango da magia. FLIKTO, JUSTO THAUS: Malaga. Animazioa gurpil gainean.



Dagoeneko sarrerak salgai. Egun guztietarako bonoa: 30 €. Bazkideak: 24 € | www.espaloia.com | Tel.: 943 789 085

ANTOLATZAILEAK: Kafe Antzokia espaloia Elgeta; Asociación de Ilusionistas de Álava

LAGUNTZAILEAK: Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa; Elgetako Udala; Goiena Komunikazio Zerbitzuak; GEO Grupo Elcoro Decoletaje, S.L.; El Diario Vasco; kutxa



**> JAIAK BERGARAN**
Gaur hasi eta martitzenera arte, Mendekosteak **> 45**



**> KOMUNIKAZIOA**
Kontsumitzaileak nekatuta daude telebistako edukiekin **> 51**

**> OLATZ LABORDA**
Botikaria da lanbidez, farmazia ikasi baitzuen; eta saskibaloian dihardu Eskoriatzako taldearekin. Gustura dabil. Bergararra da. 26 urtekoa **> 45**



# Txokolategi berria txokolatea maite duen herriarentzat

**JOKIN BEREZIARTUA** > OÑATI

Oñati eta txokolatea bikote izan dira urtetan zehar. Baina elkar maite duten pertsonen artean askotan gertatzen den moduan, Oñatiren eta txokolatearen arteko harremana hozten zihoala ikusi zuten herriko txokolatezale sutsuenek, Klaxk Oñatiko Txokolatezaleen Elkartekoek, hain zuzen. Oñatiko txokolatearen tradizioa galtzen ari zela ikusita, harreman hori berreskuratzeko zer hobeto, Oñatiko esentziaren parte diren eraikin, ospakizun eta leku ezberdinak txokolatean urtu eta, gainera, *txokolateixa* baten bitartez oñatiarrei erakustea baino.

Gaur bertan inauguratuko dute txokolategia, Kale Barriko 16.ean. Lokalaren inaugurazioaren aurretik, Klaxk Oñatiko Txokolatezaleen Elkarteko Anton Azpiazu lehendakariak *La amargura del cacao y la magia del chocolate* liburuaren aurkezpena egingo du. Liburuaren espainolezko bigarren edizioa eta euskarara, katalanera, ingelesera eta alemanera itzulitako lehen edizioa aurkeztuko dira, unibertsitateko areto nagusian, 19:00etan. Beraz, gaurtik aurrera egunero izango da Oñatin txokolatea ikusi, ezagutu, dastatu eta modu pertsonalizatuan erosteko aukera. > 44





AZALA: ALEX AZKARATE



Anton Azpiazu, berak idatzitako liburua irakurtzen, gaur bertan zabalduko duten *txokolateixian*. MIREIA BIKUÑA

# Txokolategi berria txokolatea maite duen herriarentzat

(43. orrialdetik dator)

Gaurdanik txokolateak leku finkoa izango du Oñatin. Hasierako asmoa museo moduan aurkeztea den arren, gozozaleen plazerraren inguruan informazioa jasotzeko eta produktu ezberdinak erosteko aukera ere izango da.

**TXOKOLATEA, BESTE ERA BATERA**

Museoa kudeatuko duen Anton Azpiazu oñatiarrak adierazi duenez, salmentak ez dira supermerkatu batean egiten diren bezalakoak izango. Azpiazuk eroslearen gustuen araberako salmenta pertsonalizatua egitea nahi du. Hau da, esne tantarik ez duen txokolatea nahi duenak, edo aurkezpen harrigarri baterako forma jakin batean nahi duenak... aukera izango du eskatutakoa erosteko. Azpiazuk dioen moduan, "*a la carta* egindako txokolatea" eskatu ahal izango da txokolategian. Salerosketa mota hori posible izateko, eroslearen pazientzia, eta eskatutakoa Natra-Zahor lantegiaren baliabideen arabera egingarria izatea baino ez da behar.

Argi dago Azpiazuren nahia ez dela edozein lekutan eskura daitekeen txokolatea ekoiztea. Izan ere, oñatiarrak beste era batera ikusten du txokolatea, eta txokolategian ikusi ahal izango diren produktuak dira horren lekuko garbiak. Hala, azken urteetan zehar Oñatiren nortasunari estuki lotuta dauden produktuak atera izan ditu; esate baterako, herriko eraikin historiko ezberdinak irudikatzen dituzten tabletak eta Gorpuzti jaietako marrazkiz enbalatutako txokolateak. Honekin, beraz, Oñati txokolatearen bidez ezagutarazi nahi izan du Azpiazuk.

Gainera, nahi duenak txokolatearen inguruan informazioa jaso ahal izango duela jakinarazi du Azpiazuk. Iturri oneko informazioa izango denik ezin ukatu, Azpiazu aditua baita produktu gozoaren gainean. Hala, askorentzat "debekatutako plazerra" dena beste era batean azalduko du; hau da, produktuaren abantaila eta alde onetan oinarrituko da.




Ikusgai izango diren produktu batzuk.

**HEMEN BERRIA DEN "ABENTURA"**

Beste alde batetik, txokolategia zabaltzea "abentura" dela adierazi du. "Ingurune honetan lehen esperientzia da horrelako lokal bat zabaltzea. Suitzan, Alemanian eta Belgikan badaude gisa horretako txokolategiak, baina hemen ez dago horrelakorik".

Zerotik eta jarraitzeko moduko eredurik ezean, "pixkanaka-pixkanaka joateko asmoa" dutela eman du aditzera txokolatezaleak. "Hasi, areto txiki honekin hasiko gara eta jasotzen duen erantzunaren arabera beste gauza batzuetan pentsatzen hasiko gara". Bestalde, turismo bulegoak ere emango du Azpiazu bultzatzaile duen proiektu arriskatu bezain interesgarri horren berri.

**Anton Azpiazu** > Klaxk elkarteko presidentea

## "Argi nuen txokolatearen inguruan jakin gura zena idatzi behar nuela"

**J.B.** > OÑATI

**Txokolatea maite duen pertsonarik badago, hori Anton Azpiazu da. Hasieran entretenimendua zena gerora zaletasun bihurtu zen, azkenean erabat harrapatuta amaitu duen arte. Oñatiko Natra-Zahor lantegian egiten du lan eta enpresarekin elkarlanean egindako lanaren emaitza da gaur bertan inauguratuko duten *txokolateixia*.**



M.B.

**Zerk bultzatu zaituzte txokolategia zabaltzera?**

Oñatiko txokolatearen tradizioa galtzen ari zela ikusi genuen. Hala, herriko txokolatezaleek elkarte bat sortu genuen tradizio hori berreskuratzeko asmoz.

**Klaxk Oñatiko txokolatezaleen elkarteaz ari zara, ez da hala?**

Bai, hala da. Orain dela lau urte sortu genuen Klaxk. Hainbat ekimen egin ditugu herrian txokolatearen abantailak ezagutarazteko. Horien artean, hiru feria, bi dastatze ekitaldi eta hiru erakusketa, horietatik bi unibertsitatean eta bat kultura etxean.

Gainera, oñatiarrak informatzeko hitzaldiak ere antolatu ditugu, mediku eta dietista ezberdinen eskutik. Pixkanaka-pixkanaka hasi ginen arren, gaur egun 80 bazkidek osatzen dugu elkartea.

**Aipatu berri duzun Klaxk elkarteko lehendakaria zara. Horretaz gain, liburu batean izenburuan batu ditu-zu kakaoaren garraztasuna eta txokolatearen magia. Nondik dator ideia?**

Argi nuen kakaoaren eta txokolatearen inguruan jakin gura zen guztia liburu batean islatu behar nuela. Izenburuak kakao landaketetan lanean dihardutenek bizi duten garraztasunari egiten dio erreferentzia. Ez dator kakaoaren zapore garratzetik. Hala, batetik, txokolatearen errealitate iluna eta, bestetik, haren magia islatu nahi izan ditut.

**Nolakoa izan zen liburuak oñatiarrengandik jasotako erantzuna?**

Arrakasta erabatekoa izan zen. Argitaratutako lehen liburuan, hau da, espainolezko edizioan, 750 ale atera genituen. Orain, hiru ale bakarrik geratzen dira.

Eta, bestalde, liburua euskaraz ateratzeko konpromisoa hartu nuenez, euskarazko edizioa salgai izango da gaurdanik. Natra-Zahor enpresak, berriz, katalanez, alemanez eta ingelesez kaleratzeko proposamena egin zidan, liburua kanpora begira ere irakur dadin. Niri ezin hobeto iruditu zitzaidan: txokolatearen mundua zenbat eta gehiagok ezagutu, hobeto.

Txokolateak Oñatiko historian izandako garrantzia ere aztertzen da.

FAGOR EDERLAN KOOP E. FAGOR

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**
**DEIALDIA**

Kontseilu Errektorearen erabakiz, Fagor Ederlan Kooperatiba Elkarteko Batzar Orokorra deitzen da. Batzarra Arrasateko Amaia antzokian egingo da 2008ko maiatzaren 10ean, 09:30ean lehen deialdian eta, kasua balitz, bigarrenean 10:00etan, egun eta toki berean, ondorengo GAI ZERRENDA honekin.

**GAI ZERRENDA**

1- Aktak onartzeari buruzko informea eta akordioa.
2- Memoriaren irakurtzea eta onartzea.
2.1 - 2007ko gestioari buruzko akordioa.
2.2 - 2008ko Gestio Plana onartzea.
3 - Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak.
4 - 2007ko Kontuen eta Balantzeen azterketa.
5 - 2007ko Emaitzen banaketa.
6 - Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
7 - Barne Erregelamenduko 68. artikuluaren aplikazioaren inguruko 1/2005 Arauaren indarraldia 2009ko martxoaren 31 bitarte zabaltzea.
8 - Entitateen gaiak
8.1. Fagor Taldea.
8.2. MCC eta Mondragón División Automoción.
8.3. Lan Kide Aurrezkia.
8.4. Lagun-Aro.
9 - Auditoreak izendatzea
10 - Fagorreko Batzar Orokorrerako ordezkarien hautapena.
11 - Eskariak eta erreguak

*Eskoriatza, 2008ko apirilak 11*
*Kontseilu Errektoreko lehendakaria*

COPRECI
COPRECI, KOOP. ELK.

**2008ko OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIA**

Kontseilu Errektorearen erabakiz, Elkartearen Ohiko Batzar Orokorrera deitzen da. Batzarra Gesalibarko Aita Menni ospitalean, areto nagusian, egingo da 2008ko maiatzaren 16an, 15:30ean lehen deian eta, kasua balitz, bigarrenean, 16:00retan, egun eta toki berean, hurrengo EGUNEKO GAI ZERRENDAren arabera:

**GAI ZERRENDA**

1. Aktak onartzeari buruzko informea eta akordioa.
2. Memoriaren irakurtzea eta onartzea.
2.1. 2007ko Gestioari buruzko akordioa.
2.2. 2008ko Gestio Plana onartzea.
3. Mondragon Componentes eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
4. 2007ko Kontuen eta Balantzeen azterketa.
5. 2007ko Emaitzen banaketa.
6. Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
7. Barne Erregelamenduko 68. artikuluaren aplikazioaren inguruko 1/2005 Arauaren indarraldia 2009ko martxoaren 31 bitarte zabaltzea.
8. Entitateen gaiak
8.1. MCC
8.2. Euskadiko Kutxa
8.3. Lagun-Aro
9. Kontseilu Errektorearen jakinerazpenak.
9.1 Fagor Taldearen berregokitze eta indartzeko proiektua.
9.2 Hizkuntza Politika.
10. Kanpoko Auditoreak izendatu.
11. Fagor eta Mondragon Componenteseko Batzar Orokorrerako ordezkarien hautapena.
12. Galderak eta eskaerak.

*Kontseilu Errektoreko Idazkaria*
*Aretxabaletan, 2008ko apirilaren 11n*

**BERGARA** > MENDEKOSTE JAIAK 08

# Turboshit, Inoren Ero Ni eta Pikutara bihar, Bideberriko txosna gunean

Kontzertuak, umeendako ekitaldiak, elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketa, txosnetako ekitaldiak edota barrakak aste bukaeran Bergaran


Inoren Ero Ni taldea Bideberrin izango da bihar, zapatua, gauean. GOIENKARIA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA
Dena gertu dago Bergaran Bitorianatxori ongi-etorria egiteko. Ohikoa denez, Bitorianatxoren jaitsierak emango die hasiera jaiei. Herritarrek San Martin plazan daukate hitzordua, 20:00etan. Martitzenera bitartean jai giroan murgiltzeko aitzakiarik ez da faltako.

Aste bukaerari dagokionez, zapatuan adin guztietako jendearendako ekitaldiak izango dira. Hasiera baten, Euskal Herriko Txarangen Bilgunea deituta zegoen baina bertan behera gelditu da. Edozein modutan, txaranga eta fanfarre batek jardungo dute egun osoan giroa alaitzen. Era berean, goizean elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketa jokatuko da goizean San Martin plazan eta txikiendako marrazki lehiaketa izango da. Txosnetan, berriz, Euskal Herriak askatasuna behar du lemapean, hainbat ekintza izango dira, bertso bazkaria tartean. Arratsaldean, neska-mutikoei zuzendutako *Txanogorritxu rock* erromeria izango da San Martin plazan. Jarraian, errekortadore eskola jarriko dute plazan eta ondoren buruhaundi, erraldoi eta kilikiekin ohiko kalejira egingo dute. Musikak ere tarte zabala izango du jaietan: zapatuan Turboshit, Inoren Ero Ni eta Pikutara taldeek joko dute Bideberriko txosna gunean eta San Martin plazan doinu lasaiagoekin gozatzeko aukera izango da: Impekables eta La Guateke Band.

**KIROLA ETA DANTZAK DOMEKAN**
Domeka goizean, kirolak izango du protagonismoa: besteak beste, xake txapelketa, Pentekoste Txirrindulari Sariaren 72. ekitaldia eta Iker Lezeta munduko txapeldunaren eskutik Bike Trial erakustaldia izango dira. Eguerdian, Udal Musika Bandaren emanaldia Espoloian eta arratsaldean umeendako jolas parkea Ipintzan, Samu Crew break dance taldearen eta Ariz Sound System DJaren saioa Simon Arrietan eta ondoren dantza solteko txapelketa plazan eta errekortadoreen ikuskizuna. Kontzertuak ere izango dira gauean.

**ZINEMA** > FILM LABURRAK

# Huhezinema: 41 lan jaso dituzte eta bostek eraman dute saria

Nerea Ruiz de Azua eta Jagoba Domingo ikasle arrasatearrak irabazleen artean; saritutako lanen emanaldia gaur Kulturaten, 20:00etan


Huhezinema jaialdian sarituak, eguaztenean, sari banaketa ekitaldian. HUHEZI

**E.M.** > BERGARA
Huhezinema jaialdian, Nerea Ruiz de Azua eta Jagoba Domingo arrasatearrek publikoaren saria jaso dute: fikziozko laburmetraien sailean, Ruiz de Azuaren *Tempus fugit* lana saritu dute ikusleek eta Domingo dokumental laburren sailean sarituta izan da, *People are strange* lanari esker. Biak ere Huheziko ikasleek egindako lanen artean nabarmendu dituzte.

**BALORAZIO POSITIBOA**
Jaialdiko antolatzaileek balorazio positiboa egin dute: guztira 41 ikus-entzunezko aurkeztu dituzte Huhezinemaren lehenbiziko ekitaldira, 35 fikziozkoak eta 6 dokumental. Egileak gazteak izan dira, 25 eta 30 urte artekoak, gehienak mutilak. Goian aipatutakoez gain, beste hiru sari ere banatu dituzte. Fikziozko laburmetrai onenaren saria Lander Camareroren *Montenegro* lanarentzat izan da; dokumental labur onenari dagokionez, *La discapacidad invisible* (Ane Larrañagak zuzendutako lana) saritu du epaimahaiak eta, azkenik, Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak emandako saria Iñigo Quintanaren *Tximeletak* ikus-entzunezkoarentzat izan da. Gaur, egubakoitza, saritutako film laburren proiekzioa izango da Kulturaten, 20:00etatik 22:00etara. Antolatzaileek ibarreko ikusleak gonbidatu nahi dituzte gaurko emanaldira.


Islamiar kulturaren ezagutza sendotzea da helburuetako bat. GOIENKARIA

# Islamiar kultura, Ibarraundin ikusgai

Gaur, egubakoitza, Eskoriatzan zabalduko duten erakusketa, hilaren 29ra arte ikusgai

**E.M.** > ESKORIATZA
*Islama, guztion ondarea* izenburupean, maiatzaren 29ra arte erakusketa eta tailerrak izango dira Eskoriatzako Ibarraundi museoan. Elkar-Hezitzen Debagoieneko Garapenerako Hezkuntzarako lan-taldeak antolatu du ekimena, Euskal Arabiar Libiar zentroaren eta Kultura Islamiarraren Fundazioaren laguntzaz. Gaur, egubakoitza, erakusketa zabalduko dute Ibarraundin. Helburua zera da: islamiar kulturaren ezagutza sendotzea eta horren gainean dauden aurreiritziak apurtzea. Erakusketa ibiltaria da eta 36 panelek osatzen dute. Argazki eta ilustrazioen bitartez islamiar gizartearen alderdi ezberdinak azaldu nahi dute antolatzaileek. Ikasleei zein publiko orori zuzenduta dago.



**Bittori Irazabalek** eta **Rufino Arantzetak** 68 urte bete dituzte ezkonduta, eta familia artean ospatu zuten maiatzaren 1ean. Argazkian, birloba Itoitz eta Ekhi jaioberriekin agertzen dira. Zorionak laukote familiaren partetik.



**Jokin Lazpiur** eta **Nuria Puig** maiatzaren 3an ezkondu ziren Torroella de Montgriko (Girona) Sante Caterina elizan. Greziako irletan barrena ibiliko dira ezkon bidaian. Zorionak bikote, koadrilakoen partetik.



**Argider Isasti** eta **Ainara Azkoitia** Azkoitia oñatiarrak, maiatzaren 10ean ezkonduko dira Oñatiko Zubillaga auzoko San Pedro elizan. Ezkon bidaian Estatu Batuetara joango dira. Zorionak bikote! Muxu handi bana. Etxekoak eta koadrilakoak.



**Olaia Saldaña** eta **Toni Cabaña** maiatzaren 10ean ezkonduko dira Dorletan. Bazkaria Gure-ametsan egingo dute, eta ezkonbidaian Mexikora joango dira. Sendikoen partetik, zorionak eta urte askotarako, bikote!



**Fatima Del Palacio** eta **Iñaki Misol** arrasatearrei ordu gutxi geratzen zaizkie baiezkoa emateko. Hitzordua, bihar, zapatua, hilak 10, eguerdian, Kulturaten. Ospakizuna, Basterralde Jatetxean egingo dute. Senideek eta lagunek zoriontsu izatea opa dizuete.



Zapatuan, maiatzaren 10ean, Arrasateko **Iñigo** eta Gasteizko **Ixone** ezkonduko dira Kulturaten. Zorionak eta muxu handi bana koadrilako lagunen partetik. Ondo-ondo pasa eguna eta hobeto ibili bidaian.



Antzuolako **Ainhoa Sudupe** eta **Pedro Iturbe** maiatzaren 17an ezkonduko dira Zumarragako Miguel de Legazpi dorretxean. "Ainhoa, gauzatxo bat: Zure bizitzan gauza guztiak ondo koadratzeko...". Ondo pasa eta muxu bana. Goizperreko lagunak.



**Jesus Manso Goiaz** eta **Manuela Blazquez Rodriguez** Bergarako San Pedro elizan ezkondu zirela maiatzaren 17an beteko dira 50 urte. Urrezko ezteiak familiakoekin ospatuko dituzte. Zorionak eta beste horrenbeste izan daitezela. Etxekoak.

## bono fotoa



## Nola du izena Eskoriatzako ermita horrek?

**Argazkia eta galdera** > Jose Felix Diaz de Tuesta

Super BM

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA ..................................

IZEN-DEITURAK ..................................
TELEFONOA ..................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Albo atun argia**
112 g-ko lata

**2,05 €**

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Bergarako **PILI URRUTIA**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Galderaren erantzun zuzena: Errekalde.**

ESKER ONA

## Marcelino Moyua Biain

Oñatin hil zen 2008ko maiatzaren 3an, 81 urte zituela.



*Zurekin ditugun oroimenak
gure bizitzako poza
eta indarra dira.*
—
Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2008ko maiatzaren 9an.

ESKER ONA

## Eusebia Larrañaga Barrainkua

Tomas Alzolaren alarguna

Arrasaten hil zen 2008ko maiatzaren 2an, 95 urte zituela



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2008ko maiatzaren 9an.

ESKER ONA

## Itxaso Unamuno Agiriano

Gasteizen hil zen 2008ko apirilaren 28an, 44 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2008ko maiatzaren 9an.

ESKER ONA

## Alejandro Iruin Garmendia

Bergaran hil zen 2008ko apirilaren 27an, 55 urte zituela



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko maiatzaren 9an.

ESKER ONA

## Aratz Ugarte Larreta

2008ko apirilaren 25ean hil zen Oñatin, 17 urte zituela.



Egun gogor hauetan
laguntza eta berotasuna eman
diguzuen guztiei mila esker.

Jexux, Pili eta Igotz.
Oñatin, 2008ko maiatzaren 9an.

ESKER ONA

## Maria Pilar Larrañaga Odriozola

Bergaran hil zen 2008ko maiatzaren 2an, 75 urte zituela



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko maiatzaren 9an.

ESKER ONA

## Andres Plazaola Otadui

Arrasaten hil zen, 2008ko apirilaren 29an, 54 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2008ko maiatzaren 9an.

ESKER ONA

## Edurne Aiastui Alberdi

Oñatin hil zen 2008ko apirilaren 26an, 52 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2008ko maiatzaren 9an.

OROIGARRIA

## Edurne Aiastui Alberdi

Oñatin hil zen 2008ko apirilaren 26an, 52 urte zituela.



*Joan zarela sinestu ezin
hau sinesterik ba al da?
gogoan dugu zure irrifar
eta zure begirada
Edurne bizi izan zaitugu
bakoitzak bere erara
eta haizeak dakarrenean
sentimenduen bolada
zutaz oroitzen garen aldiro
guregan loratzen zara.*

Zure kintto lagunak.
Oñatin, 2008ko maiatzaren 9an.

OROIGARRIA

## Edurne Aiastui Alberdi



*Beti gogoan
izango zaitugu.*

Gaztelondoko ilobak.
Oñatin, 2008ko maiatzaren 9an.

4. URTEURRENA

## Jesus Larrañaga Lizarralde



Laugarren urteurreneko meza
domekan, maiatzak 11,
12:30ean Arrasateko
San Juan Bataiatzailea parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

1. URTEURRENA

## Eugenio Igarza Loidi



Lehen urteurreneko meza
domekan, maiatzaren 11n,
11:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,

deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:
**Arrasate** Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05. **Oñati** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65. **Aretxabaleta** Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramaio** Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22 **Elgeta** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98 **Antzuola**: Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **120** euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle (CIES).**



1. URTEURRENA

## Maria Teresa Alberdi Urkia



Lehen urteurreneko meza
domekan, maiatzak 11,
goizeko 11:00etan
Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:

**OROILORE Hileta eta Beilatoki zerbitzuak**
**Amillaga auzoa 27. 20570 Bergara**
**Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 - Faxa.: 943 76 94 76**
**maribi@oroilore.com**



Bidaia ezin hobea

OROILORE
Funeraria-Tanatorio
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 22 € (BEZ BARNE).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 30 € (BEZ BARNE).**
OHARRA: BI MODULU BAINO GEHIAGO JARTZEKO DEITU 943 25 05 05 TELEFONORA.

Iragarki partikular astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan 90 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela, bi balkoi eta trastelekua. Garajearekin. 687 11 07 21.

**Aretxabaleta.** 72 m$^2$ etxebizitza erdialdean. 16 metro koadroko garajearekin. Prezio interesgarria. Saltzeko presarekin. 659 64 67 38.

**Arrasate.** Otalora Lizentziadunan duplexa salgai. Bi logela, bi komun, egongela, sukaldea eta 20 metro koadroko terraza. 13 urteko eraikina. Deitu 696 79 43 89 zenbakira.

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. Bi logela, sukaldea, egongela, bainugela eta trastelekua argipatioan. Igogailuarekin. Leku lasaian kokatua. 652 70 12 49.

**Oñati.** Erdialdean duplexa salgai. Garajea eta trastelekua dauzka. 670 85 85 41.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aramaio.** Bizente Goikoetxea plazan etxebizitza errentan. Lau logela, bi komun, sukalde eta egongela handiak. 110 m$^2$. 945 44 51 84 edo 695 46 27 23.

**Bergara.** Erdialdean etxebizitza errentan edo salgai. Hiru logela, bi komun eta igogailua. Eguzkitsua eta nahiko berria. Deitu 20:30etik aurrera. 685 72 40 30.

**Jaca.** Apartamentua errentan ematen da. Bi logela eta garajearekin. Bi igerileku (umeena eta helduena) eta bi tenis pista. Inguruan umeendako jolastokia. 665 73 95 65.

**Peñiscola (Castello).** Apartamentua errentan hondartzatik gertu. Igerilekuarekin. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Bikote gazte batek etxebizitza txikia hartuko luke errentan 2008ko irailetik aurrera. 685 77 66 85.

**Aretxabaleta.** Etxea hartu nahi dugu errentan. Bikote arduratsua gara. 669 12 25 63.

**Bergara.** Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 686 37 76 79.

**Bergara.** Etxea hartu nahi dut errentan. 648 13 35 62.

**Debagoiena.** Bi mutil gazte eta arduratsuk etxebizitza hartuko lukete errentan. Deitu 650 09 38 99 edo 647 08 68 75 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Oñatin bada hobe. Etxe txikia nahiago. Deitu 652 71 21 23 telefonora.

**Kostaldea.** Etxebizitza errentan hartuko nuke abuzturako Gipuzkoako edo Iparraldeko kostaldean. Marijo. Deitu 685 72 16 17 zenbakira.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aramaio.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 699 28 99 06 edo 646 55 26 30.

**Arrasate.** Gela bat alokatzen da erdialdean, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Abuztuaren bukaera arte bakarrik. Deitu 630 71 35 83 telefonora.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da egoera onean dagoen etxea osatzeko. Deitu 616 05 97 92 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko; 180 euro hilean gehi gastuak.Deitu 647 08 68 75 edo 943 79 80 26 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 200 euro (ura, kalefakzioa eta argia) hilero. Unibertsitatetik gertu. Deitu 652 73 46 19 telefonora.

**Bergara.** Erdialdean (Irizar pasealekua) gela txikia errentan ematen da. Deitu 649 63 23 24 zenbakira.

**Oñati.** Pertsona bat behar dut etxea osatzeko. Deitu 688 62 71 30 zenbakira.

## 2/ GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia errentan Boni Laskurain plazan. Auto bat edo birentzat. Deitu 677 91 68 38 telefonora.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Lokala ematen da errentan Nafarroa etorbideko 7an. Deitu 943 79 23 15 edo 943 79 26 59 zenbakietara.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar da astean behin etxea garbitzeko. 943 79 41 15.

**BERGARA**

**LEIZE jantzi dendak saltzailea behar du. Curriculumak ekarri dendara 943 76 26 99**

### 402. ESKAERAK

**Arrasate** edo inguruan egur erdiz, osoz edota gauez nagusiak zaintzeko gertu nago. 676 59 53 17.

**Arrasate.** Astean zehar, ordu batzuk etxeak garbitzeko neska euskalduna prest. 690 19 82 79.

**Bergara** edo Arrasate. Emakumea gertu pertsona nagusiak egunez edo gauez zaintzeko eta baita garbitasun lanak egiteko ere. Paperak dauzkat. 686 99 59 41.

**Bergara.** Emakumea gertu umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 664 12 43 25.

**Bergara.** Neska gertu arratsaldez edo egun osoz lan egiteko: pertsona nagusiak zaintzeko (egunez zein gauez), edo garbiketak egiteko. (Esperanza). 678 80 96 01.

**Bergara.** Paperak eguneratuta dituen emakumea lan bila dabil. Garbiketa lanetan, zerbitzari edo sukaldeko laguntzaile. 663 15 39 92.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu umeak zaindu edo garbitasun lanak egiteko: etxeak, tabernak, bulegoak... Deitu 696 11 01 94 edo 943 77 16 73 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea etxean lan eta lo egiteko prest. Deitu 669 33 65 54 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko. 618 94 19 93.

**Debagoiena.** Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Bertan lo egiteko bada, hobeto. 688 68 06 96.

**Debagoiena.** Emakumea prest gaixorik dauden pertsona nagusiak zaintzeko edota garbitasun lanak egiteko. Ikasketak eta esperientzia. 943 76 53 43 edo 629 75 00 30.

**Debagoiena.** Neska arduratsua garbiketa lanak egin edo umeak eta nagusiak zaintzeko prest. 661 06 07 23.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu arratsaldeetan edo gauetan lan egiteko. Umeak eta nagusiak zaintzen edo garbitasun lanak egiten. 619 92 40 86.

**Debagoiena.** Paperak dituen mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 696 48 42 50.

**Debagoiena.** Paperak dituen mutil gaztea eraikuntzan lan egiteko gertu. 696 48 42 50.

**Emakumea** goizetan lau ordu eta arratsaldeetan ere lau ordu lan egiteko prest, dendari, haur zein pertsona nagusiak zaintzen, etxeko lanak egiten... 610 34 97 88.

**Emakumea** prest pertsona nagusiak zein haurrak zaintzeko, baita etxeko lanak egin edo garbiketak egiteko. 686 99 59 41.

**Mutil gaztea** edozein lanetarako prest. Informatika, auto mekanika, txapa eta pintura, argiketari eta igeltsero ezagutzekin. 697 66 79 37.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Debagoiena.** Batxilergoko matematikako eskola partikularrak hartu gura ditut. 645 72 25 24.

**Debagoiena.** Pertsona bat behar da eskolak emateko. DBHko hirugarren maila. Kurtso bukaera arte eta baita datorren ikasturterako ere. 652 76 21 63.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Neska euskalduna haurrei eskola partikularrak emateko prest. 690 19 82 79.

**Bergara.** Eskola partikularrak ematen ditut. 21:00ak aldera deitu. 615 73 45 53.

**Eskola partikularrak** ematen ditut. Ekainean eta uztailean, Lehen Hezkuntzako umeei. 650 23 34 98 edo 943 03 76 04.

**Oñati.** Urte askotako esperientziadun irakasleak eskola partikularrak ematen ditu. Kurtso osoan eta udan. 943 78 28 43.

## 6/ MOTORRA

### 603. ALOKATU

**Autokarabana** hartuko nuke errentan abuztuan. Lau pertsonarendako modukoa gutxienez. 677 98 54 91 .

**DEBAGOIENA**

**Autokarabana berria errentan ematen da 943 71 25 30**

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Basurdeak** salgai Orozkon. Hiru hektareako zarratua basurdeekin, txakurrei erakusteko. 200 euro. 678 72 75 72.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Apalategi** metalikoak salgai. 100x60 neurrikoak. Deitu telefono honetara:. 943 76 11 21.

**Autorako bozgorailuak** salgai. 50 euro. 617 13 17 51.

**Basalurra** salgai Osintxu, Urkulu, Bolibar eta Antzuolan. 678 72 75 72.

**Brain Trainning** berria salgai. Erabili barik dago. 617 13 17 51.

**Carry-Bike** salgai, 4x4 autoetan bizikletak eramatekoa. Bi bizikletarendako. 50 euro. 679 10 95 23.

**Garajerako atea** salgai. Erabili gabea. Prezio bikainean. Neurriak: 3,16x3 m. Gaineko finkoa: 0,50 m. Automatismoa jartzeko prest. Puertas Nueva Castilla etxekoa. 605 75 96 11.

**Karro-denda** salgai, sukaldedenda independentearekin. Bi logela bikoitz, jantokia 4-6 pertsonarentzako. Osagarri ugari. Egoera onean, beti garajean gordeta. Prezioa: 1.600 euro. 615 72 47 43.

**Karro-denda** salgai. Bi logela bikoitz, jantokia 4-6 pertsonarentzako, sukaldea, hozkailua... Egoera onean, beti garajean gordeta. Prezioa: 1.200 euro, negoziagarriak. 615 72 47 43.

**Lehorgailu** ia berria salgai. Fagor etxekoa. 250 euro. 943 77 00 26.

**MP4a** salgai. Oso gutxi erabilia. 945 44 52 96.

**Mahai** obalatua salgai. 136x90 neurrikoa. Luzagarriekin. Asier. 617 17 15 88.

**Marshall 800** anplifikadorea salgai. 100 watt. Balbulekin. 800 euro. 630 60 90 53.

**Mendiko bizikleta** salgai. 750 euro. Estreinatu gabea. S-Crash markakoa. Esekidura bikoitza, atzean eta aurrean Rock-Shox, Shimano-XT 2007, disko-balazta Magura Julie hidraulikoa. 652 73 83 25.

### 802. EROSI

**Bizikleta estatikoa** erosi nahi dut. 619 88 26 84.

**Ume-bizikleta.** 4 urteko ume batendako bizikleta erosiko nuke, bi errubera gainean ikasteko egokia dena. Deitu 665 71 39 61 edo 607 11 31 46 zenbakietara.

### 804. HARTU

**Hozkailu** zahar bat hartuko nuke. 943 79 66 00.

### 806. GALDU

**Bergara.** Neskatila-erlojua galdu dut Boni Laskurainen, Ipintza ikastetxetik gertu. 943 76 00 99.

**Diru-zorroa** galdu dut Bergaran. Pantera Arrosaren marrazkia dauka kanpoan. Barruan pendrivea dauka. 685 72 90 04.

**Haur manta** polar bat galdu nuen igandean Bergaran. Horia eta letra eta zenbakiekin. 678 00 08 43.

**Patin motxila** gris eta beltza galdu dut Bergaran. Barruan neskatila zapatak dauzka. Aurkitu baduzu, dei egidazu. 943 76 07 89.

**Betaurrekoak** galdu nituen martxoaren 29an Arrasaten. Pastarik ez dute eta oso arinak dira. 659 36 88 75

### 808. BESTELAKOAK

**Arrasate eta Iruñea** arteko joan-etorria egiteko, autoa eta gastuak elkarren artean ordaintzeko jende bila nabil. Igandeetan joan eta ostiraletan etortzen naiz. 635 75 94 57.

**Oñati eta Bilbo.** Oñati (edo inguruko herriak) eta Leioako unibertsitate arteko eguneroko joan-etorria egiteko, autoa eta gastuak elkarren artean ordaintzeko jende bila nabil datorren urteari begira. 670 52 58 79.

**Perkusionista.** Musika talde baterako perkusionista behar da grabazioetan eta zuzeneko emanaldietan jotzeko. 656 30 97 48.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Donostiako** Aizkorri 84, 2.B etxebizitzaren jabearen bila nabil. Xabier. 609 51 93 67.

**Oñatitik Gasteizera** joaten gara egunero. Bi pertsona joaten gara auto batean. Norbait interesatuta egonez gero, deitu. 635 20 33 14.

**Taldekide bila** dabil Bergarako Emon taldea, taldea guztiz osatzeko tronboi eta tronpeta jotzaile bila. Deitu 675 70 81 93 telefono zenbakira.

## ETXE AGENTZIEN ATALA

Jar ezazu hemen zure publizitatea
943 25 05 05 publi@goiena.com

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 m². Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Ibargarai 74 m². Ondo. Garajea aukeran.
- San Juan. Bifamiliarra. Prezio oso ona.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Matxiategi 61 m². Prezio ona. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60 m². Berritua. Leku lasaia.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Zubieta.75 m². Txokoarekin. Oso ondo.
- Simon Arrieta.80m². Prezio ona.
- Bidekurutzeta.103 m². Duplexa. Oso ondo.

**Arrasate:**
- Erdiko kalea 113 m². Balkoiarekin. Ondo.
- Zarugalde 90 m². Balkoiarekin. Eguzkitsua.

**Antzuola:**
- Buztinzuri 76 m². Prezio ona. Ganbararekin.
- Buztinzuri 67 m². Eguzkitsua. Igogailuarekin.
- Antigua 80 m². Eguzkitsua.
- Zurrategi plaza. 90 m². Atikoa. Terrazarekin.

**Eskoriatza:**
- Baserria. Bifamiliarra. Berria.

**Oñati:**
- Kale Zaharra. 62 m². Terrazarekin. Ortua.
- Lezesarri. 75 m². Eguzkitsua. Erdi berritua.

**Soraluze:**
- Rabal. 64 m². Berritua. Eguzkitsua.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 m². Ondo.
- Arrizuri, 97 m². Garajearekin.
- Matxiategi, 65 m². Berritua eta aukera ona.
- Ibargarai, 80 m². Oso ondo.
- Artekale, 70 m². Oso ondo.
- Bolu, 103 m². Oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m². Ondo. Hortuarekin.
- Matxiategi, 65 m². Ondo.
- Aranerreka, 87 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta. Duplexa. Oso ondo.
- Sanantonabat, 70 m². Oso ondo.
- San Lorentzo, 81 m². Eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m². Ondo. Garajearekin.
- San Pedro, 88 m². Ondo.
- Ibargarai, 80 m². Oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m². Oso ondo.
- Urdangarin plaza,132 m². Berritzeko.
- Irizar Pasealekua 89 m². Ia berria.
- Matxiategi, 73 m². Berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m². Terrazarekin.
- Zurradero, 81 m². Oso ondo.
- Masterreka, 89 m². Oso ondo eta garajea.
- **ETXEBIZITXA BERRIEN ERAINKUNTZA MADURA, MASTERREKA, ZUBIAURRE ETA BIDEKURUTZETAN**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m². Berria.
- Rekalde, 100 m². Oso ondo.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 m². Oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m². Erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m². Ia berria.

**ETXE AGENTZIAK**

**JAR EZAZU**
**HEMEN**
**ZURE PUBLIZITATEA**

**943 25 05 05**
**publi@goiena.com**



## LAN ESKAINTZA

AED Euskara Elkarteak langile bat kontratatu behar du, Idazkari lanpostuan baja bat betetzeko

**ESKATZEN DA**
- Gestio lanetan esperientzia izatea
- Harremanetarako gaitasuna izatea
- Euskara ahoz eta idatziz menperatzea (EGA gutxienez)

**BALORATUKO DA**
- Bailarakoa izatea
- Euskalgintza ezagutzea

**ESKAINTZEN DA**
- Zortzi orduko lanaldia

*Curriculumak AED elkartera bidali maiatzaren 20a baino lehen.*
*(posta elektronikoz bidal daitezke)*

*Pablo Uranga kalea 6 - behea*
*20.500 Arrasate*
*Tel.: 943 77 12 28*

*aed@aedelkartea.com*

AED ELKARTEA


ipuin
kontaketaren
zirkuitoa
XII
2007 · 2008
Oihulari Klown
-ek
aurkezten du
Arnau
Vilardebò
(Bartzelona)
"Nacen dioses
(un 10 a la
Diosa)"
maiatzak 29 osteguna
22:30ean
bergarako
Pol·Pol
-ean


ilargi
Puerikultura artikuluak
Haurren arropak (0-4 urte)
Haurdunentzako arropak
Ibargarai 14 BERGARA
Tel.: 943 08 29 65
ZABALDU
BERRIA!

Olatz Laborda > Botikaria

# "Familia eta saskibaloia, ezingo nintzateke bizi bietako batekin bakarrik"

Olatz Labordak ederki uztartzen ditu saskibaloia eta botikari lanak: "Txikitan izeba ikusten nuen botikari izateko ikasten eta gustatu egin zitzaidan". Baskonia zalea, orain Eskoriatzako taldean jokatzen du, eta "familia handi bat" osatzen dutela adierazi digu. Etorkizunari buruz galdetu diogunean, "etorkizuna baino, egunerokoa bizitzea hobe" dela uste du berak.

JASONE ZABALA > BERGARA

**Olatz Labordari (Bergara, 1981) betidanik gustatu izan zaio saskibaloia. Txikitan ikastolan hasi zen jokatzen. Ondoren, Bergarako elkartean hainbat urte ibili zen. Azken urteetan Eskoriatzako taldean dihardu. Ofizioz botikaria da, bidaiatzea ere atsegin du.**

**Saskibaloi zalea izanda, derrigorrez egin beharreko galdera: Baskoniarena pena, ezta?**

Pena pixka bat bai, baina azken momentura arte berdinduta egon zen; zuten guztia eman zuten gasteiztarrek. CSKAren helburua Euroliga irabaztea da urtero eta diru mordoa gastatzen du hori lortzeko. Oso talde ona da.

**Saskibaloia da zure zaletasun nagusia, baina ofizioz botikari zara. Txikitatik nahi zenuen botikari ikasi?**

Bai. Txikitan izeba ikusten nuen farmazia ikasten zebilela, eta gustatu egin zitzaidan. Modu horretan hasi zen guztia.

**Txikitatik saskibaloi munduan sartuta ibili zara Bergaran, baina orain, duela urte batzuetatik, Eskoriatzan zabiltza.**

Eskolan 6. edo 7. mailan saskibaloiko talde bat sortu zuten; ordutik hona, saskibaloian jokatu dut. Senior mailara arte, Bergara Kirol Elkartean (BKE) egon nintzen, baina gero ez zen talderik irten Bergaran, eta beste herri batera joan behar izan nuen, Eskoriatzara. Han oso ondo. Elkartea oso ondo antolatuta dago; gainera, bertan dagoen jende taldea ere handia da, eta lagun piloa egin dut. Familia handi bat da. Gaur egun ez dut uste Bergaran senior taldea irten ezkero bertara bueltatuko nintzenik, hemen gustura nago–eta.

**Halako zaletasuna izanda zure ikasketak ez ziren kirol mundura zuzendu. Gustatuko litzaizuke kirol mundutik bizitzea?**

Ez. Astean zehar hiru entrenamendu saio eta partidu batekin nahikoa daukat. Oso gogorra da kiroletik bizitzea. Hobeto farmazian egotea eta handik irtendakoan entrenatzera joatea.

**Kirol munduan bizi izan duzun egoerarik goxoena? Eta gogorrena?**

Gehienak egoera goxoak izan dira, egia esan. Eramaten dudan onena lagunak dira, duda barik. Jokoari dagokionez, 2. mailara igo genuen urtea oso ona izan zen; eta txarrena, jaitsi gineneko urtea, beharbada. Aurten ere hortxe ari gara; txapelketa lehen postuan amaitu dugu, eta maiatzaren 9an eta 10ean Lasarten igoera fasea jokatuko dugu. Igotzea lortzen badugu ikaragarria izango da.









JASONE ZABALA

**Non moldatzen zara hobeto, joko antolatzaile lanetan edo farmazian medikamentuak saltzen eta bezeroekin harremanean?**

Biak ditut gustuko, baina lanean baino hobeto lagunekin saskibaloian jokatzen. Ezingo nintzateke bizi bietako batekin bakarrik. Gauza bakoitza bere garaian.

**Saskibaloia eta lana. Ba duzu aisialdirako denborarik? Zer gustatzen zaizu?**

Egia esan, denbora libre gutxi daukat. Denbora librean, lagunekin irten, zinera joan, etxeko lanak egin...

**Mutil laguna Baskoniako senior mailako bigarren entrenatzaile lanetan dabil. Hortaz, saskibaloi partidu bat edo film bat ikusteko orduan, adostasun arazorik ez da egongo.**

Ez. Saskibaloia, seguru. Baina ikusterako orduan ni azkarrago nekatzen naiz. Berak edozein partidu ikusten du, berdin zaio zein talde den. Nik nahiago dut Baskoniaren partiduak ikustea.

**Ander Gartzia (Baskonia taldeko jokalaria) iloba duzu. Txikitan izebak irakatsi al zion baloia saskian nola sartu?**

Izebak baino gehiago osabak. Noizbait egon izan gara hirurok batera entrenatzen, baina nik ez daukat entrenatzeko bokaziorik, pazientzia handirik ez daukat horretarako.

**Bidaiatzea ere gustuko duzu. Egin duzun bidaiarik politena?**

Pasa den udan Menorcan egon ginen mutil laguna eta biok eta oso ondo pasatu genuen. Amarekin ere, Punta Canara egindako bidaia asko gustatu zitzaidan.

**Nola ikusten duzu zure burua etorkizunean?**

Familia arrunt bat bezala, uste dut. Baina etorkizunera begiratzea baino nahiago dut egunerokoa bizitzea.

## PERTSONALA

**Herria:** Bergara. **Adina:** 26 urte. **Ikasketak:** Farmazian lizentziaduna. **Zaletatsunak:** Saskibaloia eta hondartza dagoen lekuren batera bidaiatzea. **Gorrotatzen duzu zeozer?:** Puntualitate falta. **Baduzu maniarik?:** Partiduen aurretik beti gauza berberak egiten ditut: gauza bera, bazkaldu, arropa berbera jantzi, aldagelan gauzak toki berean utzi... **Pelikula bat:** *La búsqueda*. **Liburu bat:** *El secreto de Champollion*, Jean Michel Riou-rena. **Musikari bat:** Denetarik gustatzen zait. **Saskibaloi jokalari bat:** Jose Manuel Calderon.



Telebista ikusleak saio jakinekin leialagoak dira kate zehatzekin baino. GOIENKARIA

**TELEBISTA** > IKUSLEEN INKESTA

# Kontsumitzaileak gero eta etsiago daude telebistako edukiekin

Inkesta baten arabera, ikusleak nekatuta daude telebistarekin, baina gustuko saioekiko leialtasuna adierazten dute: badira astean zortzi telesaiotik gora ikusten dutenak

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Telebista da munduan, hedabideen artean, kontsumituena. Accenture etxeak Espainian, Estatu Batuetan, Frantzian, Alemanian, Italian, Erresuma Batuan, Brasilen eta Mexikon egindako ikerketa baten arabera, 100 lagunetik 97k ikusten du telebista. Beste ondorio bat da, ikusleendako, xarma galdu duela telebistak; hala ere, leialki jarraitzen dituzte gustuko saioak. Ikerketak dio ikusleen %83 ez dagoela pozik betiko telebistarekin, eta %33k astean zortzi saio edo gehiago ikusten dituela; %70ek astean lau saio edo gehiago ikusten ditu, eta %71k, lau telebista kate edo gehiago. Horrek azaltzen du ikusleak saio jakinekin leialagoak direla kateekin baino.

Adina faktore esanguratsua da: "Gazteak gero eta kontentagaitzagoak dira betiko telebistarekin; nahiago dituzte eskaintza berriak", diote Accenturekoek.

**TELEBISTA, SAKELAKOAN**

AEBetan 18 eta 24 urte bitartekoen %46k ikusten du telebista sakelako telefono bitartez; 55 urtetik gorakoen artean, interesa %19ra jaisten da. Inkesta erantzun dutenen %27k saio osoak ordenagailu bitartez ikusi nahiko lituzke.

Edukiei dagokienez, %26k telebistan ohikoak ez diren edukiak ikusi nahiko lituzke, eta %25ek, eurek sortutakoak. %18k jaso nahiko luke telebistaz saio bakoitzeko unerik onenen laburpena edo saioen bertsio laburtuak.

Ordainpeko telebistaz ere galdetu diete inkestan. %37 prest legoke ordaintzeko zerbitzu digital baten bitartez telebista saioak deskargatzearen truke; erdiak hilero kuota bat ordainduko luke muga gabe deskargatzeko; eta gutxi batzuek deskargatzen duten aldiro ordainduko lukete. %35ek ez luke ordaindu nahi saioetan publizitatea ikusteagatik.

Publizitatea da, hain zuzen ere, %64ren kasuan, kexarako arrazoi. Erakargarriak ez diren saioak ikusteak edo etxetik kanpo daudenean gustuko saioa ezin ikusi izanak, esaterako, ez ditu hainbeste kezkatzen ikusleak.

## teknologia berriak

> INFORMATIKA

### Hatz marken bidez ordenagailua erabiltzaile arrotzetatik babesten duen sagua

Ordenagailuaren ondotik alde egin eta inork erabiltzerik nahi ez duenarendako tresna egokia da USB optikodun sagua, hatz markak irakurtzen dituena. Ordenagailuari hatz marken bidez nor den adierazi ezean inork ezingo du ordenagailua erabili. Horrela artxiboak babesteko aukera ematen du; konfiguratuz gero hatz marka eskatuko du Windows-en edo web orrialde batean sartzeko; eta bateragarria da Windows 2000/XP/2003/Vista-rekin.

Salneurria: 51 euro.



Saguaren neurriak dira 10,5x3,3x4,7 zentimetro; eta hiru botoi ditu. Sinplea bezain segurua da.

> KARGAGAILUA

### Aparailu teknologiko txikiak modu ordenatuan eta aldi berean kargatzeko kaxa

*BlueLounge The Sanctuary*-k teknologia berrien zaleen etxeko kable eta kargadore anabasa saihesten du. 12 larako ditu sakelakoak, kamerak, multimedia erreproduzitzaileak, eskurik gabeko *Bluetooth*-ak eta GPS nabigatzaileak, kargatzeko. USB sarrera ere badu Apple etxeko iPod-ak eta iPhoneak kargatzeko. Taparen azpian gordeta daude kableak eta hiru edo lau aparailu kargatzen ditu aldi berean.

Salneurria: 83 euro.



Kargagailuarendako karkasa beltza eta zuria daude aukeran.

> MEMORIA

### Poltsikoan edo ekipajean erraz kabitzen den memoria irakurgailu eramangarri txikia eta arina

*Mini Cube* memoria txartelen irakurgailua da, tamaina txikiarengatik bidaiarako aproposa. Sakelakoa edo argazki zein bideo kamera ordenagailu eramangarrira konektatzeko USB kable mordoa eramatea saihestuko digu, bere kable propioa baitauka.

SD txartel guztiendako balio du baita Sony etxeko *Memory Stick*-endako ere. Ez dauka *CompactFlash* memoriendako sarrerarik, izan ere, horrek tamaina handituko luke.

Salneurria: 7,50 euro.



Kubo formako aparailu beltz horren tamaina 35 x 35 x 17 milimetrokoa da eta 20 gramoko pisua du.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebpn /aiastui /arantxa /aretxargi /argi-plastik /arregi /atai /azkarate /bastida /briz-aseguruak /BZ-sistemas /bolusukaldeak /denetik
/dragon-oriental /dukiena /ego /eguzkigraf /ekilore /ekin /elejalde /ezkutuorly /galgorri /gallastegi /ganesha /garaia /gertu /gorkataxi
/gorla /gurea /guztizeder /hamaikataberna /itxaseder /irudisport /ixaun /izeder /jcracing /lamaino-etxeberri /lorelan /korozabaleta /kizkur /markiegi
/maulanda /mayte /merkeopari /multiopticas /ohiak /ogizun /okipark /optico /otzeta /pando /perfipar /puerta-ingles /richimaier /tabernaberri
/udalatx /udalaitz /urdeki /ugartearotza /urbieta /urko /vitoria /zainduz /ziripot

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.kizkur.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net
www.biark.net



Goiena.net

**'ILUNPEAN'** > EGUBAKOITZA, 22:15

# Asier Hormaza aktorea izango da 'Iunpean' saioan

Athleticeko zale amorratua da Asier Hormaza aktore getxostarra. ETBn egin da ezagun Hormaza

GOIENKARIA > ARRASATE

ETBn paper komikoak egiten zituenean ezagutu genuen Asier Hormaza. Ez da ordea jorratu duen arlo bakarra; izan ere, paper dramatikoak gero eta gehiago egiten ditu. Euskal zinemagintzan ere aurpegi ezaguna bilakatu da, *Eutsi!* filmean eta baita *Kutsidazu bidea Ixabel*-en egindako lanagatik.

Publizitatea, bikoizketa eta antzerki ikasketak egin zituen, eta haren zaletasun handienetako bat da mendira joatea. Bere bizitzako amets bat bete duela dio; aktore izatea, hain justu. Gaur izango da *Ilunpean* saioan.



**ASIER HORMAZA** ETBn ezagun egin den aktorea. EITB

**BERGARAKO MENDEKOSTE JAIAK** > DATORREN ASTEAN

## Bergarako Mendekoste jaiak ekarriko ditu Goiena Telebistak, hurrengo astean

GOIENKARIA > ARRASATE

Bergarako Mendekoste jaiak utziko dituenaren gaineko bi saio eskainiko ditu Goiena Telebistak datorren astean. Martitzenean eskainiko dute lehen saioa, eta errekortadoreen gainekoa izango da. Osorik eskainiko dute errekortadoreen saioa, Iñigo Almortzaren komentarioekin. Martitzenean izango da, 21:47an.

Bergarako jaien gainean eskainiko duten bigarren saioa ikusteko aukera, berriz, eguaztenean izango duzue. Ordu berean, pazko jaietako saio berezia eskainiko dute-eta. Goiena Telebistak, egun horietan Bergaran izango diren hainbat ekitaldiren gaineko saioa eskainiko du. Hala nola, izango dira Bitorianatxoren jaitsieran edota gazteendako Txanogorritxu Rock taldeak San Martin plazan eskainiko duen kontzertuak utzitakoak ere jasoko dituzte, eta horretaz gain disko jartzaileen ikuskizunak, herri bazkaria edota herri kirolen erakustaldian ere izango dira GOITBkoak. Hori guztia Kattalin Antxiaren eta beste kolaboratzaile batzuen eskutik. Eguaztenean, 21:47an.

## berriak

> ERREPORTAJEA

### Txatxilipurdik antolatutako udalekuek, 20 urte

Txatxilipurdi elkarteak, 20 urte beteko ditu umeendako udalekuak antolatzen. Hori aitzaki hartuta, Goiena Telebistak gai horren gaineko erreportajea ekoiztuko du.

Erreportajean, Txatxilipurdik antolatzen dituen udalekuek 20 urte hauetan izan duten bilakaeraren edota ibilbidearen errepasoa egingo dute; horretarako, begiraleekin, umeekin edota antolatzaileekin berba egingo dute.

> EUSKALDUNAK HIZKETAN

### Gastronomia hizpide 'Euskaldunak Hizketan' saioan

Datorren eguaztenean, 16:15ean, gastronomia izango dute mintzagai *Euskaldunak Hizketan* saioan. Gure nagusien eskutik, lehengo eta oraingo gastronomiaren arteko konparazioa ikusiko duzue.

Hain zuzen ere, azalduko dute nolakoak ziren lehenagoko jakiak, edota nola aldatu den gastronomia Euskal Herrian, eurak gazte zirenetik gaur egunera arte. Hori guztia esan bezala, eguaztenean.

> ARRASATE IRRATIA

### Udalekuen 20. urteurrena, protagonisten ahotik

Txatxilipurdi elkartea zorioneko dabil aurten, 2008an, izan ere, elkarte horrek antolatu dituen udalekuek 20. urteurrena bete dute. Aitzindari izan ziren udalekuak antolatzen eta 20 urte pasatu diren arren, oraindik ere indartsu dirau ekimen horrek. Bada Txatxilipurdiren udalekuen sorrera zelakoa izan zen, anekdotak, aldaketak eta beste aztertuko dituzte irratian, martitzenean, 11:30ean hasita.

> ARRASATE IRRATIA

### Sarrerak datozen bi kontzertuotarako, entzuleendako

Maiatzaren 12tik 16ra bitarteko astean Jessie Evans and Toby Dammit entzutera joateko sarrerak zozkatuko dituzte irratian. Kontzertua izango da maiatzaren 18an, Amaia Udal Antzokiko hallean. Bestalde, eta sarrerekin segituz, maiatzaren 24an Jabier Muguruza etorriko da bakarkako 9. lana aurkeztera: Konplizeak. Bada horrako sarrerak ere izango dira zozketan Arrasate Irratian. Zozketa egubakoitzero egiten dute.

## telebegi

**Edu Mendibil** > www.goiena.net/blogak/edu

### Bla bla bla eta xiki xiki

Jose Luis Uribarriren eta haren moduko nostalgikoen atsekaberako, Rodolfo Chikilicuatre izango da Espainiako ordezkaria Eurovision lehiaketan. Sekulako *pelmada* eman duten arren lortu dut ezinezkoa zirudiena: abestia ez entzutea. Hala ere, zaila da Rodolfori ihes egitea eta Buenafuenteren taldeari marketing operazio bikaina aitortu behar zaio. Konpetentziari, TVEri, gol bikaina sartu diote. Herenegun, *Club de fútbol* saioan tertuliano azaldu zen Rodolfo!

Orain, Eurovision lehiaketarekiko interesa pizteko-edo, Massielen *La la la* etorri zaigu berriro. Ustez, Francoren erregimenak presioa egin zuen 1968an Massielek irabazteko, Cliff Richard orduko Ingalaterrako ordezkariaren kaltetan (Francok horrenbeste indar?). Martitzenean Massiel *Bla bla bla* egon zen Antena 3eko *Espejo público* saioan, Emilio Aragonen eta La Sextaren kontra sekulakoak eta bi esaten, polemika pizteagatik. Jesus Mariñas Massielen jenioa baretzen saiatu zen: *¡Tú ganaste por minifalda, por piernas y por coraje!* Guztion adostasuna ezinezkoa denez, ohikoak bilakatu diren SMS maltzur horietako baten zera irakur zitekeen: *Claro, cómo va a ganar con esa voz*.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Tasio Erkizia, Ilunpean saioan; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta, tertulia...) *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza,9**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Kantari. **14:15** Euskaldunok hizketan. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Musikantoi. **16:15** Ur eta lur. **16:45** Albisteak. **17:15** Marrazkiak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean. **18:15**Erreportajea. **18:45**Albisteak. **19:15**Ikusmira. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Animalia. **22:15**Ilunpean. **22:45**Berriak. **23:15**Musikantoi. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Klip 28. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 10**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak. **11:00** Ikusmira. **11:30**Ikusten. **12:00** Astekoak. **12:15**Klip. **12:30** Gertutik **13:00** Eltze beroa **13:30** Erreportajea. **14:00**Gertutik. **14:30**Errepor-ttipi ttapa. **15:00** Kantari. **16:00** Marrazki bizidunak. **19:00**Euskaldunok hizketan. **19:30**Ikusten. **20:00**Ur eta lur. **20:30**Eltze beroa**21:30**Erreportajea ttipi ttapa. **22:00**Erreportajea. **22:30**Ilunpean. **23:00**Musikantoi. **23:30**Jazmina. **00:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 11**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak . **11:00**Kantari. **12:00**Ur eta lur. **12:30**Berbaire.**13:00**Euskal artazainak. **13:30**Euskaldunak hizketan. **14:00**Erreportajea.**14:30**Ikusmira. **15:00**Animalia. **15:30**28 klip**16:00**Marrazki bizidunak.**19:00**Jazz gauak. **19:30**Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea ttipì ttapa. **21:00** Musikantoi. **21:30**Animalia. **22:00** Astekoak. **22:15** Gertutik. **22:45**Erreportajea. **23:15** Teknopolis.**23:45**Ilunpean. **00:15** Musikantoi.**00:30**Emisio amaiera

**Astelehena, 12**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea-Ttipi TTapa. **14:15**Eltze beroa. **14:45**Berriak. **15:15**Ilunpean **15:45** Gaurkoak. **15:47** Berbaire.**16:15**Berbaire. **16:45** Berriak. **17:15** Marrazkiak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ikusten. 1**8:15**Teknopolis. **18:45**Berriak. **19:15** Animalia. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunako. **20:45** Berriak. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea. **22:15** Kirolari. **22:45**Berriak. **23:15**Harmaillatik. **22:45**Gaurkoak. **23:30**28 Klipa. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena, 13**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Horry.**13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea. **14:15** Harmaillatik.**14:45**Berriak. **15:15**Animalia. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Kirolari. **16:15**Eltze beroa **16:45**Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47** 28 Klipa .**18:15**Musikantoi. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak: Horry. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari **20:45** Berriak. **21:15**Berbaire. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Bergarako jaiak:Rekortadoreak. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Erreportajea. **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena, 14**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Kantari. **14:15**Eltze berioa. **14:45**Berriak. **15:15**Bergarako jaiak:Rekortadoreak. **16:15** Euskaldunak hizketan. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Animalia. 1**8:15**Harmailatik. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak. **19:45**Berriak. **20:15** Zaharrak berri. **20:45** Berriak. **21:15** Ikusten. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Bergarako jaiak. **22:15**ur eta lur. **22:45**Berriak. **23:15** Teknopolis. **23:45**Gaurkoak.**23.47**Jazzmina.**00:15**Emisio amaiera

**Eguena, 15**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Zaharrak berri. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Marazki bizidunak. **14:15**Euskal artzainak. **14:45**Berriak. **15:15**Bergarako jaiak. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Ur eta lur. **16:17**Eltze beroa. **16:45** Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean. 1**8:15**Kirolari. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazkiak. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Berbaire. **22:15**Musikantoi. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusten. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Teknopolis. **00:15**Emisio amaiera







Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

BEILATOKIA
ETENGABEKO ZERBITZUA
LORE KOROAK
ESKELAK
TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA

bai euskarari
zerbitzua euskaraz

Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net



ANDAMIORIK GABEKO LANAK




ÑAÑARRI
LAN BERTIKALAK

680 641 401
676 952 968

Fatxaden eta barruko patioen
berrikuntza eta pintaketak

Teilatuak • Kanaloiak • Bajanteak Tximiniak
Altuerako kimatzeak

GOIENKARIA
2008ko maiatzaren 9a

# Maiatzak 9-15

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 12**

## Kontzertua



ARRASATE

**> AEBetako Gore gore girls taldeak diskoa aurkeztuko du gaur gauean**

Michigango underground joerako garage-rockaren berpizkundean diharduen taldea da Gore gore girls. *Get the gore* diskoa aurkeztuko dute gaur, Amaia antzokian, 21:00etan. Arrasateko Los Cretinos taldeak ere joko du.

## Ospakizuna



ESKORIATZA

**> II. Aitzorrotz Kultur Taldearen Eguna eta Loreen Eguna ospatuko dituzte**

Bihar, txistu eta trikiti kalejira, bertso poteoa, herri bazkaria, dantzaldia… izango dira, eta 16:30ean, ekitaldi nagusia: Herriko plazan, bertsoak, umeen txokoa, kontzertuak eta beste. Gauean, kontzertuak izango dira Inkernun.

## Azoka



ARRASATE

**> Antzinako Arrasate berpiztuko dute zapatuan eta domekan**

Antzinako Arrasate izeneko jaia izango da aste bukaeran. Udalak eta herriko hainbat elkartek parte hartu dute antolakuntzan. Besteak beste, 60 salmenta postu egongo dira herriko kale eta plaza nagusietan.

## Musika

BERGARA

**> Scam eta Metralleta taldeek emanaldia egingo dute**

Aretxabaletako Scam taldeak hardcore melodikoa jorratzen du, eta Zarauzko Metralletak, fastcorea. Bi taldeok kontzertua egingo dute Bergarako gaztetxean. Sarrera doan da.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 23:00etan.

BERGARA

**> Hainbat kontzertu antolatu dituzte Mendekosteetan**

Gaur, egubakoitza, Enboskada, Hesian eta Amaiur taldeek joko dute; bihar, zapatua, Turboshit, Inoren ero ni eta Pikutara taldeek; eta etzi, domeka, Belceblues, Olympic darts, Adi Holden eta Mahaster River taldeek.

Bideberrin, 22:30ean.

ARRASATE

**> Hudson Falcons, First Wave eta Friday Crew taldeak**

AEBetako New Jerseyko Hudson Falcons taldeak kontzertua egingo du 3.60 aretoan. Punk-rocka egiten dute, eta The Clash, Stiff Little Fingers, Bruce Springsteen, Johnny Thunders, Blitz eta beste talde batzuen eragina jasotzen dute. Eurekin batera, Memphis eta Philadelphiako The First Wave taldeak joko du, eta Friday Crew-k ere.

Gaur, 3.60 aretoan, 22:30ean.

OÑATI

**> Azpeitiko abesbatzak kontzertua egingo du bihar**

Azpeitiko abesbatzak kontzertua egingo du bihar, zapatua, agustindarren elizan. Oñatiko abesbatzak gonbidatuta etorriko da.

Bihar, agustindarren elizan, 20:00etan.

BERGARA

**> Musika eskolaren udaberriko kontzerturako txartelak**

Musika eskola hasi da udaberriko kontzertua prestatzen. Aurten, egun berean, bazkaria beharrean, afaria egingo dute eskolakoek. 18:30ean, trikiti kalejira egingo dute; 19:00etan, kontzertua; eta 21:00etan, afaria eta dantzaldia.

Kontzerturako sarrerak 3 eurotan jarriko dituzte salgai musika eskolan; afarira joan nahi duten helduendako, gehi kontzertua, 16 eurotan; eta afaria bakarrik, 6 eurotan.

Kontzertua eta afaria maiatzaren 17an izango dira, pilotalekuan, 19:00etan.

ARRASATE

**> Disko-jartzaile batek emanaldia egingo du 3.60 aretoan**

Elektit disko-jartzailearen emanaldia izango da.

Bihar, 04:00etan.

BERGARA

**> Musika emanaldi bereziak antolatu ditu Ziripot tabernak**

Bergarako jaiak direla eta, dantzarako musika emanaldi bereziak antolatu dituzte: gaur, egubakoitza, Txabi Funtsak eta Dubby Kogollo disko-jartzaileek joko dute; bihar, zapatua, Lalas eta KRC!-k; etzi, domeka, Kaiet eta Alkate Klorofilak; eta astelehenean, Ima Txillaut eta Balza Kogollok.

Emanaldi guztiak, 23:00etan.

## Erakusketak

ARRASATE

**> 'Libelandula' marrazki eta poesia erakusketa Harresin**

Maite del Reyk eta Maider Zubillagak *Libelandula* erakusketa daukate. Zubillagaren artelanak Del Reyren poesiaren laguntzarekin erakutsiko dituzte. Maiatzaren 17ra arte egongo da zabalik.

Bisita ordutegia: astegunetan, 18:00-20:00; zapatu eta jaiegunetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

ARRASATE

**> Arrasateko Tailaginen Elkarteak erakusketa zabalduko du**

Arte Arrasateko Tailaginen Elkarteak erakusketa zabalduko du gaur, egubakoitza, Kulturaten. Elkarteak 25 urte bete ditu, eta hori ospatzeko antolatu dute honako erakusketa. Elkarteko kideen ibilbidea eta garapena jasotzen ditu.

Bisita ordutegia: martitzenetik domekara, 17:30-20:30, maiatzaren 25a arte.

BERGARA

**> Joxerra Elortzaren erakusketa bisitatzeko aukera dago**

Joxerra Elortzaren lanen erakusketa dago Aroztegi aretoan. Margolan erakusketa horretan, irudi geometrikoen koadroak erakutsiko ditu.

1978az geroztik, 50 erakusketa baino gehiago egin ditu Elortzak, bakarka zein taldeka, eta Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen Gure Artea lehiaketako lehen saria irabazi zuen.

Bisita ordutegia: astegunetan, 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan: 12:00-14:00.

ESKORIATZA

**> 'Islama, guztion ondarea' delako erakusketa ibiltaria**

*Islama, guztion ondarea* delako erakusketa zabalduko dute etzi, domeka, Ibarraundi museoan, eta bisitatzeko modua izango da hilaren 29ra arte. Islamiar mundua hainbat alderditatik aztertzeko eta ezagutzeko aukera ematen du: zientzia, kultura, kaligrafia, erlijioa, bizimodua…

Bisita ordutegia: lanegunetan, 09:00-14:00 eta 17:00-19:00; zapatuetan, 17:00-20:00; eta domeketan, 12:00-14:00 eta 17:00-19:00.

## Lehiaketak

ESKORIATZA

**> Jaietako egitarauaren azal eta esaldia aukeratzeko lehiaketak**

San Pedroetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak. Edozeinek parte har dezake, 15 x 25 cm-ko irudiekin. *2008ko Sanpedruak Eskoriatza* esaldia agertu beharko da irudian. Irabazleak 300 euro jasoko ditu. Lanak udaletxera edo kultura etxera eraman behar dira.

Bestalde, esaldi lehiaketa ere antolatu dute, eta maiatzaren 23tik ekainaren 6a arte egingo dute. 13 urtetik gorako eskoriatzar guztiek parte har dezakete, hiru eta bost lagun arteko taldeetan. Gura adina esaldi aurkez ditzake talde bakoitzak, jaiak ondo pasatzera gonbidatzeko; jaiak, euskara eta gazteak elkartuz; jaiak neurrian ospatzea desiratuz… Esaldiok udaletxeko eta kultura etxeko eskapeetan jarriko dituzte posta kutxetan bota behar dira.

Irudi lehiaketarako lanak entregatzeko mugaeguna maiatzaren 30a da.

BERGARA

**> Mendekosteetako argazki rallyan parte hartzeko aukera**

Aurtengo Mendekoste jaietako argazki rallyan parte hartzeko aukera dago gaur, maiatzak 9, hasi eta hilaren 13ra arte. Helburua da jaietako argazki bilduma bat osatu eta jendaurrean ipintzea.

Edozeinek parte har dezake, gehienez ere, bost argazki aurkeztuta. Koloretan izan beharko dira, formatu horizontal zein bertikalean. Kartulina baten edo formatu digitalean

PROPOSAMENA

BERGARA

**> Gaur egingo diote ongietorria Bergaran Bitorianatxori**

Bergarako plazan batuko dira gaur ilunkaran hainbat herritar eta debagoiendar, Bitorianatxori ongietorria egiteko; horrela hasiko dira Mendekoste jaiak. Txosnak ere gaur irekiko dituzte, 20:30ean.

Bihar, besteak beste, lehiaketak, erromeria… izango dira, eta etzi, txirrindularitzako 72. Mendekoste Saria, dantza solte txapelketa, errekortadore ikuskizuna…

Bitorianatxoren jaitsiera gaur, Bergarako plazan, 20:00etan.



aurkez daitezke. Lanak Bergarako kultura etxean entregatu behar dira.

Sari banaketa ekainaren 16an egingo dute. 200 euroko saria emango diote bilduma onenaren egileari, eta bi argazki onenen egileek 100a euro jasoko dute.

Lanak entregatzeko mugaeguna ekainaren 2a da, 12:00etan.

# Ospakizunak

ARRASATE

**> Corazon de Encinaren kultura asteko egun handia, bihar**

Corazon de Encina extremadurar kultura elkarteak oraingo aste bukaeran amaituko du bere kultura astea. Gaur, egubakoitza, poesia errezitaldia (19:30), saiheski-jana (21:00), flamenkoa (23:30) eta magia (00:00) izango dira; bihar, zapatua, patata tortilla lehiaketa (12:30), presidentearen agurra, ohorezko topa eta Extremadurako jatekoen dastatzea (13:00); folklore emanaldiak (18:15) eta bazkidendako afaria (21:45); eta etzi, domeka, bideoak eta Extremadurako musika (12:00) eta mahai-jokoen finalak (16:30).

Euren egoitzan izango dira ekintzak.

# Bestelakoak

DEBAGOIENA

**> Kimuak film laburren programan parte hartzeko eskariak**

Euskadiko Filmategia fundazioak egiten duen Kimuak programan parte hartzeko eskaria egin dezakete errealizadoreek edo ekoizleek. Zinema edo bideo formatuan egindako edozein ikus-entzunezko lan aurkez daiteke, 30 minututik beherakoa. 35 mm-ko azken kopia eduki behar da, eta 2007ko irailaren 30a baino beranduago egindakoa izan behar du.

Eskaerak honako helbidera bidali behar dira: Euskadiko Filmategia fundazioa (2008ko Kimuak programa); Antso Jakituna hiribidea, 17 –atzea; 20010 Donostia.

Mugaeguna uztailaren 24a da, berau barne.

Argibide gehiago: *www.filmotecavasca.com* webgunean, 943 11 55 11 telefono zenbakian edo *kimuak@filmotecavasca.com* helbide elektronikora idatzita.

OÑATI

**> Txokolateixia inauguratuko du Klaxk elkarteak gaur**

Klaxk Oñatiko Txokolateroen elkarteak Txokolateixia inauguratuko du gaur arratsaldean; erakusketa, txokolatedastatzea, informazioa eta salmenta izango dira.

Horrez gain, Anton Azpiazu elkartearen sortzaileak *La amargura del cacao y la magia del chocolate en Oñati* liburuaren bigarren edizioa eta euskarazko, katalanezko, ingelesezko eta alemanezko bertsioak aurkeztuko ditu.

Gaur, egubakoitza, Sancti Spiritus Unibertsitateko Gela Nagusian, 19:00etan.

# Zinema




## Mil años de oración ****

**Zuzendaria:** Wayne Wang.
**Aktoreak:** Faye Yu, Henry O, Pasha Lychnikoff.
AEB, 2007.
87 min. Denondako.

Agian gehienok ahaztuta izango dugun arren, Mil años de oración filmak Donostiako Zinemaldiko azken ekitaldian film onenari eta aktore onenari ematen diren sariak, Urrezko eta Zilarrezko Maskorrak hain zuzen ere, eskuratu zituen. Wayne Wang-ek (*Smoke*-ren zuzendariak) urte dezente pasatu eta gero, oraindik talentua baduela erakusten du.

*Mil años de oración* film intimista da. Istorioa honakoa da: alargun den aita bat Txinatik Ameriketako Estatu Batuetara doa, orain dela denbora gutxi dibortziatutako alaba bisitatzera. Euren artean egon den distantzia ez da bakarrik kilometrotan neurtzen, izan ere, aita-alabaren artean sortutako distantzia handiena lehendik dator, bien arteko komunikazio eza duela urte asko hasi zen, eta bi pertsonaren artean sentimenduzko hesi bat dagoenean, arazoa oso konponbide zailekoa da. Aita eta alaba mentalitate desberdinekoak dira; aitak alabarengana hurbildu nahi du, baina alaba ez dago bere bihotza zabaltzeko gertu. Inkomunikazioak eta bizitzari aurre egiteko gizakiaren bakardadeak istorioan garrantzi handia dute.

Filma isilunez eta bukatu gabeko esaldi eta elkarrizketaz beterik dago. Kamera pertsonaiengana hurbiltzerakoan, oso gutxi eta oin-puntetan mugitzen da. Zaratarik egin gabe, horiek nola mugitzen diren, zer egiten duten, zer begiratzen duten eta nola sentitzen diren aditzera ematen digu. Pertsonaien sentimenduak islatzea da Wangen helburu nagusia, eta hori akotoreen lan ederren laguntzarekin lortzen du. Gauzak ez dira gehiegi azpimarratzen, eta isiluneak, begiradak eta detaile txikiak dira istorio triste honen osagaiak.

**Antonio Zabala**

### ARETXABALETA
### UDALETXE ZAHARRA

**V. Film Laburren Zirkuitua**
Martitzena: 21:30.

### ARRASATE
### AMAIA ANTZOKIA

**La noche es nuestra**
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Franklin eta lakuko altxorra**
Zapatua: 17:00.

### ELGETA
### ESPALOIA

**Toma el dinero y corre**
Eguaztena: 21:30.

### OÑATI
### KULTURA ETXEA

**Iron man**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

### EIBAR
### UNZAGA

**Algo pasa en Las Vegas**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ
### GURIDI

**Speed racer**
17:00, 19:45, 22:30.

**Cobardes**
18:45.

**Algo pasa en Las Vegas**
17:30, 20:00, 22:30.

**88 minutos**
17:30, 20:00, 22:30.

**3 días**
22:30.

**Todos estamos invitados**
17:00, 20:30, 22:30.

**Mi novio es un ladrón**
17:30, 20:00.

**Iron man**
17:30, 20:00, 22:30.

**Chantaje**
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

### FLORIDA-GURIDI

**Las chicas de la lencería**
17:30, 20:00, 22:30.

**Ausente**
17:30, 20:00, 22:30.

**Mil años de oración**
17:30, 20:00, 22:30.

**Elegy**
18:00, 20:15, 22:30.

**Un poco de chocolate**
17:30, 20:00, 22:30.

**Fuera de carta**
18:00, 20:15, 22:30.

**La banda nos visita**
18:00, 20:15, 22:30.

### YELMO CINEPLEX-GORBEIA

**Expediente Anwar**
20:00, 22:15, 00:35.

**Dueños de la calle**
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

**La noche es nuestra**
19:40, 21:50, 00:00.

**8 citas**
12:15, 15:35.

**Rompiendo las reglas**
12:15, 16:05, 18:15.

**Cobardes**
12:15, 16:45, 18:30.

**Speed racer**
12:15, 15:45, 18:30, 21:30, 00:15.

**Algo pasa en Las Vegas**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Iron man**
12:15, 15:30, 17:00, 18:00, 19:30, 20:30, 22:00, 23:30, 00:30.

**Las crónicas de Spiderwick**
12:15, 15:45.

**Horton**
12:15, 16:05.

**Definitivamente quizás**
20:25, 22:35, 00:45.

**Papá por sorpresa**
12:15, 15:40, 17:50.

**Mi monstruo y yo**
12:15, 15:30, 17:35.

**Fuera de carta**
17:40, 19:50, 22:00, 00:10.

**Todos estamos invitados**
20:30, 22:30, 00:30.

**88 minutos**
12:15, 15:50, 18:00, 20:10, 22:20, 00:30.

**Retratos del más allá**
12:15, 16:50, 18:40.

**21: blackjack**
17:45, 20:05, 22:25, 00:45.

**Chantaje**
20:15, 22:15, 00:15.

**Como locos... a por el oro**
17:45, 19:55, 22:05, 00:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

### ÁBACO BOULEVARD

**Dueños de la calle**
15:50, 18:10, 20:25, 22:45, 01:00.

**Elegy**
20:30, 22:45.

**Speed racer**
16:00, 16:30, 19:00, 19:30, 22:00, 22:30, 00:45.

**21: blackjack**
22:25, 01:00.

**Como locos a por el oro**
15:50, 18:05, 20:25.

**Algo pasa en Las Vegas**
16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:45.

**Casual day**
16:20, 18:25, 20:25, 22:30, 00:30.

**Iron man**
16:15, 17:00, 19:15, 19:45, 22:15, 01:00.

**Papá por sorpresa**
16:00, 18:15.

**88 minutos**
20:20, 22:40, 01:00.

**Cobardes**
16:15, 18:10.

**3 días**
22:45.

**Fuera de carta**
16:00, 18:15.

**Retratos del más allá**
20:15, 22:15.

**3 días**
22:45.

**Mi novio es un ladrón**
20:30, 22:35, 00:45.

**Rudy, el cerdito de carreras**
16:20, 18:20.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Al otro lado ****
Alemania-Turkia, 2007.
Zuzendaria: Fatih Akin. Aktoreak: Hanna Schygulla, Patrycia Ziolkowska.
122 min. 13 urtetik gorakoendako.
Topaketa, hartu-eman eta heriotza batzuen bidez, sei pertsonaren bizitzak elkarri lotuta egongo dira une batzuetan.

**Expediente Anwar ****
AEB, 2007. Zuzendaria: Gavin Hood. Aktoreak: Jake Gyllenhaal, Reese Witherspoon.
122 min. 13 urtetik gorakoendako.
CIAko analista batek Afrika iparraldean lan egiten du; aldi berean, AEBetan bizi den egiptiar bat atentatu bateko susmagarria da.

**Mil años de oración ******
AEB, 2007. Zuzendaria: Wayne Wang. Aktoreak: Faye Yu, Henry O, Pasha Lychnikoff.
87 min. Denondako.
Shi jauna, Pekingo alargun bat, alaba Yilan bisitatzera doa AEBetara. Yilan dibortziatu berri da.

**Un poco de chocolate ****
Espainia, 2007. Zuzendaria: Aitzol Aramaio. Aktoreak: Héctor Alterio, Daniel Brühl.
96 min. Denondako.
Lucas eta María anai-arrebak nagusiak dira; batera bizi dira eta oroitzapen komunak dituzte.

**3 días *****
Espainia, 2008. Zuzendaria: F. Javier Gutiérrez. Aktoreak: Víctor Clavijo, Mariana Cordero.
93 min. 18 urtetik gorakoendako.
Nazio Batuek jakinarazten dute meteorito erraldoi batek topo egingo duela Lurrarekin hiru egunean.

**Elegy *****
AEB, 2008. Zuzendaria: Isabel Coixet. Aktoreak: Ben Kingsley, Penélope Cruz.
108 min. 13 urtetik gorakoendako.
Irakasle batek bere ikasle gazteekin sexu harremanak izaten ditu, baina bere barruko mundua ez dio inori agertzen. Halako baten, Consuela izeneko ikaslea ezagutzen du.

**Iron man *****
AEB, 2008. Zuzendaria: Jon Favreau. Aktoreak: Robert Downey Jr., Terrence Howard.
127 min. 7 urtetik gorakoendako.
Tony Stark armak saltzen dituen enpresa bateko ordezkaria da. Halako baten, armak daramatzan konboia erasotu egiten diote, Stark bertan doala, eta matxinatuen buruarendako arma berezi bat asmatu beharra du.

**Proyecto dos *****
Espainia, 2008. Zuzendaria: Guillermo Groizard. Aktoreak: Adrià Collado, Lucía Jiménez.
93 min. 13 urtetik gorakoendako.
Diego Durand genetikan espezializatutako zientzialaria da. Emazte Susan eta seme Mateorekin zoriontsu bizi da. Dena aldatu egingo da bere nortasuna kolokan jartzen duen albiste bat jasotzen duenean.

## nire aukera



Mireia Alberdi
Dietista
Bergara

## "Plan berrira ohitzen gabiltza"

Duela lau hilabete ama izan nintzen, eta aurretik nituen ohiturak aldatu egin dira guztiz; nire bizitza osoa aldatu da. Oraindik ez dakit oso ziur zer egingo dudan datozen hilabeteetako asteburuetan. Oraingoz, paseatzera irteten gara Bergaran eta inguruetan. Plan berrira ohitu behar gara.

Oraingo aste bukaeran jaiak izanda, kanpora joaten saiatuko gara, alabatxoa oso txikia da-eta oraindik.

**Nolakoa zen zure asteburua ama izan aurretik?**
Zinemara joatea gustatzen zitzaidan, eta baita antzokira ere. Orain, umea zaintzearekin nahikoa dut, paseotxo bat eman eta eguraldi ona aprobetxatzen gabiltza.

**Dietista izanik, ze ohitura dituzu jaterako orduan?**
Orokortasun baten barruan, garbi eta ondo jaten dut. Hori gomendatzen diet niregana etortzen direnei. Helburua ohitura aldaketa bat egitea da; errazena pisua galtzea da, eta zailena, mantentzea.

**Pisua galdu beharrean, irabazi nahi dutenak ere joango dira.**
Bai, eta hori zailagoa da. Arazo metabolikoak egon daitezke, baina izaera batzuek argal egotea eragiten dute, eta oso zaila da aldatzea.

**Sasoi honetan, jende gehiago joaten da zuregana?**
Jendea urduriago dago, neguan gizendu direla ikusten du-eta. Baina ez da bi hileko gauza; bizimodu bat da. Estetika baino gehiago, osasuna izan beharko litzateke helburua.

**Argaltzeko krema eta pilulen inguruko zure ikuspuntua?**
Neurri baten, funtziona dezakete, baina, onak izango balira, ez litzateke gizenik egongo; kontu handiz ibili behar da. Gainera, bakoitzak arazo ezberdina du. Gure aholkua osasuntsu bizitzea da, horrela urte gehiago irauteko.

**Goienkaria**

**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2008-05-09

# Motorrean Marokoraino

**ESKORIATZATIK** Hamabi lagunek egin dute Marokoroinoko bidea, apirilaren 25etik maiatzaren 3ra arte

**ETAPAK** Marokon 300 kilometro inguruko bost etapa egin dituzte; guztira, 4.300 kilometro bidaia osoan

**ERREPIDEAK** Harrituta etorri dira bidaiariak, Marokon dauden errepideen egoera ona ikusi ondoren

**MIREIA BIKUÑA** > ESKORIATZA

Apirilaren 25ean irten ziren Eskoriatzatik Marokorako bidean; guztira, hamabi motor zale abiatu ziren. Hain zuzen, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñatikoak. Algeciraseraino motorrean joan ziren, eta itsasontzia hartuta Marokora heldu ziren. "Seigarren urtea da halako irteera egiten dugula, baina orain arte Andaluzia aldean ibili gara; besteak beste, Xerezen motoziklismoko probak ikusi ditugu, eta Rondan eta Zaldiaren Ferian egon gara", azaldu digu Javi Lazkanok.

Bost etapatan banatu zuten Marokon egin beharreko bidaia: lehena Ceuta eta Fez artekoa izan zen. "Paraje ezberdinak ezagutzeko aukera izan dugu, eta txunditua geratu gara ikusi dugunarekin. Toki batzuetan paraje guztia berde kolorekoa zen, Pirinioetan geundela ematen zuen", dio Lazkanok. Bigarren etapa Fez-Elfouz izan zen; hirugarrena, Elfouz-Ouazazate; laugarrena, Ouazazate-Marrakech; eta azkena, Marrakech-Ceuta. "Etapa bakoitzean 300 kilometro inguru egin genituen. Hainbat herri bisitatu genituen, eta gauero, toki ezberdin batean egin genuen lo. Marokon 1.500 kilometro inguru egin genituen, eta guztira, 4.300 kilometro".

**ERREPIDE ONAK**

Marokotik ekarri duten oroitzapenen artean, errepideen egoera dago. "Ez genuen uste errepideak horren ondo egongo zirenik. Asko harritu gaitu horrek". Javi Lazkanok dio ez dela erraza hamabi motor batera ibiltzea: "Zorionez, eguraldi ona izan genuen. Iaz, adibidez, euria egin zigun eta hala zailagoa zen guztiok batera ibiltzea".

Etxean daude bueltan eta ez dute motorra bazterrean uzteko asmorik. "Irteera luze bakarra egiten dugu urtean, baina egun bakarrekoak maizago egiten ditugu". Oraindik ez dute pentsatu datorren urteko irteera nora egingo duten. "Jeneralean, oporretatik bueltan hasten gara irteeran pentsatzen".




**ATLAS GARAIA** Irudian, lehenengo etapan igo zuten mendatean daude, Eskoriatzatik joandako hamabi lagunak. VALEN GOMEZ

## ahobero

**"Gertatutako guztiaren jatorria buruko gaitza da, eta ez dut uste burutik ondo dagoen pertsona batek bere alaba bortxa dezakeenik"**

**Rudolf Mayer** > Abokatua

*Amstettengo munstroaren* abokatuak dio Josef Fritzl psikiatriko batera eraman beharko luketela bere alaba bahitu eta bortxatzeagatik, eta ez kartzelara.

## iturri onetik

**Elkartea egiteko lursaila utzi diete auzoko bizilagunei Arantzazuko Fraideek**

Arantzazuko Frantziskotarrek bat egin dute auzotarrek duten beharrekin eta beraien erabilerarako lursail bat utzi die. Eta, hala, Arantzazu auzoko bizilagunak hasi dira lursailean eraiki daitekeenari buruzko planak egiten; besteak beste, auzorako elkarte bat eraiki daitekeela aurreikusi dute. Arantzazuko bizilagunak eta gazteak hasi dira bilerak egiten proiektuarekin aurrera egiteko asmoz.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Goliat

Ino alkatea kartzelan sartzea indar erakustaldia izan da, Goliat erraldoiak dira egungo estatuak. Espainiakoa, esaterako, gai da iritzi publikoa edonora eramateko, eta horrek erabateko inpunitatea damaio zernahi egiteko. Gai jakinetan, legebiltzarra jar lezake aho bakarrean eta komeni zaizkion legeak egiten, neurrira. Epaile eta auzitegiak ere zordun ditu, gehienak aisa lerratzen dira gobernuak markatutako estrategiara, bakarren bat aurrean jarri ere bai.

Hori guztia egin dute Inorekin. Harrika ibili, kakaztu, eta botoekin kendu ezin zioten alkatetza Garzonekin galarazi. Bale, ona da ohartzea nor dugun arerio, zenbateraino den indartsu. Eta, erne, gogora dezagun Goliat borrokatzeko David txikiak ez zuela preziso boxeoa aukeratu.

## ai, ene!




**Stop! Gelditu! Maitasunaren izenean!**

Stop seinale berriak egin dituzte eta batzuen gustuko izan diren arren, gehienei ez zai gustatu seinaleen diseinu berria.

www.nopuedocreer.com

zaharrak BERRI

Goitb Goiena Telebista

**Ikustekoa!**

Zure intereseko **elkarrizketak**, **erreportajeak** eta **tertuliak** batzen dituen programa berria daukazu GOITBn

ZAHARRAK BERRI SAIOA

Aste honetan:

EGUAZTENETAN 20:15ean
EGUENETAN 13:15ean



**NOIZ: maiatzak 14 eta 15**

**NOR: Amaia Diaz de Monasterioguren. Dietista.**

**GAIA: Sukaldeko teknologiak: baporeak.**

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara,
**SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!**
**Deitu** programan zehar
**943 00 08 34** telefonora

Babeslea:

kutxa URREZKO ZERBITZUA


Antzinako Arrasate
Maiatzak 10 eta 11
Arrasate
Arrasateko Udala



Aintzinako Arrasate nolakoa zen erakutsi nahi dute azokarekin. NAPARBIDEAK

**ANTZINAKO AZOKA, BESTE JAI EREDU BAT**

# Herrian sustraitutako jai partehartzailea

IKER BARANDIARAN

**Jaiaren eredua eta izaera erabat aldatzea erabaki du udal taldeak herriko elkarteekin batera. Jai apalagoa, baina hemengoagoa egin gura dute. Saltoki gutxiago izango dira, eta herriko taldeak eta premiak gehiago hartuko dituzte kontuan.**

Orain arte ezagutu dugun Erdi Aroko Azoka ez da momentuz Arrasaten errepikatuko. Horren ordez, Antzinako Arrasate izeneko jaia sortu dute. Bestelako eredua duen jaia da, eta ahalegindudo dena herritik bertatik gehiago duen ospakizun bat bilakatzen.

Udal taldeko kideen esanetan, orain arteko jaia "oso kontsumista, erakusleiho bat izan da, eta herritarrek egin beharrean kanpotik kontratatu egin dute".

Arrazoi horregatik, Udala herriko hainbat elkarterekin batu egin zen eta guztien artean erabaki zuten eredua aldatzeko premia zegoela, eta filosofia aldaketak herriari on egingo ziola. Horrekin batera, Naparbideak izeneko elkartearekin harremanetan jarri ziren, artisauak eta bestelakoak ekartzeko.

**HEMENGOAGOA DEN JAIA SORTU**

Naparbiderekin batera adostu zuten herrian dauden elkarte eta ekimenak jaian barneratzea, eta gainontzekoak kanpotik ekartzea. Horrez gain, erabaki zuten Erdi Aroko Azokaren eredua alboratzea: "Erdi Aroko Azoka ia guztiak berdinak dira, berdin da zer herritan kokatzen diren.

> **Kanpotik ekarritako azoka jarri beharrean, bestelako jaia egingo dute**

Horrekin apurtzea gura genuen, eta bestelako jaia sortu, apalagoa, baina hemengoagoa", azaldu zuten udal taldeko kideek.

**SALTOKIETAN, APALAGOA**

Aurten, guztira, 60 saltoki egongo dira herriko alde zaharrean banatuta, beste batzuetan baino gutxiago; eta taberna bakarra jarriko dute. "Orain artekoa azoka zen eta negozio ugari zeuden. Oraingoan, berriz, saltoki gutxiago ekarriko ditugu eta herriko negozioei kalterik ez egiteko saiakera egingo dugu".

Udal taldeko kideek uste dute Arrasatek historia handia daukala, eta urtez urte jai honetan hori lantzeko aukera izango dutela. "Gure asmoa da polikipoliki herrikoak diren elementuak sartzea. Esaterako, ondo legoke, herritarrek antzinako arropekin janzteko ohitura hartzea. Horrek gauzok garatzen joango gara herritarrek eskatutakoaren arabera".

**NAPARBIDEAK ELKARTEA**

# Elkarte batekin lankidetza landu

I.B.

**Naparbideak Nafarroako jaki ekoizleen elkartearekin lankidetzan antolatu du Udalak Antzinako Arrasate jaia. Erdi Aroko eredua alboratuta, jai txikiago eta herrikoago baten aldeko apustua egin dute biek.**

Aurten Udalak ez du enpresa bat kontratatuko Erdi Aroko Azoka antolatzeko. Jaiaren eredua aldatu gura izan duenez, Nafarroako Naparbideak elkartearekin harremanetan jarri da Udala.

Naparbideak elkartea Nafarroako 24 bat janari ekoizlek osatzen dute. Euren ekoizpenak promozionatzeko sortu zuten elkartea, eta orain dela 15 bat urte azokak antolatzen hasi ziren. Eskarmentu handia dute zeregin horretan, eta Nafarroako zein Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat azoka antolatzen dituzte.

Horretarako, azoka edo jaigune horiek jantzi eta aberasteko, beste hainbat elkarte, talde eta artisauekin lankidetzan ibiltzen dira. Hala, azokak osatu eta ikuskizunak ekartzen dituzte, premia badago. Gainera, bitartekari barik, ekoizleak eurak protagonista izatea gura dute.

**HERRIKO BALIABIDEEN ALDEKOAK**

Naparbideak elkarteko ordezkariak esan digu premiazkoa dena bakarrik ekartzen dutela: "Udalarekin batera antolatzen gabiltza, eta argi daukagu ekarri beharrekoa herrian dagoenari gehitu behar zaiola, ez da ezer ordezkatu behar".

Hala, jaigunean taberna bakarra jarriko dute, eta aurtengo edizioetan baino saltoki gutxiago, 60.

**TAILERRAK, IKUSKIZUNAK, SALTOKIAK**

Erdi Aroko eredu estereotipoa alboratuta, jaigune txikiagoa jarriko dute. Horren barruan umeendako tailerrak, animazio ikuskizunak, helduendako tailerrak, Euskal Herriko ekoizpenak zerbitzatuko dituzten taberna bat eta hainbat saltoki ipiniko dituzte Seber Altuben, Herriko Plazan, Erdiko kalean eta Iturriotz kalean.



Artisau bat egurra lantzen. NAPARBIDEAK



Sarrera salmenta
SERVIKUTXA KUTXAZAIN-SAREA
kutxa
943 00 12 00
www.kutxa.net

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Jabier Muguruza

Non: Arrasateko Amaia Antzokian
Noiz: Maiatzaren 24an, zapatuan, 20:00etan

■ EGITARAUA

# Herriko elkarteak eta kale ikuskizunak, protagonistak

## EGITARAUA

**DOKE** antzerki taldeak *Ezkontza* ikuskizuna egingo du zapatuan 19:00etan eta 20:00etan Iturriotz kalean, parrokiaren alboan.

Arrasateko**TRIKITILARIAK** zapatu eguerdian irtengo dira kalejiran.

**AEDk** *Erdi Aroko Mondragoe* izeneko bisita gidatua egingo du. Ana Ugalde irakasle arrasatearrak egingo ditu gidari eta hizlari lanak.

**PORTALOI** elkarteak Seber Altube plazan saltoki bat jarriko du, argitaratu duten kantuen liburuxka eskuragarri jartzeko. Elkarteko kideak bertan abesten ibiliko dira bi egunetan.

**TXATXILIPURDI** elkarteko kideek Seber Altube plazako umeen hainbat tailerren ardura izango dute.

**IBAI ARTE** merkatarien elkarteko kide diren saltzaileek erakusleihoen aurrealdea apainduko dute.

**TISURI** animazio taldeak, kanpotik etorriko denak, hainbat kale ikuskizun egingo ditu: hala nola, musikari, antzezleak, saltinbankiak, dantzariak eta akrobatak etorriko dira, besteak beste.

**ORKESTRA GIZONA** kalez kale ibiliko da musika zuzenean jotzen.




**TABERNA** jarriko dute Naparbideak Nafarroako ekoizleen elkarteko kideek Seber Altube plazan bertako produktuekin: sagardoa, ardoa, gazta, eztia, likoreak, gozokiak eta beste.

**60 SALTOKI** jarriko dituzte Seber Altube, Herriko Plaza, Erdiko kalea eta Iturriotz kalea bitartean: denetariko jakiak eta artisauen bestelako lanak egongo dira ikusgai eta salgai.

**TAILERRAK** Seber Altuben umeendako jarriko dituzten tailerrez gain, helduei eta adin guztietakoei zuzendutako beste hainbat tailer jarriko dituzte mota askotako artisauek: egurrezko kateak, burdina eta beste.



UME ETA HELDUAK GUSTURA IBILIKO DIRA TAILERRETAN




HERRIKO ZEIN KANPOTIK ETORRITAKO KALE IKUSKIZUNAK IZANGO DIRA



Sarrera salmenta
kutxa
SERVIKUTXA KUTXAZAIN-SAREA
943 00 12 00
www.kutxa.net
ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Jessie Evans & Toby Dammit
Non: Arrasateko Amaia Antzokian
Noiz: Maiatzaren 18an, domekan, 20:00etan



Argazkian Doke antzerki taldekoek orain dela bi urte egin zuten ikuskizuna. Aurten ere kalean izango dira herriko antzezleak. GOIENKARIA

■ HERRIKO ELKARTEAK

# Herriko elkarte eta taldeen esku-hartzea areagotu dute

IKER BARANDIARAN

**Udalaren eta herriko elkarte askoren ardura zen bertakoen esku-hartzea areagotzea. Hala, kanpoko ikuskizun eta saltoki ugari ekarri beharrean, gurago izan dute herrian dauden baliabideak ahal den heinean erabili eta horiei aukera ematea.**

Udalak herriko hainbat kultura elkarte, Ibai Arte eta bestelako taldeekin lehenengo batzarrak egin zituenean, horietako ordezkari gehienek adostu zuten jai honetan herriko taldeen eta herritarren esku-hartzea areagotu behar zutela. Are gehiago, kanpotik saltoki eta ikuskizun ugari ekarri beharrean, gurago zuten bertakoa, herrikoa, indartzea eta horiei guztiei protagonismo handiagoa ematea.

Hala, aurreko urteko ildoari jarraituta eta modu baten indartuta, herriko hainbat taldek, bakoitzak, duen onena emango dio jaiari. Hala ere, udal gobernutik jakinarazi digute jaia presaka antolatu dutela, eta herriko talde gutxi batzuk dagoeneko konpromisoak zituztela.

**DOKE ANTZERKI TALDEA**

Aurten ere Doke antzerki taldeko kideak kalera irtengo dira. *Ezkontza* ikuskizuna eskainiko dute Iturriotz kalean, parrokiaren alboan. Hori zapatuan egingo dute, bi alditan, 19:00etan eta 20:00etan.

Trikitilariak ere kalera irtengo dira kalejiran, zapatu eguerdian. AEDk, berriz, *Erdi Aroko Mondragoe* izeneko bisita gidatua egingo du. Orain dela hilabete batzuk egin zuen lehenengo aldiz, eta oso harrera ona izan zuen.

**PORTALOIKOAK, KANTUAN**

Bestalde, Portaloi elkartekoek saltoki txiki bat jarriko dute Seber Altuben. Han ibiliko dira kantuan, eta argitaratu berri duten kantuen liburuxka eskuragarri izango da.

Aspaldi honetan herriko kultura elkarte horrek ahalegin berezia egin du kantuak berreskuratu eta batez ere herritarren artean abesteko ohitura berpizteko. Horretan dihardu.

**UMEEN TAILERRETAN, TXATXILIPURDI**

Arrasaten ez dago umeekin lan egiten eskarmentu handiagoa duen elkarterik Txatxilipurdi baino gehiago. Hala, Seber Altube plazan umeendako jarriko dituzten tailerretako batzuen ardura elkarte horretako kideek izango dute.

Horiez gain, kanpotik Tisuri animazio taldea etorriko da, musikariekin, antzezleekin, saltinbankiekin, hanka-paluekin, dantzariekin eta beste hainbat kiderekin.

**Portaloi elkartekoak kantuan ibiliko dira eta kantutegia eskura jarriko dute**

**Doke antzerki taldeak aspaldiko ezkontza irudikatuko du zapatu iluntzean**

**AEDk 'Erdi Aroko Mondragoe' izeneko bisita gidatua antolatu du**



arte
arrasateko tailaginen elkartea
Arrasateko Udala
kultur ate
Non: Kulturaten
Noiz: Maiatzaren 9tik 25era arte
Ordutegia: asteartetik igandera, 17:30-20:30